

Publicaciones de la Cátedra 'Luis Michelena'
'Koldo Mitxelena' Katedraren Argitalpenak
[2]

METODO KONPARATZAILEA HIZKUNTZALARITZA HISTORIKOAN

A. Meillet



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

eman ta zabal zazu




Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Koldo Mitxelena Katedrak
Bilbao Bizkaia Kutxa, Gipuzkoako
Kutxa eta Arabako Vital Kutxaren
dirulaguntzari ezker burutzen ditu
bere ekintzak.

La Cátedra *Luis Michelena*
realiza sus actividades gracias
a la subvención concedida por la
Bilbao Bizkaia Kutxa, la Kutxa
y la Vital Kutxa.

bbk²



F U N D A C I O N



Caja Vital Kutxa

F U N D A Z I O A

Servicio Editorial de la
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko
Argitalpen Zerbitzua

Apartado 1397 P.K. 48080 - BILBAO

Tf. 946 012 227

Fax / Faxes 94 480 13 14

Internet: http://www.lg.ehu.es/servicios/se_az

E-mail: luxedito@lg.ehu.es

SOLICITE NUESTRO CATÁLOGO
ESKATU GURE KATALOGOA

Publicaciones de la Cátedra «Luis Michelena»
«Koldo Mitxelena» Katedraren Argitalpenak
[2]

**METODO KONPARATZAILEA
HIZKUNTZALARITZA HISTORIKOAN**

A. MEILLET

METODO KONPARATZAILEA HIZKUNTZALARITZA HISTORIKOAN

J. Gorrotxategiren edizioa, hitzaurre eta oharrez hornitua

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
servicio editorial argitalpen zerbitzua

2001

CIP. Biblioteca Universitaria

MEILLET, ANTOINE

Metodo konparatzailea hizkuntzalaritza historikoan / A. Meillet ; J. Gorrotxategiren edizioa, hitzaurre eta oharrez hornitua. — Bilbao : Servicio Editorial. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2001. — 109 p. ; 24 cm. — (Publicaciones de la Cátedra "Luis Michelena" = "Koldo Mitxelena" Katedraren Argitalpenak ; 2)

D.L.: BI- 1660-01

ISBN: 84-8373-358-7

I. Gorrotxategi, Joaquín, ed. lit. 1. Gramática comparada y general 2. Lingüística histórica

801.52

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu infomatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

Itzultzaileak: M. Jose Kerejeta
Blanca Urgell

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

I.S.B.N.: 84-8373-358-7

Lege gordailua: BI-1660-01

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop. - Bilbao
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Aurkibidea

Aurkezpena	9
Hitzaurrea	13
I. Metodo konparatzailearen definizioa	17
II. Hizkuntza komunak	25
III. Erabilitako frogak	33
IV. Elkartasun garaia eta histori garaiaren arteko hizkuntz bilakaeraz...	49
V. Dialektoak	57
VI. Hizkuntz geografia	63
VII. Hizkuntza mistoaren adigaia	73
VIII. Aldaketa formula orokorrak	83
IX. Berrikuntza espezifikoak	93
X. Xehetasun gehiagoren beharra	99

Aurkezpena

Oraingo honetan euskaratua plazaratzen dugun liburuxka honek duela 76 urte ikusi zuen argia lehenengo aldiz Parisen. Argitaratu zenetik eragin itzala izan du ondorengo hizkuntzalariengan, batez ere hizkuntzen arteko konparaketa eta historiarekin zerikusia zuten gaiak aztertzen zituztenen artean.

Antoine Meillet egileak hitzaurrean dioskunaren arabera, liburuxka Oslon 1924. urtean emandako ikastaldi baten ondorioa da. Ez da, beraz, tratadu gisa argitaratzeko asmatutako testu sakon eta datubiltzaile horietakoa, entzuleen aurrean zenbait idea eta printzipio ahalik eta argien azaldu ondoren idatziz zuzen eta txukun jaso dituen baizik.

Xede horrekin bat datoz liburuaren tamaina bera, guztiz erabilgarria, eta irakurraldi baterako ongi egokiak diren atalak ere, egilearen luman frantsesak erakusten duen estilo arin bezain zehatz batean idatzitziak. Adibide gehienak ondo ezagutzen diren hizkuntzetakoak dira, erromantzeak, hizkuntza klasikoak —latina eta greziera erromantzeak bezain ezagunak baitziren orduan eskolatuen artean— eta gainerako hizkuntza indoeuroparrak; hainbeste maite eta ikertu zuen armenieratik adibideak aipatzen dituenen ez da datuen jario aberats eta itobeharrezko batean murgiltzen, jakintsu erudito askori sarritan gertatzen zaion bezala, baizik eta saiatzeko da neurrigabeko jakinduria, beharrezkoak diren datuak soilik erabiliz, argumentoaren arira makurrarazten.

Xume eta apal izateko sortu zenak beste edozein liburu hantustetsuk baino arrakasta handiagoa lortu zuen orduko eta ondorengo belaunaldietako hizkuntzalarien artean.

Kontuan izan behar da Meilletek hitzaldi hauek eman zituenerako, zalantzarik gabeko maisutasuna erakutsia zuela jadanik hizkuntza indoeuoparren arteko konparaketa lanetan. Mendearen hasieran, 1903an hain zuzen, hizkuntza indoeuoparren azterketa konparatuari buruzko sarrera bat idatzi zuen —*Introduction à l'étude comparative des langues indoeuropéenes*—, urteetan alor horretan murgildu nahi izan dutenen gidaliburua izan dena; beste sarrera batzuk ere idatzi dira berandua-go, hala nola Hirt alemaniarrena azken munduko gerra baino lehen edo H. Kraherena, gerra ostean, baina ez batak eta ez besteak ez zuten lortu Meilletek lortu zuen canon klasikoa. Oraindik ere, zenbait gauzatan zaharkitua egon arren, askoren iritziz ez dago Meilleten *Sarrera* baino modu egokiagorik hizkuntzalaritza indoeuoparreko itxura klasiakoaren berri lortzeko.

Hizkuntzalaritza indoeuoparra errotik irauliko duen bi hizkuntza berriren aurkikuntza, tokarierarena eta hititerarena hain zuzen, hurrengo hamarkadan eman zen, eta denbora dexente behar izan zuten hizkuntzalariek datu berri horietatik ataratzen zen informazioa konparaketa lanetan erabiltzeko; gainera hizkuntza biek ez dute eragin berdina aitzinhizkuntza berreraikitzeke orduan, hititera tokariera baino askoz ere zaharragoa eta arkaikoagoa baita. Horregatik Meilletek erabiltzen dituen hizkuntzak XIX. mendeko hizkuntzalaritzak erabili zituenak dira, baina hala eta guztiz ere bada aurrekoen eta Meilleten obraren artean erraz igartzen den aldea: Saussureren eragina, hain zuzen.

Askok Saussureren lan bakarra —edo gutienez balioko bakarra— Ginebran eman zituen kurtsoen argitalpen postumoa dela uste duten arren, jakin behar da 1878an, Meilleten *Sarrera* baino 25 urte lehenago, beraz, indoeuoperazko sistema bokaliko zaharra goitik behera berreraiki zuela orduan ezagutzen ziren datu konparatiboak egitura edo sistemaren ikuspuntutik joaz. Esan daiteke Ginebrako kurtsoetan hizkuntzaren gainean azaldu zituen iritziak askoz lehenagotik aplikatu zituela berak hizkuntzalaritza indoeuoparreko zereginetan. Meilletek Parisen ezagutu zuen, hango unibertsitatean irakatsi baitzuen Saussurek 1881etik 1891ra bitartean, ikasle guztiengan eta bereziki Meilleten baitan mirespen sakona lortuz. Meilletek bere *Sarreran* aukeztuko digun

indoeuropea klasikoa da zentzu batean, ez baitu hizkuntza aurkitu berriak erabiltzeko aukerarik izan, baina beste aldetik kutsu modernoak naberria du, estrukturalismoak hizkuntzaren muinari buruz izango duen ikuspuntutik datorrena. Bera izan zen, beste inor baino zehatzago, ginebrarrak hizkuntzaren gainean zuen iritzia hitz gutitan adierazi zuena, hizkuntza «un système où tout se tient» dela idatzi zuenean.

Baina, horrekin batera, Meilletek ez zuen inoiz ere hizkuntza bere bakardadean estudiatu, hau da, hizkuntza hori mantentzen zuen gizartea kontuan izan gabe, puntu honetan ondoren garatuko diren eskola estrukturalista gehienetatik bereiziz. Gizartearen egiturak, ekonomiak, kulturak, garapenak eta beste hamaika kontuk hizkuntzan duten eragina ez da nolana hikoia eta bien arteko lotura estua ezin da sekula ere begi bistatik kendu, hizkuntzak jasan dituen aldaketak azaldu nahi ditugunean. Liburuxka honetan, nahiz dialektologia kontuez, nahiz amankomuneko hizkuntzaz ari denean, agerian gelditzen da, beraz, Meilletek soziolinguista baten interesak dituela eta gaur egungo zenbait soziolinguistaren ikerketak, Labov eta bere segiziokoenak, esate baterako, haren ondorengo direla, hizkuntzaren aldaketetan giza parametroekin lotuta dauden hizkuntza aldaerek duten eragina azpimarratzen dutenean.

Indoeuropeista zen neurrian konparatista zen, eta grina horrek bultzatu zuen hizkuntza indoeuoparretatik kanpo diren hizkuntza familien informazioa biltzera eta Cohenekin batera munduko hizkuntzen aurkezpen eta sailkapen bat egitera. Indoeuropeista zen aldetik normala zen berreraiketaren ahalmenaz konfidantza izatea eta metodoek gauzatzen zituzten lorpenak haintzakotzat hartzea. Liburuxka honetan euskarari zuzentzen dion aipuan oso garbi ikus daiteke Meilletek hizkuntzaren historia argitzerakoan konparaketan jartzen duen ahalmena; dena dela, euskararen historiaurrea ezagutzeko beharrezkoa bazaigu ere, historia azaltzeko nahikoa da euskaraz idatzi diren testuak aztertzea, Mitxele-nak zuzendu zion bezala.

Liburuxka honen euskaratzearen kontua aspaldikoa da, Eusko Legebiltzarrean aurkezturiko proposamen bati esker lortu baitzen zientzia alor desberdinetako zenbait liburu klasikoren itzulpenarako laguntza. Blanca Urgell eta Marijoxe Kerejetak ekin zioten itzulpenari, batak lehenengo partea bere gain hartuz eta besteak bigarrena. Itzulpenak egin ondoren, zati biak erkatu zituzten aldaera desberdinak batzeko asmoarekin. Azkenik itzulpena goitik behera kontrolatu dut, bereziki adibi-

deak ematen diren pasarteetan jatorrizko forma egokiak zainduz; grekerazkoetan, esaterako, Meilletek —arrazoi tipografikorengatik, batez ere— erabiltzen duen transkripzioaz gain ohiko forma grekoa gehitu dut, jatorrizko alfabetoan ikustera ohituak baikaude filologia egin dugunok. Bestalde, lehendabiziko argitalpenetik horrenbeste denbora pasa eta gero, beharrezko iruditzen zitzaidan orduko irakurlearentzat oraingoarentzat baino askoz ere ezagunago egiten zitzaizkion aipuak eta azalpenak ohartxo batzuren bitartez argitzea. Aitortu behar dut ez dudala kasu guztietan nire helburua lortu, eta batez ere nazioarteko maila ez zuten obra edo pertsonen kasuan ez dudala gauzak bere hartan uztea baino beste erremediorik izan.

Azkenik, uste dut ezin zukeela liburu honek, publikatua izateko, Koldo Mitxelena Katedra Sailak eskaintzen dion baino leku aproposagorik aurkitu. Hizkuntzen erabileraren aldetik kurioso xamarra baldin bada ere euskalariaren obra gaztelaniaz egotea indoeuropeistarena euskaraz argitaratzen den bitartean, ez da batere zalantzarik bata bestea osatu egiten duela, garbi gelditzen delarik Meilletek obra honek Mitxelenean izan zuen eragin handia.

Gasteiz, 2001.ko martxoaren 1ean.

J. GORROTXATEGI

Hitzaurrea

Alf Sommerfelt jaunak adierazi didanean Kristianian (Oslo, gaur egun) Fr. Stang irakaslearen eraginez arestian sorturiko *Instituttet for Sammenlignende Kulturforskning*¹ erakunde handiak zeukan asmoa, alegia haren estreinako hitzaldietara ni gonbidatzea, berehala eta pozik onartu dut.

Gonbitea aurretiaz ezagutarazi didan jakintsu gazteak zenbait urteetan —Gerla Handiaren urteetan— hizkuntzalari frantsesen aldean jardun zuen lanean. Gure talde txikiko guztien adiskide bilakatu zen. Biziki pozten naiz bera berraurkitzeaz bere herrian, non hizkuntzalaritzak hainbeste zor dion, eta berriro, denbora apur batez bada ere, berarekin batera lan egin ahal izateaz.

Eta zoriontsu sentitzen naiz giza zientziei etekin handiak erdiets diezaizkiekeen erakunde baten lehen urratsetan parte hartzeagatik. Orain arte asko egin izan da bildutako datuekin; alabaina, ikertzaileek eskura dituzten materialak maiz ustiatu dira. Material berriak eskainiko dituzten inkesta sistematiko zabalak egiten hasteko garaia heldu da, gaur egun ontzat hartutako teoriak hedatu eta sakondu ahal ditzagun. Bestalde, gizonaz eta haren zibilizazioez edozein ikuspuntutatik arduraz diren jakintsu guztiak harremanetan jartzea ere premiazkoa da: ez dago hizkuntza bat ulertzerik, erabiltzen duen jendearen bizi-baldintzen

¹ Zibilizazioen Azterketa Konparatzaileako Institutua (arg. oh.).

berri izan gabe; are gehiago, ezin da erlijiorik edo giza ohiturarik benetan ulertu, haien arabera bizi direnen hizkuntza ezagutu gabe. Institutu berriaren batasunak, aztertzen duen gaiaren batasuna, gizona alegia, adierazten du. Leku gehiagotan ere antzerako erakundeak sortu eta inkestetarako behar diren eskuarte ugariez hornituak izan ditezen opa diogu.

Horrezaz gain, antolatzaileekin bat etorririk ikastaro honetarako hautatu dudan gaia, hausnartzeko garaia heldu zaieneta bat da. 1875-1880 bitartean finkaturiko oinarrietatik espero zitezkeen emaitzak hogeita hamar bat urtez atera ondoren, hizkuntzalaritza historikoa berriz irakidura garai batera iritsi da. Inkesta modu berriek ustekabeko emaitzak izan dituzte. Ez da sekula aldaketa linguistiko guztiak «legetara», baita «lege orokorretara» ere, erakartzeko antzeko ahaleginik egin, sekula ez da gertakaririk xeheenei ere hain hurbildik oratzeko eta berrikuntzak egindako gizataldeen ariman barna aztertzeke antzeko saiorekin egin. Aldaketak eskematikoki baino agertzen ez dituzten hizkuntza zaharrenetatik hasita egungo hizkeretaraino, zeinetan gertakariak hain diren zehatz eta xeheak non xeheetasunek joera nagusiak estaltzen baitizkigute, gertakari neurri-gabeki ezberdinak begietsi dira. Hizkuntzalaritza, azalbide berriak eskaintzeko gai diruditen auzoko jakintza guztiarekin harremanetan jarri da. Astiro bada ere, indoeuroparrak ez diren hizkuntzen azterketa aurrera doa; alabaina, eremu indoeuroparrean arrakastarekin erabili diren prozedurak ez dira beti egokiak non-nahi. Eremu berrietako ikerketen beharrei egokitzeko, erabilitako metodoez hausnarketa egin beharra dago, haien bidezotasuna aztertuz eta erabilera nola heda eta metodook —zehaztasunean ezer galdu gabe— nola zalu daitezkeen begiratzuz.

Oraindik metodoak aztertu behar handiagoa somatzen da, azkenotan hizkuntzalari anitzek gaizki frogatutako hipotesiak agertu baitituzte. Etimologia berriak ugaltzen ari dira, baina gehienak frogabide antzikeri ere gabe aurkezten zaizkigu. Alferrik izango da honelakoak banan-banan eta xeheki kritikatzeko, parekazio etimologiko baten egokitasuna frogatzeko beharrezko diren gutxieneko baldintzetan adostasunik ez badago. Hemen azaldutako oinarrien taxuzkotasuna onartuko duenari, arestian aurreindoeuperari buruz egin diren hipotesi korapilatsuetatik edo defendatu diren indoeuperazko etimologietatik asko eta askok aintzat hartzea nekez merezi dutela irudituko zaio. Ikastaro honetan eztabaidak ia lekurik ez duen arren, metodo zorrotz baten eskakizunak

betetzen ez dituzten lan berri askoren kritika inplizitua aurkitu ahalko da.

Ez dugu hemen ideia berririk agertzeko asmorik; xede bakarra, hizkuntzalaritza historikoan metodo konparatzailea zein baldintzatan erabil daitekeen eta erabili behar den zehazki finkatzea da. Irakurleak metodo honen balioa, baina baita bere mugak ere, zehatz-mehatz adierazita aurkitzen baldin badu, asebetterik geratuko gara.

Ahoz agertu eta gero bakarrik idatziz jarri dira hemen garatutako ideiak. Hitzaldiok, egin ondoren erredaktatuak, egileari aurkeztutako oharra kontuan hartzen dituzte, bereziki Sommerfelt jaunarenak; atsegin handiz eskertzen ditut denak.

Espero dut —baina halakorik itxarotea amets zoro dateke— txosten hauek non-nahiko irakurleengan aurkituko dutela Kristianian erdietsi bezalako harrera samur eta onbera.

Kristiania (Oslo), 1924ko irailean
A.M.

I.

Metodo konparatzailearen definizioa

Konparaketa egiteko bi bide ditugu: konparaketatik lege unibertsalak nahiz azalpen historikoak lortzeko asmotan konpara dezakegu. Bi konparaketa mota hauek, bata bestea bezain zilegi, zeharo ezberdinak dira.

Hau berau aurkitzen da animalia-ipuinen munduan: gizonak animaliekin dituen antzekotasunak halakoak dira non gizonei gertatu ohi zaizkien abenturak animaliei leporatzea berez bezala datorren, zuzenean erraz ulertarazten ez diren zenbait gauza haien bitartez adierazteko. Ipuinok beren artean konpara daitezke, haien tankerak, ezaugarriak edota erabilera definitzeko, eta honela animalia-ipuinei buruzko teoria orokor bat egiteko. Agertzen diren kidetasunak giza-izpirituaren batasun orokorrari zor zaizkio eta ezberdintasunak, berriz, ereduaren ñabartasunari eta zibilizazio mailei. Era honetan gizadiaren ezaugarri orokorrei buruz gehiago jakitera iritsiko gara, baina ez dugu ezertxo ere haren historiaz ikasiko.

Dumézil jakitun gazte frantsesarekin hilezkortasunaren edariari buruzko mito indoeuroparrak aztertuaz², ondorioak zeharo bestelakoak dira. Hilezkortasuna emateko gai den edari bat dagokeelako ustea arruntegia da ezereen bereizgarritzat hartzeko. Alabaina, hizkuntza indoeuropardun

² G. DUMÉZIL, *Le festin d'imortalité. Étude de mythologie comparée indo-européenne*. [Ann. Musée Guimet 34], Paris 1923 (arg. oh.).

herri ezberdinetan, osagarri gehiago edo gutxiagorekin, upel erraldoi batean egindako hilezkortasunaren edariaren leienda aurkitzen denean, eta leienda honi sasi-andregai baten istorioa biltzen zaionean, eta jainkoen eta izaki deabruzkoen arteko borroka baten kontaera ere, bada han beren artean berez loturarik ez daukaten gertakari bakan multzo bat; batera azaltze hori ezin daiteke halabeharrezkoa izan.

Baldin hizkuntzak adierazi behar duen esanahia berezko lotura —zabal zein estu— batez lotuta balego bera adierazten duten hotsekin, hau da, baldin berez, tradizioaz lekora, zeinu linguistikoak nolabait adigai bat burura ekarriko balu, hizkuntzalariak erabil lezakeen konparaketa mota bakarra orokorra izango litzateke, eta edozein hizkuntz historia ezinezkoa.

Baina, izan ere, zeinu linguistikoa arbitrarioa da: ez du tradizioak ematen dion balioa besterik. Baldin batasuna frantsesez *un*, *une*-z adierazten bada, bikoiztasuna *deux*-ez, etab., ez da *un*, *une*, *deux*... hitzek batasun, bikoiztasun, etabarrekin berez inolako erlaziorik daukatelako, baizik eta hitz egiten dutenek hitz egiten ikasten dutenei irakatsitako erabilera delako, besterik gabe.

Zeinuaren izaera erabat arbitrarioak, eta berak bakarrik, ahalbidetzen du hemen aztertuko den metodo konparatzaile historikoa.

Har ditzagun frantses, italiera eta gaztelaniazko zenbaki izenak. Bada sail bat:

Frantsesa	Italiera	Gaztelania	
un, une	uno, una	uno, una	«bat»
deux	due	dos	«bi»
trois	tre	tres	«hiru»
quatre	quattro	cuatro	«lau»
cinq	cinque	cinco	«bost»
six	sei	seis	«sei»
sept	sette	siete	«zazpi»
huit	otto	ocho	«zortzi»
neuf	nuove	nueve	«bederatzi»
dix	dieci	diez	«hamar»
vingt	venti	veinte	«hogei»
trente	trenta	treinta	«hogeitahamar»
quarante	quaranta	cuarenta	«berrogei»
cent	cento	ciento	«ehun»

Honelako kidesunak ezin litezke halabeharrezkoak izan; eta hizkuntzen arteko ezberdintasunak egokitasun arau mugatuetara erakar daitezkeen neurrian oraindik gutxiago: lehen begiradan *huit*, *otto* eta *ocho*-ren artean dagoen aldea handia da; baina antzerako egokitasun gehiago egoteak, hala nola fr. *nuit*, it. *notte*, gazt. *noche*, edo fr. *cuit*, it. *cotto*; eta berdin fr. *lait*, it. *latte*, gazt. *leche*; fr. *fait*, it. *fatto*, gazt. *hecho*, etab., ezberdintasuna halabeharrezkoa ez dela erakusten digu. Begibistan diren kidesunek jarraitu behar den bidea agerian jartzen dute. Baina ez dago haietatik onura ateratzerik, hots-egokitasun arauen bitartez baizik.

Behin ageriko antzekotasunek bide zuzena erakutsi eta gero, maiz xehetasun *bakanen* batek berrespena eskaintzen du. Adierazgarria da, adibidez, *un*, *une*-n maskulino-femenino bereizketa egotea, eta gainerako zenbakietan ez.

Hortaz, frantses, italiara eta gaztelaniazko zenbaki izenek jatorrizko tradizio bakar batera jotzen dutela erabaki beharrean gaude. Honelakoetan, esperientziak erakusten digu bi tradizio mota egon daitezkeela: kontuan hartu ditugun hiru taldeak jatorri bakar batetik etor litezke, edo hiruretatik biren formak hirugarrenetik mailegatuak izan. Adibide honetan bigarren hipotesia baztertu behar dugu, zeren hiru hizkuntza horien artean ez baitago baten formak beste baten formen bidez azaltzerik. Fr. *huit* ezin da it. *otto*-tik edo gazt. *ocho*-tik etorri, ez it. *otto* fr. *huit* edo gazt. *ocho*-tik, ezta gazt. *ocho* fr. *huit* edo it. *otto*-tik ere. Honela, frantses, italiara eta gaztelaniazko zenbaki izenek abiapuntu komun bat badutela, ez frantses, ez italiara, ez gaztelaniazkoa dena, frogaturik dago.

Aukeratu dugun adibidean kidesunak hain ugari, hain erabatekoak, eta egokitasun arauak hain ezaguterrazak dira, non ez-aditua bera ere behingoan txundituta uzteko gauza baitira; ez dago hizkuntzalari izan beharrik beren frogatasuna somatzeko. Kidesunak ilunago dira eta egokitasun arauak finkagaitzago, baldin denbora eta leku tarte handiek bereizitako hizkuntzak arakutzen baditugu, sanskritoa, antzinako greziera atikoa, latina eta armeniera klasikoa bezala:

	Sanskritoa	Greziera atikera	Latina	Armeniera
«bat»	<i>ékaḥ, éka, ékam</i>	ἕξ, μία, ἓν [hḗs], [mía], [hén]	<i>ūnus, ūna, ūnum</i>	<i>mi</i>

[hiru forma daudenean, lehena maskulinoa da, bigarrena femeninoa, hirugarrena neutroa; armenierak ez du gramatikazko genero bereizkuntzarik.]

	Sanskritoa	Greziara	Latina	Armeniera
«bi»	<i>d(u)vá</i>	δύω [dýo]	<i>duo</i>	<i>erku</i>

[hemen ez dira forma maskulinoak baizik ematen, generoa bereizten dutenetan; berdin «hiru» eta «lau»-n ere.]

	Sansk.	Greziara	Latina	Armeniera
«hiru»	<i>tráyah</i>	τρῆς [trēs]	<i>trēs</i>	<i>erek^c</i>
«lau»	<i>catvārah</i>	τέτταρες [téttares]	<i>quattuor</i>	<i>čork^c</i>
«bost»	<i>pāñca</i>	πέντε [pénte]	<i>quinque</i>	<i>hing</i>
«sei»	<i>ṣaṭ</i>	ἕξ [heks]	<i>sex</i>	<i>veç</i>
«zazpi»	<i>saptá</i>	ἑπτὰ [heptá]	<i>septem</i>	<i>ewfⁿ</i>
«zortzi»	<i>aṣṭá</i>	ὀκτώ [októ]	<i>octo</i>	<i>uⁿ</i>
«bederatzi»	<i>náva</i>	ἐννέα [ennéa]	<i>nouem</i>	<i>inn</i>
«hamar»	<i>dáśa</i>	δέκα [déka]	<i>decem</i>	<i>tasn</i>

«Bat» zenbakia alde batera utzita, grezieraren, latinaren eta are sanskritoaren arteko egokitasunak neurri handi batean agerian daude; bestela gertatzen da, ordea, armeniera eta beste hizkuntzen artean.

Alabaina, armenieraren gertakariak arretaz aztertzea aski da kidetasunen frogatasuna nabarmen gera dadin.

Esaterako, arm. *erku*-k «bi» ez du antzik lat. *duo*, etabarrekin; baina beste egokitasun zenbaitek *erk*- beste hizkuntza batzuetako **dw*-ri dagokiokela erakusten dute; izan ere, grezierak «beldur izan» ideia adierazteko *dwi*- [δFɪ-] erroa daukan bitartean, armenierak *erki*- (*erkiwt* «beldurra») dauka, eta grezierak «denbora luzez» esateko δηρόν [dwārón] adjektibo zaharra daukan bitartean, armenierak *erkar* «luze» (ik. beherago, 39. or. Kidetasuna egokitasun arau orokor batez azal daiteke: antzinako *dw* batek arm. *erk*- eman du).

Hitz elkartuen lehendabiziko osagaian grezierak *dwi*- du, eta armenierak *erki*-. Badago, beraz, zalantza gabeko kidetasun bakan multzo bat (ik. beherago, 101. or.).

Armenierazko *erek^c* eta *çork^c* formak gr. τρεῖς [trēs], τέτταρες [téttares]-tik urrun daude; hala ere, neurri batean behintzat, antzeko egokitasunez azal daitezke. Eta gainera, badago xehetasun adierazgarri bat: sanskritoz eta grezieraz «hiru»-k eta «lau»-k ohiko tankerako kasu formak dituzte, eta zenbakiak «bost»-etik aurrera aldagabeak dira; izan ere, armenieraz «hiru» eta «lau»-k ohiko kasu formak dituzte eta, zehazkiago, bukaerazko *-k^c* armenierazko nominatibo pluralaren marka da, gainerako zenbakietan aurkitzen ez dena.

Lehenengo begi-kolpean frantsesa, italiera eta gaztelaniaren artekoak baino somagaitzagoak, sanskrito, greziera, latin eta armenierazko zenbaki formen kidetasunak ez dira azken batean egitasun gutxiagokoak, ikusi bezala.

Hizkuntza batetik besterako maileguz azaldu ezin daitezkeen kide-tasun hauek, etorki komuna salatzen dute. Baina oraindik sistematikoki interpretatu beharra dute: horixe da hizkuntzalaritza historiko konparatzailearen xedea.

Beharbada oinarria ikusi berri diogun prozedurak zaila dirudi, erabilgaitza. Haatik, ez dago besterik hizkuntzen historia egiteko.

Zeren hizkuntzen historia sekula ez da ordena kronologikoan ezarritako testu sail baten bidez egiten. Testu zaharrak, hizkuntz egoera zenbait aztertzeko bakarrik erabiltzen ditu hizkuntzalariak. Esan gabe doa antzinako hizkuntzetan ezin daitezkeela gertakariak aztertu testuen laguntzaz ez bada. Idatzietan eta haietan bakarrik aztertzen ditugu atikoa edo gotikoa, armeniera klasikoa edo eslaviara zaharra. Kritikoki interpretatuak, idatzi hauetatik etekin handia ateratzen, eta sarritan antzinako hizkuntz egoera zenbaitez irudi zehatza lor dezakegu. Baina azterketa honekin lor daitekeen gauza bakarra, une batean, baldintza batzuetan, hizkuntza baten egoera zehaztea da. Testuen ikerketa, ezinezko bilakatu den azterketa zuzenaren ordezkoa besterik ez da.

Onik onenean ere, hizkuntza idatzia urrun xamar dago ahozko hizkuntzaren hurrenez hurrengo aldaketen kontu zehatza ematetik. Sarri hizkuntza idatzia finkatuta dago, eta aurkezten duen itxura ez da men-dez mende ia aldatzen. Erabat finkatuta ez dagoenean ere, idatziz eskuarki lehenagoko formak, jadanik ezezagunak, nagusi dira neurri handi batean.

Har dezagun latinaren adibide klasikoa. Plautorengan aurkitzen dugun hizkuntza idatziaren eta San Agustinengan aurkitzen dugunaren ar-

tean badira xehetasunetan ezberdintasun zenbait; baina grafia ez da aldatu ia; forma gramatikalak eta hiztegiak gehiena oraindik berberak dira. Filologoek neke handiak hartu dituzte histori garaiko latinean aro ezberdinen artean bereizkuntzaren bat aurkitzeko. Azterketa hauei gramatikari batek jarriko lukeen zehaztasun nahi guztia eskaini diete. Eta ezberdintasun ñimiño zenbait nabaritu dituzte, nabaritu ere; baina, neurri oso handi batean, ezberdintasunok literatur generoen arabera dira: Plautoren komedia, herriari zuzendua, ezin daiteke Zizeronen hiztaldiekin ezta Zesar garbizalearen txostenekin pareka. Poesia helenizantearen hizkuntza ez da prosarena. Badira idazle batetik besterako ezberdintasunak ere. Halere, funtsean, ez da latin bat baino idatzi beti eta eskolan irakatsi.

Horrezaz gain, konparaketa da testu idatziek eskaintzen dituzten formen artean hizkuntzaren geroko historiarako balioren bat zeinek duten erakusten duen gauza bakarra. «Belarria» izendatzeko, latinezko testu idatzietan *auris* aurkitzen da, eta baita honen eratorria den *auricula* ere. Latinezko testu zaharretan ez zuen ezerk adierazten bietatik zein nagusituko zen; *auris* orduko forma arrunta da. Bada, izan ere, *auricula*-ren gainean eratu dira erromantzeetako formak: fr. *oreille*, it. *orecchia*, gazt. *oreja*. Frantses, italiara, gaztelania, etabarren konparaketa da hizkuntza erromantzeek oinarri gisa erabili duten formaren berri ematen duen bakarra.

Bestalde, iraun duen hizkuntza eta idazten zena ez dira bat. Idazleen testuen bitartez gorde den literatur latinaren eta hizkuntza erromanikoek jarraitzen duten ahozko latinaren artean ezberdintasunak zeuden, gehiago edo gutxiago pertsonen eta haien kultur mailaren arabera. Hizkuntza erromanikoak, beraz, ez dira literatur latinaren ondorengo. «Ahoa»-ri latin idatzian *os* esaten zitzaion; baina *bucca* izen arrunta izan da gorde dena. Eta honelaxe anitzetan.

Garai ezberdinetako testuek hurrenez hurrengo hizkuntz egoerak eskaintzen dituztenean ere, ez da jarraipenik ikusten. Latin zaharraren ereditik erromantze eredurako iraganbidea eratu duten aldaketa oinarrikoenak latin idatzitik hizkuntza erromantzeen lehendabiziko agiri-tara bitartean gertatu dira. Zalantzarik gabe, K.o. III eta X. mendeen artean latinez idatzi zutenei, latin zaharrean zuzenak ez ziren eta berek hitz egiten zuten hizkuntza jadanik zeharo ezberdinari zor zizkioten forma asko itzuri zitzaizkien; baina hizkuntza erromantzeak ezagutuko

ez bagenitu, ez genuke *lapsus* hauen balioa neurtu ahalko, ezta bertan lekukotasun linguistikorik antzeman. Inperio garaiazen ondotik garai karolingiora arte, usadio klasikoaren kontrako hutsak itzurtzen uzteko adina gutxi eskolatuak ziren jendeek idatzitako latinezko testuek zehaztasunak, bereziki gertakarien kronologian, eskaintzen dizkiote hizkuntza erromantzeen gramatika konparatuari; haatik, aurtikitzen dituzten argi-izpiak ezinago baliotsu badira, konparaketa argitzeko balio duten heinean da soilik; konparaketa egiterik ez balego, alferrikakoak lirateke. Baldin hizkuntza erromantzeak hil izan balira idatziak izan baino lehen, latin klasikoa usteltzen ari zela nabarituko litzateke; baina ezinezkoa izango litzateke teoria zehatz eta osorik egin gertatutako aldaketek buruz. Aldaketa linguistikoetan funtsezko den guztia gure ikusmenetik kanpo gertatu da.

Persieraren historiak oraindik adibide nabarmenago bat eskaintzen du. Darioren eta Xerxeren garaiko persiera errege hauen oroitarrietako idatziei esker ezagutzen dugu —oso zatika baino ez, egia esan—. Gero ez dago lekukotasunik K.a. v. mendetik K.o. III. mendera arte. Orduan pehleviera aurkitzen dugu.

Baina, hasteko, pehleviera hau ez da, oraintsu arte sinistu izan den bezala, errege akemenarren inskripzioetan jasotako hizkuntzaren ondorengo: nik neuk ohartu eta Tedesco jaunak era zehatz eta osoago batean erakutsi duen bezala, garai sasandarraren testuetako pehlevierak, literatur persieraren aitzinekoak, persiera akemenarretik bereizten duten ezaugarri batzuk aurkezten ditu. Beraz, ezin esan daiteke hizkuntzalariak hemen hizkuntza bakar baten tradizioa duenik; oso hurbil dauden, baina ezberdinak diren ereduak bi hizkera, data ezberdinetan, ditu begipean.

Bigarrenik, persiera akemenarra eta pehleviera sasandarraren artean bada garapen ezberdintasun bat, latin zaharra eta erromantzea bereizten dituen bezain handia. Data bien artean hizkuntzak izaera aldatu du. Latinaren eremuan bezala, aldaketarik funtsezkoenak historialariaren ikusmenetik kanpo gertatu dira. Hizkuntzalariak bi hizkuntz egoera biziki ezberdin ditu; historia egiteko, bien artekoa berreraiki behar du. Dialekto irandar moderno ezberdinen arteko konparaketak berreraiketa hau egiten laguntzen du; baina honek ez du norabidea baizik eskaintzen, ez lekukotasun positiborik.

Orokorki, beraz, ez dago hizkuntzen historia egiterik hizkuntz egoerak konparatuaz baizik. Zeren beren garaian hitz egiten zen hizkuntza-

ren usadioari zehaztasun gehiago edo gutxiagorekin atxikita (eta hone-lakorik bakanki baino ez dugu aurkitzen) idatzi dutenen testuen hurren-kerak eskaintzen dituen gertakariak, ia beti hala-holako garrantzikoak baitira, gehienetan garrantzigabekoak, inork jaso ez dituen gertakari handien aldean. Iraganaldiko hizkuntz egoerak zehazteko, hizkuntzalariak filologiarik zehatzenaz, zorrotzenaz baliatu beharra dauka: zehaztasun filologikoan egindako aurrerapen bakoitzak hizkuntzalariari beste aurrerapausu bat egiteko aukera eskaintzen dio. Bakoitzean, zorionez, estuago egiten ari diren filologoek eta konparatzaileen arteko harremanak, beharrezkoak dira hizkuntzalariak gertakari guztiak, gertakari zalantzagabeak eta zehaztasunik handienaz aztertutakoak erabili ahal ditzan. Baina, berez, filologiak ez dio hizkuntz historiari ez eta hastapena ere eskaintzen.

Hizkuntzen historia egiteko hizkuntzalariak eskura duen tresna eraginkor bakarra konparaketa da. Aldaketen ondorioak aztertzen ditugu, ez aldaketak eurak. Beraz, parekazioen laguntzaz soilik jarraitzen dugu —eta jarrai dezakegu— hizkuntzen bilakaera.

Baina parekazio hauek, ikusiko dugun bezala, zorrotzak eta zehatzak dira. Guztiek, hizkuntza ezberdinen artean emandako kidetasun zenbait gizon guztiek batera dituzten ezaugarriez azaldu ezin direla eta tradizio berezi baten hipotesia eskatzen dutela baieztatzean dute oinarri.

Hau da metodo konparatzailearen funtsa. Parekazio baten frogatasuna aintzat hartzeko, ez da sekula frogaren ezaugarri hau —bere zorrotasun beharra, alegia— begi-bistatik galdu behar.

II.

Hizkuntza komunak

Metodo konparatzailea hizkuntzen historia egiteko metodo bakarra denez gero, hizkuntza bat bakartuta dagoen bitartean historia gabekoa da. XVI. mendeko euskara eta gaur egungoaren artean ezberdintasunak egon badaude; baina aldaketak ez dira oinarrizkoak; funtsean, hizkuntza oraindik bat bera da. Hortaz, euskara beste hizkuntzaren batekin parekatzeko modurik aurkituko ez balitz, ez legoke haren historia sekula egiteko inolako itzaropenik³. Berriz, euskara Mediterraneoaren inguruneke hizkuntz talde handi batekin, eta bereziki hizkuntza kaukasikoekin, parekatzeko egindako saioak —Marr eta Ostir-ek, batetik, eta bes-tetik Trombetti-k eginak— arrakastarekin burutuko balira, euskara, bere bakardadetik atereaz, historian sartuko litzateke⁴.

³ Konparatzaileek beti pentsatu izan dute edozein hizkuntzaren historia familia barruko konparaketan egin daitekeela, honek ematen baitio hizkuntzak jasan duen eboluzioari bere zentzua. Garbi dago, baina, «historia» hitza zentzu zabalegian erabiltzen dutela, aurrehistoria guztia bereganatuz. Zentzu hertsia batean hizkuntza baten historia, edozein erakunderen historia bezalaxe, hizkuntza horretan idatzi diren testuak eta izkribuak aztertuz besterik ezin da egin. Beraz batere problemarik gabe egin daiteke euskararen historia XVI. mendetik hasi eta gaurko egun arte euskaraz idatzi diren testuak aztertuz. Kontua da hizkuntz familia batekoak aurrehistoria aberatsa izan dezakeela, familiakoek eman diezaioketen neurrikoa, umezurtz aurkitzen denak sekula ere lor ez dezakeena, ik. K. MITXELENA, *Lenguas y Protolenguas* [ASJU, Gehigarriak 20], Donostia 1990 (arg. oh.).

⁴ Aipu honetan ikus daiteke Kaukasoko hizkuntzen eta euskararen arteko ustezko lotura jadanik ezaguna zela hizkuntzalarien munduan XX. mendearen bigarren hamar-

Gaur egunean behar bezala mugatu eta ikertutako talde guztietan, parekazioa egiteko bidea hasierako «hizkuntza komun» bat (*Ursprache*, alemanez) postulatzeari da. Zatikako parekazioak ezartzea ez du balio: hizkuntz gertakari bakoitzak bere lekua du den guztia elkarrekin estuki erlazionatuta dagoen multzo batean. Ez da gertakari bakan bat beste gertakari bakan batekin parekatu behar, hizkuntz sistema bat beste sistema batekin baizik. Zalantzarik gabe, prozedura konparatzaileen bidez ezin daiteke beti hizkuntza bat osorik berreraiki; halaber, ezin dugu *a priori* baieztatu kasu guztietan jatorrizko hizkuntza bakar bat berreraikitzea beharrezkoa izango denik; hizkuntza «misto» arazoa beranduago ikusiko dugu. Alabaina, arrakastarekin burutzen den guztietan, konparaketak jatorrizko hizkuntza bat berreraikitza darama.

Nolako balioa du berreraiketa honek? Berreraiketa ezin da ia inoiz errealitate ezagun batekin erkatu. Baina kasu batean bai: hizkuntza erromantzeetan, alegia. Haatik, hizkuntza erromantzeen konparaketaren bidez erdiesten den hizkuntza komunak [h.d. protoerromantzeak] ez du erakusten —ez eta hurrik eman ere— latinaren ondorengo hizkuntzak elkarrengandik bereizi ziren unean latina nolakoa zen bere osotasunean. Latinari buruz erromantzeek erakusten dutena baizik ez bagenek, ez genituzke ezagutuko, esaterako, *amabo* erako geroaldi zaharra edo *dicam*, *dices* erakoa. Eta batik bat, deus ere ez genekike deklinabideari buruz: XIII. mendera arte hizkera galo-erromanikoek, maskulinoan, subjektu-kasua eta objektu-kasua bereizten zituzten; gainerako erromantzeek ezta hau ere. XIII. mendearen bukaeratik aurrera, leku guztietan izen erromantzea aldaezina da, numero bakoitzeko. Halaz ere, deklinabidea bizirik zegoen Inperio erromatarra zatikatu zen garaian eta bere zeregin oraindik handia zen. Alde askotatik konparaketak lekukotutako errealitatearekin bat datozen ondorioak eskaintzen baditu ere —aditz sistemaren kasuan, adibidez—, urrun dago hizkuntza zen-zena eskaintzetik.

kadan. Meillet-ek ez du ezezko biribila ematen, saio gehiagoren zain gelditzen da proposatutako parekazioak onartu baino lehen. Bigarren gerraren ostean R. Lafon aritu zen batik bat georgiera eta euskararen arteko senitartekotasuna frogatzen, baina ekarpen gutiko ondorioak izan zituzten. Ik. Lafonen eta beste askoren proposamenei buruz K. MITXELENAK *Le Langage* libururako idatzi zuen «L'euskaro kaukasien»: A. MARTINET (zuz.), *Le Langage*. Paris 1968, 1414-1437 [orain Luis MICHELENA, *Lengua e Historia*. Madril 1985, 458-475] (arg. oh.).

Hondakin batzuk, antzinako forma ezagutzen duenarentzat jakingarriak, ulertezinak lirateke konparaketa bakarrik erabil lezakeen hizkuntzalariarentzat: latinezko akusatiboa *-m* hondarkiak bereizten zuela jakinda, eta honela soilik, jo daiteke fr. *rien*-eko sudurkaria akusatibo zaharraren arrastotzat; baina konparaketa bakarrik erabiliko lukeen erromanistak ez luke lat. *rem* bezalako akusatiborik ezagutzeko biderik. «Berreraiketak», beraz, «hizkuntza komun»-aren zatikako irudi bat eskaintzen du, eta gehienetan, zalantzarik gabe, oso zatikakoa.

Izan ere, «hizkuntza komun» baten ondorengo hizkuntzak ez dira mugatzen antzinako ezaugarri zenbait gordetzera. Denbora luzean berrikuntza berak edo antzekoak izateko joera dute, halako moldez non «hizkuntza komun»-aren zati batzuk erabat desagertzen baitira, arrastorik utzi gabe edo, uztekotan ere, «hizkuntza komuna» egiatan ezagutu gabe ezin antzeman daitezkeen horietakoak bakarrik.

Erromantze guztietan izen deklinabidea, latin zaharraren funtsezko osagaia zena, goiz-goizetik ezabatu da. Hizkuntza bakoitzak bere erara egin du ezabaketa; hizkera galo-erromanikoak lekuko ditugu, zeren eta, subjektu-kasua eta objektu-kasuaren arteko oposaketaren itxuraz deklinabide arrasto bat gorde ondoren, hauek ere beren aldetik hondakin hau galdu baitute XIII. mendearen bukaeratik aurrera.

Erromantze guztietan akusatibo zaharraren bukaerako sudurkaria galdu egin da: frantsesak ez du *terram* edo *regem*-en bukaerako sudurkariaren arrastorik *terre*, *roi* formetan. Sudurkari hau ez da fr. *rien* eman duen *rem* monosilabo azentudunean baizik gorde.

Baina, berrikuntza paraleloek, garrantzitsu eta ugari izanik, konparatzaileen berreraiketa osoa izatetik asko urruntzen badute ere, berreraiketeta, funtsean, zuzena da. Adibidez, latinezko ortografia klasikoan bukaerako *-m* markatzeari zioten atxikimenduak ez du errealitatearen benetako irudirik ematen. Bukaerako sudurkari hau ahulki ahoskatzen zen. Latinik zaharrenean, grafiak sarritan ez zuen haren berri ematen. Poetentzat, bukaerako *-m* batek ez du bokal aurreko elisioa eragozten: latinezko prosodian, bokal aurrean *terram*-eko *-am terra*-ko *-a* bezalaxe eliditzen da. Hizkuntza erromantzeetako *-m* ezak latinean sudurkari honek zeukan ahultasuna, latinaren grafia klasikoak estaltzen zuena, erakusten du.

Horrezaz gain, hizkuntza erromantzeak ikertzeko asmoa duenarentzat, betirako desagertu diren latinaren ezaugarriek axola gutxi dute. Be-

rari, latinak hartutako forma berriak eratzeko balio izan duena baliatzen zaio. Berreraiketak ez du benetako latina, mintzatzen zen bezala, eskaintzen; eta ez dago «hizkuntza komuna» mintzatzen zen bezala eskain dezakeen berreraiketarik. Sekulako burutazioa izan da Schleicher-ena, historikoki lekukotutako familiako hizkuntzen laguntzaz indoeuopera berreraikitzea; baina oker handia egin du berreraikitako hizkuntza honez testu bat onduaz⁵. Konparaketak hizkuntz familia baten historiari oinarri eman diezaiokeen parekazio sistema bat eskaintzen du; ez benetako hizkuntzarik, ordea, halakoak eskatzen dituen adierazpide guztiekin.

Konparaketaz berreraikitako jatorrizko «hizkuntza komun»-aren eta benetan lekukotutako hizkuntzaren artean, bitarteko «hizkuntza komun» bat, edo gehiago, tarteka daiteke. Esaterako, indoeuopera eta erromantzeen artean «hizkuntza komun» handi bat jartzen da, «erromantze komuna», «latin arrunta» deitu ohi den hura. Halaber, indoeuoperaren eta, batetik, gotiko, goi-alemaniera zaharra eta ingeles zaharra, bestetik norvegiera zaharraren artean, bada «hizkuntza komun» bat, «germaniko komuna», benetan lekukotu gabeko hizkuntza, baina berrikuntza sistematiko multzo batek izan zela susmarazten diguna. Honelako mailakatzeek asko errazten dute azalpena.

Frantses, italiera, gaztelania, portugés eta errumanieraren gertakariak azaltzeko, erromanistek indoeuopera komuneraino jo beharra izango balute eta ez baleukate «erromantze komun» mailarik, gertakarien azalpena zeharo zatikakoa izango litzateke, are ezinezkoa gehienetan.

Antzeko mailarik ez dugunean, zailtasun handiak aurkitzen ditugu. Halaxe gertatzen zaie erromanistei hizkera galo-erromaniko edo italiannoetan. Ez da hor «galo-erromantze komun»-ik, ezta «italiera komun»-ik ere. Beraz, geratzen den bide bakarra hizkera galo-erromantze edo italiano bakoitza erromantze komunarekin konparatzea da, bitartekorik gabe. Honek ez du esan nahi Ipar Frantziako hizkerek, esaterako, ez dutela beren artean Parisko hizkeraren gainean oinarritutako literatur frantsesean ere aurki daitezkeen funtsezko ezaugarri komun asko. Alabaina,

⁵ A. Schleicher izan zen indoeuropeisten artean berreraiketaren premia ikusi zuen aurrenekoa: banakako formak berreraikiaz gain, testu oso bat ere —ardi eta zaldien arteko alegia, hain zuzen— indoeuoperaz asmatu zuen, geroztik ospetsua bezain kritikatuia izan dena (arg. oh.).

hizkera erromantzeen bereizketa garaiaren ondotik bakoitzak bere historia du. Hizkera galo-erromantze eta italianoek arduratzen diren erromanistak behartuta daude, hizkera bakoitzeko, aztertutako hizkeraren ereduaren historia osoa berregitera, edo bestela hein batean arbitrarioak diren bakuntzeak egitera. Zailtasun hau bazterrera uzteko saio zenbait egin dira, bereziki Oscar Bloch-ena Vosgesko lurralde bateko (Remiremont-eko) hizkerari buruz. Arazoa gainditzeko edozein asmakari erabilita ere, ezin daiteke erabat saihestu.

Bitarteko hizkuntza komunak ditugunean, gertakarien azalpena asko errazten da. Baina beti ezin dakieke probetxurik atera. Adibidez, ezaguna da indoeuropera eta latinaren artean, bi elkartasun garai egon direla: garai italo-zeltikoa eta garai italikoa («italikoa»-k latina eta osko-unbroa eman ditu). Baina elkartasun garai italo-zeltikoak⁶ ezer gutxian laguntzen digu, zeren eta laburregia izan baitzen berrikuntza ugari eta sakonik ekartzeko. Eta elkartasun garai italikoak ez askoz gehiago, osko-unbroa oso zatika baino ez baita ezagutzen.

Hizkuntza bakoitzean jatorrizko «hizkuntza komun»-aren berreraiketaren arazoa era berezian aurkezten da. Bakoitzean agertzen diren gertakari berezietatik probetxu atera beharra dago.

«Hizkuntza komuna»-k zibilizazio komuna dakar berekin. Zeren, izan ere, ez dago hizkuntza komunik, lehenago erabiltzen ez zen lurraldeetara hizkera bat hedatzen denean baizik. Menperatzaileek edo kolonoek ekarritako hizkuntza komun hau bertako antzinako herritarrek sekula ez onartzea gerta daiteke, eta hauek alde egitea edo desagertzea: hau da gutxi gorabehera Ipar Amerikako ingelesaren kasua. Halaber, hizkuntza berria dakarten gizonak herritarrekin gurutzatzea gerta daiteke eta, inbaditzaileen kopuru ñimiñoa gorabehera, herritarrek hizkuntza berria onartzea: hau da Erdialdeko eta Hego Ameriketako alderdi batzuetako gaztelania edo portugesesaren kasua. Oro har, hizkuntza bat ez da hedatzen itzal handiko zibilizazio baten adierazpidea

⁶ Italo-zeltikoa ez da orain onartzen, neurri handi batean Meilletek berak aipatzen duen bezala eman lezakeen laguntza hutsa delako, eta bestetik kritika sakon eta arrazoizkoak jaso dituelako, Marstranderekin egin zituenetik hasi eta orain arte. Gai honi buruz, ik. K. H. SCHMIDT, «Latín y celta: parentesco lingüístico y relaciones areales», *Veleia* 8-9, 1991-92, 271-290. (arg. oh.).

ez bada. Batzuetan, hizkuntzaren zabalkundea zibilizazioaren itzalari zor zaio erabat: *koinè* joniko-atikoa gainerako hizkera grekoei gailendu zitzairen, hain zuzen bera zelako zibilizazio helenikoaren adierazpide nagusia.

Latina Inperio erromatarraren mendebal guztian onartua izateko arrazoa, Erromak menperatutako herriena baino zibilizazio nagusiago bat berekin ekartzea izan zen. Inperioaren ekialdean, grekoa zibilizazio zaharrago eta, ikuspuntu intelektual batetik gutxienez, nagusiago baten irizgarria zen alderdi hartan, latina ez zen garaile atera. Galian, konkistaren ondoren handikiak latina ikasten abiatu eta jadanik Inperio garaia- ren hasieretatik erabat latinezko kulturadunak ziren. Galoa ez zen horregatik desagertu, ordea; herriak oraindik denbora luzean gorde zuen. Duela gutxi aztertutako Hego Frantziako buztinola galiar bateko langileek oraindik galoa erabiltzen zuten⁷; erabiltzen zuten gramatika galoa zen; zenbaki izenak galoak ziren; baina zibilizazioari zegokion guztia ez zen jadanik galoa: giza-izenak ez dira galoak; egindako ontzien izenak are gutxiago (ikus honi buruz J. Vendryes-en oharra, *Bulletin de la Société de linguistique*, XXV, 39. or. t. hur.)⁸. Zibilizazio nagusiago baten itzala da herri bat hizkuntzaz aldatzera bultzatzen duena.

Nagusitasun hau ez da nahitaez materiala. Garai eta leku jakin baten beharrei bereziki ongi egokitutako gizarte-antolamendu bat ere izan daiteke. «Indoeuopera komuna»-z hitz egiten zuen herriak auzoek baino kultura material jasoagorik zuenik uste izateko arrazoirik ez dago, nekazaritzan edo metalgintzan, adibidez, aurreratuago zegoenik. Hizkuntza indoeuropardun antzinako herrien ezaugarria, gizarte-antolamendua ulertzeko modua eta bere handikien ekimen-gaitasuna da, izan ere. Antolamendu honek ez zuen botere nagusirik onartzen. Famili burua bere familia handiaren buruzagia zen. Tribu burua ez zen inoren menpeko. Gehienaz ere behin-behineko elkarte aldakorrek egiten zituzten. Hizkuntza indoeuropardun antzinako herriak beti autonomo diren

⁷ La Graufesenque-n agertu ziren grafitoak ditu Meilletek hemen buruan. Ik. orain R. MARICHAL, *Les graffites de la Graufesenque*, Paris 1988 [Supplément à Gallia 47] (arg. oh.).

⁸ Artikulu honen izena ondoko hau da: «Remarques sur les graffites de La Graufesenque», *BSL* 25, 1924, 34-43 (arg. oh.).

tribuen eta *pater familias* batek gobernatzen dituen familien itxuraz agertzen zaizkigu non-nahi den. Hiri greko bakoitza bere buruaren jabe den estatu txiki bat da, tribu galo edo germaniko bakoitza bezalaxe. Buruzagi batek gizon ausart zenbait bere inguruan batzeko gai dela uste duen bezain laster, bere burujabetasun osoan aritzeko aukera eman die-zaiokeen edozein tokitara abiatzen da. Aintzinako greziarrek egin zuten Mediterraneoaren hegien kolonizazioa, hala nola vikingoen Islandia, Ingalaterra, Normandia eta Siziliarainokoa —S. Bugge-k⁹, errealitateaz duen intuizio zorrotzarekin, jadanik parekatu ditu bi mugimenduok— burujabetasun eta abentura izpiritu honen adibide ospetsuak dira. Beraz, luzaro beren batasunaren zentzua gorde bide duten eta, mundu indoeuroparraren batasun orokorra hautsita ere, taiu bereko herriak, beren batasuna zutenak, eratu dituzten herri txiki batzuek osatzen zuten herri indoeuroparra. Adibidez, *arya*- jatorrizko izena duen talde indo-iraniarra Asian zehar asko hedatu zen: Kapadozian aurkitzen ditugu K. a. XIII. mendean, eta asirio-babiloniarrek Median jarri ziren haiekin harremanetan. Herri «arioa» asko barneratu zen goi-ordoki iraniarrean barna, Indian, Itsaso Beltzaren hegoaldeko hegi guztian eta Ekialdean Txinaren mugetaraino, non, Harresi Handitik hurbil, Kristau-aroaren hasierako testu sogdiar batzuk¹⁰ aurkitu izan baitira.

Honela sakabanatuta eta Asiako buru batetik Europako beste burura beren gizarte-antolamendu eredu eta beren hizkuntza eramanda, hizkuntza indoeuropardun herriek antzinako herri-batasun eta hizkuntzbatasunaren zentzua galdu zuten. Menperatutako eremu bakoitzean eratu diren talde berriek ere beren aldetik batasuna galdu dute. Mundu arioa, mundu germanikoa edota mundu zeltikoa, mundu indoeuroparra zatitu zen bezalaxe zatitu ziren. Honela iritsi gara oraingo mundura, non ia estatu bakoitzak bere «hizkuntza komuna» duen, eta non hizkuntza

⁹ Elseus Sophus Bugge (Larvik 1833 - Oslo 1907) norvegiar filologoak antzinako runen desziframendurako lagungarri izan ziren lanez gain norvegiar herri literaturari buruzko estudioak argitaratu zituen (arg. oh.).

¹⁰ Sogdiera hizkuntza iraniarra, XX. mendean aurkikuntza arkeologikoen bitartez ezagutu egin dena, oso hedatua izan zen erdi aroan Asian zehar, Mongolia, Txina eta Tibet-eko mugetaraino. Aurkikuntza hauetako batzuk Txinako Turkestanen, Xinjiang-en, egin dira. Gaur egun ez du ia bizirik irauten, Samarkanda inguruko yaghnōbi izeneko hizkuntza txikian ez bada (arg. oh.).

komun honek tokian tokiko hizkerak ezabatzeko joera duen. Hau egoera zeharo berri bat da, eta luzaroan nekez iraun dezakeena: zibilizazio material eta intelektualaren aldetik funtsean batasuna dagoen garai honetan, gaur egungo Europako «hizkuntza komun»-en ugaritasuna ez da normala.

Iraganaldiko «hizkuntza komun» bakoitzak zibilizazio eredu baten adierazpide bide da. Honegatik, hain zuzen, badirudi munduko hizkuntza gehienek hizkuntza komun kopuru urri batera jotzen dutela. Gramatika konparatu guztiak osatzen ez diren bitartean, ezingo da deus ere zeharo baieztatu. Baina, dagoeneko, Afrika Beltzeko hizkuntza guztiak jatorrizko hizkuntza batetik sortuak direlako susmo sendoa dugu¹¹. Hizkuntz eremuak eta zibilizazio eremuak erlazio zehatz, jarraiki eta erregular batez lotzea arriskutsua izan daiteke. Baina erlaziorik izan, bada. Eta etorkizunean hauxe izango da giza-zientzien eginkizunetarik bat, alegia, hizkuntza komunak zibilizazio eremuekin birlotzea. Dagoeneko badugu kidesun bereziren bat somatzen.

¹¹ Afrikako parte horretan egiten diren ehunka hizkuntzek nigerokongoar familia osatzen dute (arg. oh.).

III.

Erabilitako frogak

Antzinako hizkuntza komun bat bazela erabakitzeo, konparatutako hizkuntzetan haren ezaugarriak berraurkitu behar dira, mantendu diren heinean. Beraz, hizkuntzaren osagarri ezberdinek nola jokatzen duten ikertu behar da; zeren ez baitira neurri berean ezta gisa berean gordetzen. Edozein hizkuntzak hiru sistema ditu bere barnean, elkarren artean nolabait lotuta daudenak, baina neurri handi batean bakoitza bere aldetik alda daitezkeenak: morfologia, fonetika eta hiztegia.

Morfologia, hau da, esaldiak eratzeko hitzak aldatu edo biltzeko prozedura multzoa, aldagaitzena da hizkuntzan. Alabaina, prozedura orokorren eta forma xehetasunen artean bereizi beharra dago.

Oro har, morfologi eredu ezberdinak gutxi dira. Ezberdintasunik handiena honetan datza: hizkuntza batzuetan hitzen eta hitzen erabilera ezberdinen arteko erlazioak hitzak eurak eragiten dituzten forma bereziek adierazten dituzte, beste hizkuntza batzuetan erlazioak eta erabilerak gehigarriez, partikulez edo hitz lagungarriez, eta hitzen ordenaz adierazten diren bitartean. Lehendabiziko hizkuntzetan, joko delakoa dago. Nolanahi ere, bereizkuntza hau ez da erabatekoa; aitzitik, prozedura ezberdinen artean badira neurri ezberdineko nahasteak.

Nahiz eta sarri eredu baten erabilera luzaroan gorde ohi den eta, ereduak oro har galtzeko joera izanik ere, arrastoak utzi ohi dituen, eredu orokor hauek nekez erabil daitezke «hizkuntz ahaidetasuna» frogatzeko asmoz. Zeren ereduak, denboraren poderioz, neurri handi edo txi-

kiago batean ezeztatzeko joera baitu sarri, hizkuntza indoeuroparren historiak erakusten duen bezala.

Indoeuopera komunak «jokodun» deitutako eredia muturreraino eramanda aurkezten zuen. Hitzen erabilera guztiak, hitzen arteko lotura guztiak hitz barneko formaren ezberdintasunez adierazten ziren. Sanskritoz, «indoeuopera komun»-aren ezaugarri hau bereziki ongi gorde duen hizkuntza izanik, «ni naiz» *ásmi* esaten da, «haiek dira» *sánti*, «hura izan da» *ása*, eta horrela gainerakoetan. Subjektua denean, «aita» hitzak *pitá* itxura du; osagarri zuzena denean, *pitáram* itxura; eta izenaren osagarria denean, *pitúh*. Ezberdintasunak sakonak dira, ikusten den bezala, hitz beraren formen artean; eta hain zuzen ezberdintasun hauen bitartez adierazten dira hitzen eginkizun guztiak. Familia indoeuroparraren hizkuntzek, baita garatueneke ere, antzinako eredu honen gauzaren bat gorde izan dute gaur arte; frantsesez, esaterako, izena aldaezin bilakatu da (pluraleko *-s* grafikoa baino ez da); hala ere, aditzak jokoa darabil oraindik neurri handi batean: *aime* «maite ezak» eta *aimez* «maite ezazue», *j'aimais* «maitatzen nuen» eta *nous aimions* «maitatzen genuen»-en arteko ezberdintasuna horren erakusgarri da, eta *je veux* «nahi dut», *nous voulons* «nahi dugu», *je voudrais* «nahiko nuke», *j'ai voulu* «nahi nuen», etabarren artekoa oraindik gehiago. Dena den, egungo frantsesaren egitura orokorretik indoeuoperak zeukanera alde izugarria dago. Eta ingelesarenetik areago oraindik. Hizkuntza erromantzeek, hizkuntza germaniko gehienek edota hizkuntza iraniarrek gaur egun ez dute «jokodun» izena benetan merezi. Are hizkuntza indoeuoparrik kontserbatzaileenek ere indoeuopera komunaz arras bestelakoa den ereduren bat edo beste dute. Egun mintzatzen diren hizkuntza indoeuroparren egiturak oso ezberdinak dira indoeuopera komunak zeukanetik, eta oraindik ezberdinago elkarren artean. Ondorioz, hizkuntza indoeuopar bat aintzakotzat hartzeko bidea ematen duena ez da haren egitura orokorra.

Hizkuntza «indoeuopar» komuna atzizkiz baliatzen zen, hots, esanahia adierazten duen hitz-zatiari eransten zaizkion osagarri gramatikalak atzean jarrita agertzen ziren beti. Esaterako, latinez, non erabilera hau ongi gorde baita, pluraleko nominatibo eta akusatiboko *-ēs* marka eta pluraleko genitiboko *-um* marka atzean jartzen zaizkio *patr-* enborrari: *patr-ēs* «aitak», *patr-um* «aiten». Frantsesak, ordea, aurrizkiz baliatzeko joera dauka. Latinak *amō*, *amās*, *amat* hitz bukaeraren bidez

bereizten zituen. Frantsesak *j'aime, tu aimes* (-s soilik grafikoarekin), *il aime, je, tu, il* osagarriez bereizten ditu; honelakoak gramatika tradizionalkak «izenordain»-tzat jotzen ditu, baina ez dute bakarrik agertzeko gaitasunik eta gaur egun aditzaren aurrean jarritako ikur gramatikal hutsak baino ez dira. Alde honetatik, beraz, frantsesaren eta indoeuropearren prozedurak zeharo ezberdinak dira.

Zenbait mendetan goitik behera alda daitezkeen eta bestalde aldaketa gutxi batzuk bakarrik ekartzen dituzten halako egiturazko ezaugarri orokorrekin ezin daiteke hizkuntz ahaidetasunik erabaki, beraz. Latina eta frantsesa konpara litzanak ez luke bi hizkuntzen prozeduren artean inolako ezaugarri komunik aurkituko: latinez *liber Petri* edo *Petri liber* (bi ordenak erabil daitezke) baitugu, hau da, hitzaren azken zatiko aldaketaz *Petrus* subjektua, *Petrum* osagarri zuzena, etabardun izenaren *Petri* formak adierazten du «Pedro» eta «liburu» arteko erlazioa; frantsesez, ordea, aurrean jarritako *de* partikulak eta *de Pierre*-ren kokalekuak adierazten dute izena eta haren osagarriaren arteko erlazioa.

Morfologiaren adierazpide prozedura bereziek, ordea, froga sendoak eskain ditzakete «hizkuntza komuna»-ren eta geroko hizkuntza baten arteko jarraitasuna erabakitzeko. Adibidez, usu bi izenen arteko menpekotasun erlazioa aurrean jarritako partikula batek adierazten du, fr. *de* bezala, edo atzean jarritako batek, ingl. *-s* bezala. Baina partikula hau *de* itxurakoa edo *-s* itxurakoa izatea adierazgarria da; zeren beste edozein fonemak ere ongi adieraz baitzezakeen erlazioa, tradizioak berririk erabaki izan ez balu. Ondorioz, erlazioa osagarriari aurrean jarritako *de*-k adierazia izatea hizkera frantses baten bereizgarria da, eta erlazioa osagarriari atzean jarritako *-s*-k adierazia izatea, hizkera ingeles baten bereizgarria. Erantsi behar da *de*-ren erabilera desager daitekeela hizkera frantses batetik edo *-s*-rena hizkera ingeles batetik horregatik hizkerok frantses edo ingeles izateari utzi gabe. Gertakari positiboek bakarrik daukate frogatasuna.

Honelako gertakari bakanak maiz iraunkorrak dira. Ahoskera alda daiteke, hiztegia eraberri daiteke, ezaugarri hauek bere hartan dirauten bitartean. Esate baterako, Ipar Frantziako oraingo hizkeretan, hitzen tokian tokiko formak aldatzen ari dira forma frantsesei egokitzeko, hiztegia berritzen ari da, eta badago oro har frantses komunaren arabera hitz egiteko joera. Azken buruan bizirik dirauena, morfologiaren tokian tokiko berezitasunak dira, hala nola maskulinoa eta femeninoa *i dit, a dit*-ez

adieraztea, frantses komunak *il dit, elle dit* duen bitartean. Honelako gertakari bakanak haurtzaroan ikasten dira eta jakinaren gainean erabiltzen ez diren ohiturak bilakatzen; bere hartan iraun dezakete, gainerako guztia aldatzen ari den bitartean ere.

Ondorioz, morfologia aberats eta korapilotsua daukan hizkuntza bat, gertakari bakan ugariarekin, ahaidetasuna frogatzeko egokia da; baina morfologia bakuna daukan hizkuntza batean, batez ere prozedura orokorrean, hitz ordenaz esaterako, baliatzen delarik, nekez aurkitzen da froga sendorik. Ia ez dugu hizkuntza bat indoeuroparra den ala ez frogatu beharrik: hizkuntza indoeuropar ezezagun bat agertu den guztietan, arestian tokharia edo hititera bezala, desziframendu eta interpretazioaren hasieratik bertatik haren indoeuropartasuna nabaria izan da. Aitzitik, ia morfologiako berezitasunik ez daukaten Ekialde Urruneko hizkuntzek, txinera edo thai hizkuntzak¹² bezala, hizkera txinatar edo thai-ekin ahaidetasuna duen hizkuntzarik aurkitzen saiatzen den hizkuntzalariari ez diote ezertxo ere eskaintzen euskarri moduan; txinera, tibetera, etab., esaterako, geroko forma gisa lituzkeen «hizkuntza komun» baten berreraiketak ia gainditu ezin daitezkeen eragozpideekin topo egiten du.

Zenbat eta bi hizkuntzaren arteko kidesasuna erakusten duten gertakariak bakanago, hainbat eta kidesasunaren frogatasuna handiago. Forma irregularrak, beraz, «hizkuntza komun» bat erabakitzeko aiposekin dira.

Frantsesezko *il est, ils sont, je fus* latinezko *est, sunt, fui*-rekin bat etortzea, frantsesa latinak hartu duen itxura berri bat dela agerian jartzeko gauza da. *Je veux, nous voulons, je voulus* eta *uolō, uolumus, uolui* bezalako kidesasunak, edo *je dis, nous disons, dit* eta *dīcō, dīcimus, dictus* bezalakoak froga sendotzera datoz. Hala bada, aditz «irregularrak» argudio frogagarri ugari eskaintzen diote frogapenari.

Adjektiboak frogapena berresten du. Izan ere, honetan erabilera arbitrarioa duen, hots, sexuaren araberakoa ez den maskulino-femenino bereizkuntza bat hautematen dugu. Esanahirik gabeko bereizkuntza hau

¹² Thailandia, Laos, Birmania (Myanm), Vietnamgo iparralde eta Txinako hegoaldean egiten diren hizkuntzen familia. Hizkuntzalari batzuk tibeto-birmaniarrekin batera txino-tibetar taldean bildu dituzte (arg. oh.).

bai frantsesez bai latinez aurkitzen da: *veston neuf* eta *veste neuve*, latinak *nouus*, *noua* duen bezalaxe. Honi erantsi dakioke bai frantsesez bai latinez femeninoa beste forma batzuetan ere, hala nola *la* artikuluan edo *ma*, *ta*, *sa* adjektibo posesiboetan, *a*-z adierazten dela.

Zenbat eta hizkuntza batek esanahi gabeko kategoria gramatikal edo forma irregular gehiago izan, hainbat eta ahaidetasunen frogapena eta jatorrizko hizkuntza komunaren berreraiketa errazago hizkuntzalariarentzat.

Jatorrizko batasuna ez da nahitaez mantentze hutsez bakarrik antzematen; sarritan berrikuntza bereizgarriez islatzen da. Indoeuropeerak, esaterako, leku guztietan desagertzeko joera izan duen forma korapilotsuko aditz joko mota bat zeukan; hizkuntzen arabera ezberdinak diren berrikuntzak antzinatik daudela ezagutzen dugu. Adibidez, bazen **éiti* «doa», **y-énti* edo **iy-énti*, **y-ónti* edo **iy-ónti* «doaz» itxurako orainaldi bat; sanskritoak *éti*, *yánti* itxuran gorde du; greziera atikoak εἶσι [eîsi], ἰασι [iási] apur bat aldatuagoan; latinak, oraindik aldaketa gehiagorekin, *it*, *eunt*-en; lituaniera zaharrak *eiti* singularra du; baina forma hauek oso bixiak ziren: lituaniera modernoak *eiti*, bertan erregularra den taiu berriko eraketa batez ordezkatu du, *eina*-z; eslavierak, K.o. IX. mendean geroz, antzinako itzultzaileen hizkuntzan, *idetū* «doa», *idotū* [idōtū] «doaz» ditu. *Einu* «noa» lituanieraren forma berriak eta *idq* eslavierarenak beren erara islatzen dute galdutako forma zaharra.

Aipatu adibidean, hizkuntza zenbaitek forma zaharra gorde dute, eta beste batzuen berrikuntza erraz azaltzen da. Baina batzuetan forma zaharra ez da inon gorde, eta konparatutako formen xehetasuneko kide-tasun falta da noizbait desagertu zen forma bakan baten berri eman dezakeen gauza bakarra. Indoeuropeerak **melati* eta **molati* «ehotzen du» itxurako orainaldi bat izan bide zuen, **m^olenti* eta **m^olonti* pluraleko hirugarren pertsona batekin. Erabiltzen zaila zen joko hau leku guztietan galdu da. Halere, eslavierak *meljetū*, lituanierak *malu* eta gotikoak *malip*, irlandierak *melid* eta hizkuntza britonikoak¹³, denak antzera, bokalismo ezberdina duen *mal*-, etab. forma bat dutelako ezagutzen da. Hemen suposatutako forma indoeuroparrak ez dira inon ere gorde; baina

¹³ Hizkuntza zeltikoen adarra, bretoiera, galesa eta desagertutako kornubiera baruan hartzen dituena (arg. oh.).

sistema indoeuoparraz dugun ezagutzaz eta historikoki ezagutzen diren hizkuntzen arteko desadostasunez berreraikitzen dira.

Gertakari bakanen ikerketak ez du morfologiaren azterketa orokorra ahantzarazi behar. Edozein morfologiak sistema oso bat eratzen du. Beraz, kidetasunen multzoaren ondoren, «hizkuntza komun»-aren sistema berreraiki behar da, ahal den neurrian. Eta, horren ondoren, jatorrizko hizkuntza bilakatu den hizkuntzen sistema morfologikoak, maiz erabat ezberdinak, ikusi bezala, sistema horretan nola oposatzen diren aztertu behar da. Berezitasunak dira frogabide erabakigarria. Baina frogapena ez dago erabat finkatuta, morfologi sistemaz morfologi sistema erkatu deino eta jatorrizko sistematik geroko sistemetara nola igaro zitekeen ikusi deino baizik.

Orduan maiz agerian geratzen da sistema zaharraren ezaugarri orokor zenbait luzaroan gordetzen direla. Adibidez, indoeuopera komunean, non hitz bakoitzak esaldian betetzen zuen paperaren marka beregan zeraman, izena eta aditza erabat ezberdinak ziren. Izan ere, gaur egun oraindik aditz-izen bereizkuntzak edonon eta erabat iraun du hizkuntza indoeuoparretan.

Fonetikan ere sistema zaharra eta sistema berriak aurkituko ditugu, eta sistema hauek guztiak asma ahal bezain ezberdinak izan daitezke.

Alabaina, sistemen arteko ezberdintasunak ez dira nolana hikoak. Jatorri komun beretik irtendako hizkuntza biren artean egokitasun erregularrik antzematea maiz ezinezkoa bada ere, hizkuntza komuna eta haue-tako hizkuntza bakoitzaren arteko egokitasunak, xeheki formula daitezkeen arau tinkoren menpe dira. Hauek dira «lege fonetikoak» deitzen ditugunak.

Indoeuoperazko *p*, *t*, *k*-ri germanikozko *p* [*θ*], *x* (nondik *h*) eta, baldintza batzuetan, *b*, *đ*, *γ* dagozkie; indoeuoperazko *b*, *d*, *g*-ri, germ. *p*, *t*, *k*; indoeuoperazko *bh*, *dh*, *gh*-ri germ. *b*, *d*, *g* (*b̥*, *đ̥*, *γ* bokal artean). Germanikozko egokitasun sistema erregular hau «Kontsonante Eraldaketa» deitzen dena da, edo Grimm-en legea (neurri handi batean Grim-mek baino zertxobait lehenago Rask-ek antzeman, baina lege gisa Grim-mek postulatu)¹⁴. Jatorrizko «hizkuntza komun»-aren eta geroko

¹⁴ Bere *Deutsche Grammatik* liburuaren bigarren agerraldian, 1822an hain zuzen (arg. oh.).

hizkuntzen arteko egokitasunen erregulartasunak hauxe erakusten du, alegia, ahoskera aldagetak ez dagozkiola hitz honi edo hari, forma honi edo hari bakarrik, baizik eta sistema foniko guztiari berari.

Printzipio metodologiko honen arabera, jatorrizko hizkuntzaren eta honen ondorengo hizkuntza bakoitzaren artean egokitasun arauak postula daitezke, baina ez hizkuntza komun beraren ondorengo hizkuntzen artean. Grezieraz eta sanskritoz indoeuoperaren hitz hasierako *p* *p*-z ordezkaturia dela postula dezakegu, *f*-z gotikoz, hala nola gr. πατήρ [patér], skr. *pitá* eta got. *fadar* «aita», eta indoeuoperaren hitz hasierako *k^w*, aldiz, *o* aurretik *p*-z ordezkaturia dagoela grezieraz, *k*-z sanskritoz eta *hw*-z gotikoz, hala nola gr. πότερος [póteros], skr. *kataráh*, got. *hwaþar* «(erl.) bietarik zeina». Izan ere, egiaztatutako bi egokitasunok,

gr. π = skr. *p* = got. *f*
gr. π = skr. *k* = got. *hw*

ez dira ulertzen berak azaltzeko suposatzen den indoeuoperazko forma komun bati buruz baizik.

Familia bereko hizkuntzak konparatzen ditugunean, ez da forma antzekotasunekin jokutzen, baizik eta egokitasun arauekin bakarrik. Gorago (20. or.) ikusi dugu armenierazko «bi» zenbaki izena, *erku*, indoeuoperazko **dwō* (edo **duwō*) zaharrari dagokiola. Egokitasun honek lehen begiradan bitxia dirudi. Baina bada arau orokor bat, zeinaren indarrez indoeuoperazko *dw*-ri armenierazko *erk-* baitagokio. Zeren egon, badaude egokitasun honen beste adibide batzuk. Indoeuoperak **dwei-* «beldur izan» erroa dauka, greziera homerikoan **δεῖφο(ι)α* (δείδω [deídō] idatzia), **δεῖφοικα* (δείδοικα [dēdoika] idatzia) «beldur naiz» bezalako aditz formez, edo **δεφος* (δέος idatzia) «beldurra» bezalako izen formez, ugari ordezkaturia; armenierak hor *erkiwt* «beldurra», *erkeay* «beldur nintzen» ditu. Inoiz **dwāro-* «luze» adjektibo bat izan zen, grezierak gorde duena (δηρόν) besteak beste; izan ere, armenierak *erkar* «luze» adjektiboa du. Araua, beraz, hiru parekazio argitan oinarrituta dago. Hasierako **dw-*, **duw-* aurkezten duten indoeuoperazko hitz ezagunen urria kontuan hartuta, badirudi hiru parekazio hauek batera azaltzea aski frogagarri dela.

Egokitasuna, gainera, erraz azal daiteke. Horzkari gehi *w* taldeak gutural bat ematen du armenieraz: *tw-* *k^c*-z ordezkaturia dago, *k^co* «zuregan-

dik»-en adibidez, grezierazko τῦέ [twé] (nondik atikeraz σέ [sé]) bezalako formen aldean. Eta *k* ahoskabea, armenieraz germanikoz bezala antzinako herskari ahostunak ahoskabe bihurtzetik dator: indoeur. *d* arm. *t* bilakatzen da, eta indoeur. *g* arm. *k*. Aurreko *r*-a taldearen hasierako kontsonantearen antzinako izaera ahostunaren arrastoa da (xehetasunetarako, ik. Grammont, *Mémoires de la Soc. de ling.*, XX, 252. or.), eta *r* honek bere aldetik *erku*-n ikusten den hasierako *e*-aren garapena erakarri du¹⁵. Gainera hitz barnean ere *-r*- egotea hasierako *r*-aren garapena eragozteko gauza izan da: *kr-kin* «doble» adierazten duen hitza da (*krkin* antzinako **kirkin* edo **kurkin* batetik dator). Arm. *erk*-en **dw*-rekiko egokitasun bitxiaren osagai guztiak armenieraren egiturari zor zaizkio. Honela azaldu ezin litekeen egokitasun bat susmagarria izango litzateke.

Parekazio argiko sail luzeak dauden eta ondorioz familia beraren partaide izatea zalantzazkoa ez den hizkuntz taldeetan, egokitasun harrigarriak erabil daitezke, arm. *erk*- taldeko beste hizkuntzen **dw*-, **duw*-rekikoa bezalakoak, eta arm. *erk(i)* = lat. *bi*- ezarri ahal izateraino iristen da, lehen begiradan xeblebre dirudien arren. Esan gabe doa ezin dela honelako egokitasunez baliatu hizkuntz batasun bat frogatzen has-teko. Azalpen erraza duten parekazioetatik hasi beharra dago.

Egokitasunen erregulartasunak ez du salbuespeneko tratamendurik egon daitekeela ukatzen. Esaldian, hitzak leku ezberdinetan aurkitzen dira, baldintza ezberdinetan. Tratamenduen erregulartasuna esaldiko posizioen araberako kasu ezberdinetatik tarteko forma jakin bat finkat-zetik dator maiz. Hala ere, eta besteak beste, kasu batzuetan azkarrago edo arreta gutxiz ahoskatutako formak¹⁶ besteak baino ohikoago dira, eta ondorioz hitz laguntzaileak ezberdin tratatzen dira: goi-aleman za-harrean *hiu tagu* «egun honetan»-tik *hiutu*-ra (al.mod. *heute* «gaur») bezalako laburketak ez dira inolako kategoria orokorretan sartzen.

Formula orokorretara erakarri ezin daitezkeen gertakari hauek ez dute zailtasunik historia ezaguna duen eta ongi finkatutako egokitasun arauak dituen hizkuntza batean. Esan gabe doa, teoria zehatz-mehatz finkatu ez den hizkuntza batean, halako arauz kanpoko gertakariak

¹⁵ Euskararen historian gertatu den bezala, armenieraz ere ez dira *r*-z hasten diren hitzak onartzen (arg. oh.).

¹⁶ Allegroformen izenarekin ere ezagutzen dira forma hauek (arg. oh.).

erabilezinak direla eta, behin-behinean bederen, kontuan ez hartzea komeni dela.

Hiztegiari dagokionez, bera da hizkuntzaren osagairik aldakorrena. Hitzak alde askotariko arrazoiez desagerkizun dira; hitz berriek ordezkutzen dituzte. Jatorrizko hiztegiari hitz berriak gainera dakizkioke eta are inoiz zaharrak baino ugariago izan: adibidez, ingelesaren hiztegi germanikoari honen besteko latinezko eta frantsesezko osagarri bat gainjarri zaio. Halaber, hiztegi guztia morfologiak erakusten duen taldeaz beste batekoa izan daiteke: Armeniako ijito hizkuntzak morfologia eta fonetika erabat armeniarrek ditu eta hiztegia, ordea, erabat ijitoa.

Gorde direnean ere, hitzek beren balioa hainbeste alda dezakete non, beren formaren antzinakotasuna gorabehera, benetan hitz berriak diren. Aitafamiliaren indoeuoperazko izena, **pátér-*, frantsesez gorde da; *père* hitza da. Baina indoeuoperazko hitzak gizarte paper bat adierazten zuen, eta jainko gorenari, famili buru nagusi gisa, **pátér-* izena eman zekiokeen bitartean, frantsesezko hitzak gero eta «sortzen duena» adierazteko joera handiagoa du, eta lat. *genitor*-en adierara igarotzen da, ia «ar» adierara: untxi arrari *père* esaten zaio. Beraz, fr. *père* indoeuoperazko hitz baten ondorengoa da, baina balio indoeuopartik hain urrun dago non benetan hitz berri bat den.

Hiztegiaren aldakortasun hau gorabehera, hizkuntzak elkarren artean parekatzen ditugunean hiztegi kidetasunek hain zuzen ezerk baino lehenago harritzen gaituzte. Maiz hiztegia da horretarako dagoen tresna bakarra, dela aztertutako hizkuntzak gaizki ezagutzen ditugulako eta hiztegiari buruzko lekukotasunak besterik ez dagoelako, dela gramatika oso bakuneko hizkuntzak direlako, Ekialde Urrunekoak bezala, dela gorde diren morfologiak oso berandu, suposatutako elkartasun garaia-
ren ondoren, eratu direlako. Beraz, oso garrantzitsua da hiztegi kidetasunak nola froga daitezkeen aztertzea.

Jadanik esana dago balio duten parekazio etimologikoak ez direla sekula forma fonetikoaren antzekotasunetan oinarritzen, egokitasun arauetan bakarrik baizik: arm. *erku* eta errusierazko *dva* pareka baldin badaitezke, ez da bi formek antzekoak diruditelako: forma fonetikoak ez datoz bat ezertan; baina egokitasun arauak zilegi egiten dute parekazioa, zeren indoeuoperazko *ǫ*-k eslavieraz *a* ematen baitu, eta armenieraz *u*, eta indoeuoperazko *duw*-k errusieraz *dv*- ematen baitu, eta armenieraz *erk*-.

Holako edo halako hitzi dagozkion baldintzez azaltzen ez diren heinean, egokitasunetako irregulartasunek beste hizkuntza batetiko mailegu bat edo baztertu beharreko etimologia bat salatzen dute. Latinezko *ca-* zahar bat *cha-*, *che-*, *chè-*z dago ordezkaturata frantsesez, esaterako *champ* eman duen *campum*-en, *char* eman duen *carrum*, *cheval* eman duen *caballum*, *cher* eman duen *caram*, etabarretan; beraz, *campum*-en aldean *camp* dagoenean, hitz honek ezin du frantsesaren tradizio zaharrekoa izan; izan ere italieratik dator, eta badakigu gainera noiz eta zergatik «mailegatu» zen. Latinezko *f*-ari germanikoz *b-* bat dagokioke; badugu, esaterako, latinez *flōs*, *flōris* «lorea» eta alemanez *Blume*; beraz, alemanezko *Feuer* «sua»-k ez du inolako erlaziorik frantsesezko *feu*-rekin: nahikoa da bestalde fr. *feu*-ren kide erromantzeak gogoratzea, —hau da, it. *fuoco*, gazt. *fuego*—, *feu* eta *Feuer*-en antzekotasuna aintzat ez hartzeko. Beraz, ezin da parekazorik egin, egokitasun formula zehatzez baizik —eta maileguei zor zaien guztia albo batera uzten kontu izanez.

Tamalez, jatorra litekeena eta mailegatua litekeena *a priori* erabakitzen zaila da. Aditzak eta adjektiboak eskuarki izenak baino sarriago jatorrak dira: oraingo frantsesezko *vivre* eta *mourir*, *venir* eta *dormir* bezalako aditzak oraindik aditz indoeuroparrak dira, baita *vif*, *vieux*, *neuf*, etab. bezalako adjektiboak ere. Halaz ere, al. *schreiben* «idatzi» bezalako aditz bat lat. *scribere*-tik mailegatua da. Alderantziz, frantsesezko izen asko, *piéd*, *chien*, *veuve*, etab. bezalakoak, indoeuroparrak dira. Hitz bat mailegatua izateko arriskua beti handia da eta, hizkuntza zahar zein berri batean, azaldu beharreko hitzak *a priori* jatorrak balira bezala jokatzeko duen etimologigilea, sarri huts egiteko paradan jartzen da.

«Hizkuntza komun»-era benetan jotzen duten hitzak direnean, hizkuntza horren hitzak alde guztietatik zehaztuta berreraiki behar dira, ez dago erroko osagai txiki zenbait parekatzearekin asebetetzerik. Eta, huts egiteko arriskuak handiak izanik, antzemandako kidetasunak hala-beharrezkoak ez direla ahaleginean ziurtatu beharra dago.

Printzipioz ez bada, behintzat egitez adostasuna erdietsi duen lehen-dabiziko puntua hauxe da: etimologia batek balio du baldin eta soilik baldin hots-egokitasun arauak era zehatz batean ezarriak badira, edo, salbuespenen bat onartzen denean, baldin salbuespen hau xeheki mugatutako zertzelada bereziek azaltzen badute.

Esan gabe doa kidetasunak halabeharrezkoa izateko arrisku gutxiago izango duela zenbat eta handiago den elkarri egokitzen zaizkion osagai fonikoen multzoa.

Halabeharrak ezin du nabarmenki «alarguna» sanskritoz *vidhāvā*, eslavieraz *vǐdova*, prusiera zaharraz *widdewū*, gotikoz *widuwo*, irlandez *fedb*, latinez *uidua* esanarazi, jakinik, adibidez, irlandezko *f* eta latinezko *u-* (kontsonantea) sanskritozko hasierako *v*-ari dagozkiola. *w*, *i*, *dh* eta *u*-ren kidetasuna, ordena honetan, ezin daiteke halabeharrezkoa izan. Sanskrito, eslavier eta prusierazko formak, batetik, eta germaniko, irlandera eta, zalantzarik gabe, latinezko formen artean, bestetik, bada, egia esan, ezberdintasun bat: *dh* eta *w* arteko bokal bat, *e* (edo *o*), lehendabiziko hizkuntzetan eta horren eza besteetan; ezberdintasun hau ez da eragozpen bat, zeren indoeuoperaren bokal txandakatze ezagunen islapena baino ez baita.

Baina baldin, xeheki elkarri egokitzen zaizkion lau osagarri foniko konparatu beharrean, hiru baino ez badira konparatzen, froga ez da hain sendoa; ahula, ordea, baldin elkarri egokitzen zaizkion bi osagai bakarrik bagenitu; eta ia baliogabe osagarri bat bakarra bagenu. Era berean, erroko osagai txikiez ari diren hizkuntzalariek eta maiz erroak erro pusketak bakarrik parekatzeko baino aztertzen ez dituztenek, honela jokatuaz aurretiaz hondatzen dute bilatzen ari diren frogabidea. Nolabaiteko luzera duten hitz osoen parekazioa ziurra izan daiteke. Erroko kontsonante bat edo biren gainean oinarritutako parekazioa baliogabea da baldin eta oso gertakari bereziek ez badute bermatzen.

Esanahi kidetasunak forma fonetikoazko kidetasuna (egokitasun arauen arabera) bezain zehatz eta argia izan behar du. Honek ez du esan nahi esanahian fonetismoan baino gehiago bat etorri behar denik; aitzitik, esanahi bereizkuntzak, baldin badira, azaldu behar dira, ez egiantz ilun eta orokorrez, zertzelada berezietz baizik. Fr. *ouaille* lat. *ouicula*-tik datorrela ez da zalantzazkoa, nahiz eta egungo frantsesez hitz honek eliza bateko apaizaren eliztarra bakarrik adierazi. Parekazioa zilegi da, zeren ezaguna baita eliza kristau bateko eliztarrak sarritan delako elizako artzainak hazten duen artaldearekin konparatuak direla. Tokian tokiko hizkera frantsesetan, dena den, *ouaille* hitza «ardi» esanahiarekin aurkitzen da, eta honek etimologiaren zuzentasuna behin betikoz agerian jartzen du.

Etimologia indoeuroparraren eremuan, hitzek joko ezberdinak izate-tik erabateko egiaztapenak erdiesten dira. Demagun, adibidez, «ardia» (ar ala eme: indoeuropeerak ez du sexuaren araberako izen ezberdinik animalientzat) adierazten duen hitza: sanskritoaz *áviḥ*, grezieraz ὄϊς [óis] (Homerorengan), lat. *ovis*, lituanieraz *avis*; esanahi eta forma ki-detasuna hizkuntza hauen guztien artean ezin hobea da; eta, honela for-ma fonikoaz eta esanahiaz ongi mugatutako hitz bat berreraikitza iri-sen denean, etimologia jadanik segurtatutzat eman daiteke. Alabaina, oraindik erantsi behar da antzinago lekukotutako bi hizkuntzek¹⁷, horre-gatik gertakari indoeuroparren xehetasun zenbaiten ikuspuntutik zeha-tzena emateko gaien direnak, eredu bereziko joko bat dutela: *ávyah* sanskritoazko genitibo-ablatiboa erabat dagokio **owyós*-tik datorren grezierazko ὀύός-i. Gainerako hizkuntzetan, joko normaldu da, espero zitekeen bezala. Baina sanskritoak eta grezierak berdin jokutzen dute hitz hau. Hau halabeharra erabat alde batera uzten eta frogapenaren ze-haztasuna handiagotzen duen gehigarritzko xehetasun bat da.

Jatorrizko «hizkuntza komuna» berreraiki behar denean, delako hitz bati buruz ditugun lekukotasunen kopurua kontuan hartzea onuragarri izan ohi da. Bi hizkuntzatako kidetasun batek, erabatekoa ez bada, ha-labeharrezkoa izateko arriskua dauka. Baina kidetasuna hiru, lau edo bost hizkuntza oso ezberdinetara hedatzen bada, halabeharra siniskai-tzago bilakatzen da. Persiera zaharrezko *rādiy* «-ren kausaz» eta esla-vierazko *radi* «-ren kausaz» bestetan aurkitzen ez diren arren, bi hitzak zalantzarik gabe parekatzen dira, zeren forma, esanahia eta erabileraren zernolakoak bat baitatoz alde guztietatik. Honelako kasuetatik at, bi hizkuntza indoeuroparretan bakarrik aurkitutako hitzen parekazioa sus-magarria da, beste hizkuntzetan hitza ezabatzeke izan diren baldintza bereziak finka ez baditzaiegu, bederen.

Edozein hizkuntzaz dela, etimologia bat frogatutzat eman daiteke baldin eta soilik baldin kidetasun zehatz multzo batek erakusten badu parekatutako hitzen antzekotasunak ezin dakizkiokeela halabeharrari zor.

¹⁷ Sankritoak eta grezierak baino goizagoko lekukotasunak eskaintzen dituen hit-tera aurkitu berria zen, eta artean ez ondo ezagutua, Meilletek txosten hau idatzi zue-nerako (arg. oh.)

Hitz guztiek ez dute etimologia bat izateko eskubiderik, batzuetan hiztegi etimologikoak gainbegiratzerakoan bestela badirudi ere. Arau metodologikoaren arabera, ongi finkatutako gertakari positiboek bakarrik justifikatzen dute parekazio bat: halabeharra alde batera utzi dela frogatzea etimologigilearen gain dago. Froga hori era ezberdinetan eman daiteke, hizkuntzen eta kasuen arabera; baldintzak hizkuntza batetik bestera aldatzen dira, hitz batetik bestera. Baina frogek beti zehatzak, hertsia izan behar dute.

Beraz, etimologia onen kopurua aski urria da, behintzat historia konparaketaz bakarrik ezagutzen zaien eta metodo konparatzaileak garai ezberdinetako testuen sailetan lekukotasun historiko zehatzen laguntzarik aurkitzen ez duen hizkuntzetan. Gramatika konparatu eskuliburu bat irakurtzen denean, hasiera batean harrigarria da parekazio kopuru urri batean bilbatuta ikustea. Kontua da gutxi direla erreparorik gabe oinarritzat har daitezkeenak.

Indoeuropea bezalako hizkuntza bat, zeinean hitzak gehienetan gutxienez bi edo hirusilabadunak baitira eta jokoak ugariak eta korapilotsuak, etimologi frogapen biribilak egiteko aukerakoa da (erraz asebetetzen diren hizkuntzalarien asmakeriak, lan gehiago edo gutxiagorekin zertuak, ahantz daitezke hemen). Halaber semitikoan ere, eskuarki hiru kontsonante hartzen dituzten erroak baititu, etimologia biribilak egin daitezke. Alderantziz, hitz laburrak, maiz silaba bakarrek, dituzten hizkuntzek eta aldi berean joko berezirik ez daukatenek ez dute, beren egituragatik beragatik, etimologi frogapen zehatzik onartzen. Badagoke halakoetan benetako frogapenetara iristeko, iritsi baldin badaiteke, metodo berri bat aurkitu beharra.

Ez dira hemen hizkuntza zenbaiten arteko konparaketaz egindako etimologiak, jatorrizko hizkuntza komunaren hitz batetik eratorriak, baizik kontuan hartu. Hitz guztien historia nola egin daitezkeen erabakitzeko —zeina baitago hitzaldi hauen xedetik urrun— azterketa luze bat, eta era guztietako prozedurak kontuan hartuko lituzkeena, beharrezkoa izango da.

Adibidez, hizkuntza jakin baten barnean, zenbait hitz hizkuntza horrek bere dituen eratorbideez azaltzen dira. Grezierazko *Ἔργον* [(w)érgon] «lana» bezalako izen batek, alemanierazko *Werk*-ekin parekatzeaz eta hitz horren forma indoeuropearaz normala dela ikusteaz aurkitzen du etimologia, gainera erroa armenieraz eta iranieraz ere aurkitzen delarik.

Baina, grezierazko ὄργανον [órganon] «lanabesa» azaltzeko, grezieraz beste izen asko eskaini dituen ohiko atzizki bat kontuan hartu behar da¹⁸.

Hitz askoren historia gertakariei buruzko datuek bakarrik azal dezakete: esate baterako, latinezko hiztegi teknikoak neurri handi batean grezierazkoa edo grezieraren eredura egina dela jakinik bakarrik azal daiteke latinezko *organum*. Eta, frantsesez hitz honen bi ordezkari izatea, *orgue* «organoa (musika tresna)» eta *organe* «tresna», «bitartekaria» (gero «organo anatomikoa») esanahiaren aldetik antzik ez dutenak, baldintza berezi zenbaiten ondorio da; baldintza hauek ezagutzen baditugu, histori garaian jazotako gertakariak direlako da; hala ez balitz, ez legoke munduan gertakari horiek agerian jar litzakeen metodo konparatzaileak.

Izan ere, hitzen etimologia gehienek metodo konparatzaileari ihes egiten diote eta lekukotasunen laguntzaz egindako historiaren beharrean daude. Lekukotasunik ez dagoenean, eta hitz batek izandako gorabeherak datu positibo eta zehatzez jarraitu ezin daitezkeenean, maizenik alfer da etimologia ziurrik ematen saiatzea.

Den morfologiaz, fonetikaz edota hiztegiak, sekula begi bistatik galdu behar ez den printzipioa hau da: parekazioek balio dute arau heretsien menpe dauden heinean bakarrik. Zenbat eta hizkuntzalaria askatasun gehiagoz ari, hainbat eta bere parekazioak arbitrarioago eta badaezpadakoago bere frogapenak. Adibidez, herrialde bateko izen propioak, hizkuntza aldaketa baten aurretik herrialde hartan hitz egiten zen hizkuntzaren ustezko ahaide batekin egindako parekazioez azaltzen dituen hizkuntzalaria, joku arriskutsu batean ari da. Antzina mintzatzen zen hizkuntza zein zen jakina denean eta hartatik hurbil zeuden hizkuntzak ongi ezagutzen direnean, honelatsuko azalpen zenbait ziurrak dira: *Briua* (*Brive*) deitutako herri galo-erromaniko batek egiatan izen galoa du, zeren zubi bat bide zuen leku batean baitago, zeren gorde diren hizkuntza zeltikoek «zubia» adierazteko *briwa* izen bat suposatzen baitute eta zeren latinak hartu baitu ziurrenik zeltikoa zen galoaren lekua Brive dagoen herrialdean. Baina leku izen greko bat Kaukasoko hizkuntzekin

¹⁸ Gr. -avov atzizkia hain zuzen, ik. P. CHANTRAINE, *Dictionnaire étymologique de la langue grecque*, s.u. ὄργανον (arg.oh).

egindako parekazioez azaltzea arriskutsua da: zeren kasu honetan delako izen propioak etimologikoki izan beharko lituzkeen hotsak ezerk aditzera ematen ez baititu, zeren parekatutako hizkuntzek itxura ezberdina baitute eta zeren ez baitago Kaukasoko hizkuntzen ahaide hurbilik han mintzatu denik froga lezakeen inolako datu historikorik. Oro har, izen propioen etimologiak zalantzazkoak dira zeren, beste hizkuntzetako gertakarietako kidetasunaren balioa ematen duten bi datuetatik, esanahia eta forma fonikoa, bat bakarrik erabil baitaiteke: forma fonikoa. Batez ere izen propioen etimologiaz kezkatzen diren hizkuntzalariak maiz hizkuntzalaritzaren menturazaleak dira, eta gutxi dira haien artean behar diren metodo eskakizun guztiak betetzen dituztenak.

IV.

Elkartasun garaia eta histori garaiaren arteko hizkuntz bilakaeraz

Konparaketari esker, azaldu dugun neurrian, «hizkuntza komuna» «berreraiki» ahal da, «familia» bateko hizkuntzak denbora igaro ahala hark hartutako formak direlarik. Baina «elkartasun» garaiaren eta hizkuntzak egiatan lekukotzen hasten diren dataren artean gertatu dena oraindik azaltzeko dago. Arazoa larria da, are sarri konponezina.

Esan gabe doa, hala zehazki finkatu nola bakarrik sumatu daitezkeen bitarteko elkartasun garaien laguntzaz baliatu beharra dugula. Honela «hizkuntza komuna» eta lekukotutako hizkuntzen arteko tartearen handia murrizten dugu, ahaleginean. Baina, ikusi bezala (28. or. t. hur.), ez da beti honelako elkartasun garairik izan edo, izan badira ere, ezin dakieke beti edota gertakari guztietarako probetxurik atera. Onik onenean ere, «hizkuntza komuna»-ren eta lekukotutako hizkuntzen arteko denbora-tartea beti zabala da, eta hura betetzeko egiten diren interpolazioak hein handi batean zehaztugabe eta arbitrario dira.

Hizkuntz gertakarien azterketa ez da aski ezta kronologi hastapen bat eskaintzeko ere. Zeren hizkuntz aldaketen abiadura neurri oso handi batean aldakorra da. Zenbait hizkuntzak ia aldatu gabe iraun dezakete mende luzeetan zehar: XII. mendetik aurrera ezagunak, hizkera turkoek harrez gero funtsezko ezaugarri berak gorde dituzte, gorde ere, oraindik oso antzekoak izanik, nahiz batzuetan duela mila urte banandurik egon. Ezer gutxi dakigu hizkera polinesiarren historiaz; nolana ere, Polinesia-ko irlak elkarrengandik bereizten dituzten tarte luzeak kontuan izan-

da, hizkera hauek oraindik ia berdinak izatea harrigarria da¹⁹. Honelako adibideak ez dira bakanak: gutxi zibilizatutako herrien hizkuntzek maiz egonkortasun handia dute.

Erdi-zibilizatutako en hizkuntzei batzuetan leporatzen zaien eraberritze azkartasuna lexikoari dagozkion ohitura zenbaitek azaltzen dute, neurri batean behintzat. Sarritan, erdi-zibilizatuen artean, hitzak debekupean gertatzen dira; adibidez, inoren heriotzaren ondoren, bere izenean agertzen den hitza maiz debekatuta geratzen da. Ondorioz, delako hitz multzo bat ezagutu duen bidaiariak, baldin zenbait urte beranduago itzultzen bada, alde askotatik ezberdina den beste multzo bat aurki dezake. Thalbitzer-ek eskimalen artean honelako kasu bat ezagutarazi du arestian²⁰. Baina honek ez du esan nahi hizkuntzaren funtsa horregatik aldatzen denik.

Aitzitik, bestetan aurkitzen dira hizkuntz sistemaren aldaketa azkarak. K.o. III. mendean, eta berdin V.ean, latinak, zalantzarik gabe, oraindik bere antzinako izaeratik asko mantentzen zuen, batez ere lehen begiradan. IX. mendean, hizkuntza erromantzeek jadanik aurkezten zituzten beren funtsezko ezaugarriak; are gehiago, VI. mendean, garai merovingioko idazleek zuten latina idazteko moldeak maiz aldaketa garrantzizkoenak gertatuak edo gertatzear zirela erakusten du. Halaber, armeniera modernoak armeniera zaharrari buruz egin duen aldaketa oso sakona, goizenik V. mendean eta beranduenik X. mendean artean gertatu da; harrez gero ez da armenieraz honelako aldaketa sakonik. K.a. VI. mendean, persierak oraindik itxura arkaikoa zeukan; gure aroaren lehendabiziko mendean, jadanik itxura modernoa zeukan, eta horren ondoren ez du antzeko garrantziko aldaketarik jasan.

Denbora, beraz, aldaketen garrantzia menpe daukaten baldintzetarik bat besterik ez da. Antzinako usadioaren mantentze egoera on batek ez

¹⁹ Polinesio-fijiar amankomuneko garaia Tonga irlaren kolonizazioarekin parekatzen da (K.a. 2. milaurtean); Samoa K.o. lehenengo urteetan populatu zen eta IV. mendean ostean hasi zen Polinesia kolonizatzen. Polinesiarrek Hawaira 8. mendean inguruan eta Zeelanda Berrira 1000-1100ean heldu ziren. (arg. oh.)

²⁰ Munduko beste leku askotan ere antzekoak gertatzen omen dira. Ematen du Meilletek ez duela ezagutzen arrakasta handia lortu zuen James G. FRAZEREN *The Golden Bough* izeneko liburua [New York, 1907-1914]. Bertan kapitulu batzutan tabuari buruzko arazoak, etnologikoak ez eze hizkuntzarekin zerikusia dutenak ere aztertzen dira. Liburua euskaratua dago, *Urrezko abarra I-II*, Bilbao 1995: Pentsamenduaren Klasikoak. (arg. oh.).

du frogatzen hasierako elkartasunaren haustearen ondoren igarotako denbora laburra denik, ezta formen eraberritze zabal batek denbora-tarte handirik suposatzen. Eta, hizkuntz gertakariak bestelako zantzurik eskainiko ez balute, maizenik ezingo litzateke ezer esan, ezta gutxi gorabehera ere, eraberritzeak eskatu izan duten denborari buruz.

«Hizkuntza komuna»-ri buruz hizkuntza baten berrizte maila ezin da dataren bidez zehaztu: hizkuntza semitikoen artean badira deklinabidea gorde duten bi. Izan ere, bietako bat Kristo aurreko bigarren milurtekoaren hasierako akadiera da, bestea K.o. VII. mendeko arabiera. Arabiera baino askoz lehenago lekukotutako hizkuntzetan, hebreieran edo arameoan esaterako, jadanik ez dago izen deklinabiderik.

Une batzuetan aldaketa linguistikoa azkartzen dela badirudi ere, hau berrikuntzek eskatzen duten prestaldi luzearen arabera izan ohi da hein handi batean. Askotan aldaketaren gertatzeak lan luze baten bukaera baizik ez du adierazten.

Eredu indoeuropar zaharretik familiako hizkuntzen eredu berrirako igarobidea eratu duten gertakaririk nagusienetakoa alturako azentuaren eta erritmo koantitatiboaren galera izan da. Testu vediko eta greko klasikoek oraindik garbiki erakusten duten eredu zaharrea, «tonua» ahotsaren goraldi bat zen eta ez zuen hitzaren erpin erritmikoa markatzeko balio; hizkera txinatar edo sudandarretan tonuek, hau da, ahotsaren gorabeherak, betetzen duten paper semantikoaren antzekoa betetzen zuten. Erritmoa osoki silaba luze-laburren txandakatzean zetzan. Hizkuntzen arteko konparaketak eredu hau inderopar komuna izan zela erakusten du. Eredu foniko hau erabat desagertu da, eta bereziki grezian eta Inperio garaiko latinean. Erritmoa dagoeneko ez da silaba luze-laburren txandakatzean oinarritzen; luzeetarik batzuk laburtu dira edo, besterik gabe, bokal guztiek luze-labur oposaketak galdu dituzte. Eta tonu zaharra hitzaren erdigune bilakatu da, erpin erritmiko. Ondorioz, hitza bestela «orekatzen» da, eta ahoskera guztia izaeraz aldatzen. Aldaketa hau burutzen denean, antzinako silaba tonikoak garrantzi berezia hartzen du, hitzeko gainerako osagaiak bigarren mailan geratzen diren bitartean. Ezaguna da hizkuntza erromantzeetan silaba azentudunaren bilakera ez dela inondik ere hitzeko gainerako silabeena bezalakoa. Lat. *caballum*-tik fr. *cheval*-erako aldaketa, gutxi gorabehera IX. mendeaz geroz gertatua, frantsesa da berez; baina benetan erritmo koantitatiboaren ezabaketaren eta, Inperio garaiko latinean gertatu zen eta —xeheta-

sun ezberdinek adierazten duten bezala— egiatan neurri batean latinezko lehendabiziko idatzietatik, hau da, K.a. III. mende aurretik, hasia zegoen antzinako tonuaren izaera aldaketaren ondorioa da. *Caballum*-tik *cheval*-erako aldaketa, aski azkar gertatua, hautematen dena da. Aldaketa honen prestakuntzak mende luzeak eskatu ditu eta ia ez da hautematen.

Prestakuntza garai hauek eremu indoeuropar guztian izan dira, ia beti histori garaia baino lehen, edota bilakaera azter daitekeen uneetarik kanpo. Grezieraren historiak eta latinarenak gerta zitekeenaren irudi bat eskaintzen dute; dena ezin daiteke haren arabera epaitu; zeren eremu indo-iraniarrear, adibidez, erritmoaren bilakaera aski ezberdina izan dela dirudi. Haatik, xehetasunetan sartu gabe, honelako prestakuntzak leku guztietan gertatu dira.

Hizkuntza indoeuroparretan oro har ikusten dena, prestaketa garaien ondoko bat-batetako hondamenen ondorioa da, haien ondoren hizkuntzak itxura berri bat aurkezten duelarik, eredu indoeuroparrez bestelakoa.

Eremu indoeuropar guztian izen jokia ezabatzeke joera dago. Eza-baketa honi hitz bukaera laburtzeko joerak lagundu dio, zeren horren ondorioz hain zuzen hitz bukaeran dauden kasu formen ezaugarriak, gero eta ilunago gertatzen baitira. Baina garrantzitsuena izen jokia poliki-poliki beste adierazpide batzuek ordezkaturik izan dela da. Histori garaia baino lehenagotik, jadanik kasu formak ez ziren nahikoak leku erlazioak adierazteko: latinak *eo in urbem* «hirira noa», *habito in urbe* «hirian bizi naiz», *uenio ex urbe* «hiritik nator» esaldietan nahitaez preposizioa izatea, ez da han bakarrik aurkitzen dugun gauza; antzerako gertakariak hizkuntza indoeuropar gehienetan ikusten dira histori garaiaren hasieratik, eta leku kasuen balio betea ez da gordé gutxi-asko bakartuta dauden hondakinetan baizik. Behin egoera honetara iritsita, kasu jokia alferrikako nahaspila gertatzen zen, eta hizkuntzak hura murriztea edo guztiz ezabatzea ez da batere harriztekoa.

Elkartasun garaiaren eta histori garaien artean hizkuntzaren bilakae-ra jarritzea gaitz, maiz ezinezkoa, bilakatzen duena, ez da aldaketak eskatu duen denbora neurtzeko zailtasuna bakarrik, ezta aldaketen prestakuntza garaien ikusiezina, edo ia, ere.

Badira askoz eragozpide gehiago.

Hizkuntza komunaren egoerak eta haren zatikatzeke formak asko baldintzatzen dituzte geroko aldaketak. Hemendik ondorioztatzen da,

aldaketa berdin edo antzerako zenbait, «hizkuntza komun»-aren ondorengo hizkuntzak banandu eta bereizten hasi ondoren gertatu direla. Maiz gertakari hau ez da aintzat hartzen. Gramatika konparatuzko liburuetan sarri «hizkuntza komun» baten ordezkarietan elkarren irudiko diren gertakari guztiak elkartasun garaikoak balira bezala jokutzen da. Zalantzarik gabe, egileek ez dute egiatan halakorik sinisten, eta noski, antzeko ezer baieztatzen ihes egingo lukete; batzuetan honi buruzko erreparoa adierazten ere dituzte. Baina gainerakoan gaia egileek halako hipotesirik onartuko balute bezala aurkezten da. Hau da, besteak beste, Brugmannen *Grundriss* bikainaren kasua*. Izan ere, ez dago errealtateari gutxiago egokitzen zaionik.

Demagun, adibidez, hizkuntza eslaviarretako aditzen singularreko 1. pertsonaren *-m* ezaugarria; ezaugarri hau hizkuntza eslaviar moderno gehienetako aditz-jokoaren zati on batean aurkitzen da, eta baita serbokroazierazko orainaldi arrunt guztietan ere. Izan ere, eslaviara komunaz, arauz kanpoko lauzpabost aditzi bakarrik zegokion. Berrikuntza Erdi Aroan zehar gertatu da, data historikoan, txekieraz eta serbokroazieraz, besteak beste. Data hartan eslaviar hizkuntzak aspaldi banandurik zeuden, eta berrikuntza, bakoitzak bere aldetik egin du; berrikuntzaren mugak, bestalde, hizkuntza batetik bestera aldatzen dira.

Bestetan ere antzerako gertakariak ikusten dira singularreko 1. pertsona berarentzat: armenierak ere orokortu egin du *-m-z* bereizitako forma bat. Honetan bilakaeraren bukaera baino ez dugu, eta armenierak hartara iristeko jasan dituen gertakarien zer-nolakoa itzuri zaigu. Indian eta Iranen, berrikuntza bera gertatu da, eta gutxik egin du ez bagara nola jazo den jakin gabe geratu. Zorionez, antzinako testu iraniar sail txiki batean, Avesta-ren *gāthā*-etan²¹, *-mi* hondarkina orokortu gabe dago; halaxe ikusten da sanskritoak «daramat» adierazteko *bhārāmi* eta

* K. BRUGMANN, *Grundriss der vergleichenden Grammatik der indogermanischen Sprachen*, Estrasburgo 1886-1900 (1. ko agerraldia); Berlin-Leipzig 1930 (2. agerraldia) (arg. oh.).

²¹ Avesta, mazdeismoaren liburu sakratua, iraniera zaharraren lekukoetariko bat da. Sasandarren garaian idatzia izan arren, liburuaren zenbait kantu, eta bereziki gatha, askoz ere lehenagokoak dira, Zaratustra profetak berak sortutakoak (K.a. VI mendean), tradizioa sinistu behar badugu (arg. oh.).

Avesta berriak *bārāmi* formak dituzten arren, *-mi*-ren eransketa elkartasun garai indo-iraniarraren (arioaren) ondokoa dela: zeren Avestaren *gāthā*-k oraindik *barā* eredia baitute.

Historikoki lekukotutako formen arteko kidesunak, hasiera batean pentsa litekeen baino askoz sarriago, jadanik banandu eta bereizitako hizkuntzetan bilakaera paraleloak gertatzen dituzte.

Honelako sorkuntzak paraleloki baina bakoitza bere aldetik gertatzen diren bezalaxe, ezaugarri zahar zenbait paraleloki galtzen dira, are arrazoi gehiagoz. Oraindik garai klasikoan grezierak τὰ ζῶα τρέχει [tá zóa trékhei] «animaliak lasterka dabilta» arau ospetsua (aditz singularra eta subjektu plural neutroa elkarrekin azaltzea) ezagutzeari esker eta Avestaren *gāthā*-etan arau bera, hertsiki begiratuta, berriz aurkitzeari esker, badakigu «nominatibo-akusatibo plural neutro» delako indoeuroperazko forma, benetan kolektibo zahar bat zela. Halaz ere, vedikoak, hain arkaikoa izanik ere, jadanik erabat ahaztu du ia. Latinak pluraleko aditza subjektu plural neutroarekin erabiltzea orokortu du; eslavierak, zeltiko eta germanikoak beste horrenbeste. Eta grezieran bertan bereizitasun hau denboraren poderioz galdu egin da. Hizkuntzen forma oso arkaikorik ez dagoenean —eta hau da kasurik normalena—, bitarteko garaiko gertaera anitz ezezagun gertatzen dira, beraz.

Baina usadio zaharren ezeztapenetatik eta iraun behar duten usadioen berrikuntzetatik at badago besterik. Hizkuntza bilakaera korapilotsua da, eta ezin daiteke bitarteko garaian sortu den guztia azaltzeko ezta honelako garaitan gertatu diren era askotako gertaerak berreraikitzeko ametsik egin.

Testuen bitartez K.a. VII. mendetik²² gaur egun arte jarraitzen da grezieraren historia, eta horri esker hizkuntza oraingo egoerara erakarri duten sorkuntzen eta galeren segida baloratzeko adibide bat izan dezakegu.

Izan ere, historiaurrean, grezierak aditz bakoitza geroaldi batez hornitu du; geroago, bizantziar garaian, geroaldi hau ezabatu du eta erabat berri den zerbaitez ordezkatu.

²² Meilletek liburu hau idatzi zuenetik 25en bat urtera, 1953an hain zuzen, M. Ventris arkeologoak frogatu zuen Kretan eta Greziako zenbait lekutan aurkituak eta K.a. XII-XII. mendean datatzen ziren bustinezko taulatxoak, grezieraz idatzita zeudela. Grezieraren historia, bada, beste bostehun urtez gutxienez zabaldu da. Ik. Martín S. RUIPÉREZ eta José L. MELENA, *Los Griegos micénicos*, Madril 1990 [Historia 16] (arg. oh.).

Grezierak jatorriz perfektu eredu bat zeukan: historiaurrean eta ondoren, haren erabilera hedatu du, formak ugaltu; ia aditz guztiek beren perfektua izateko prozedurak sortu dituzte. Garai atikoan, perfektua aditzaren oinarrizko formetarik bat zen, eskuarki erabiltzen zena. Geroago erabilera suntsitu da, eta greziera modernoak ez du inolako perfektuzko pertsona formarik.

Beraz, greziera K.o. IX. mendetik aurrera baino ezagutuko ez bage-nu, eslavieraz ezagutzen dugun bezala, hizkuntzalariak ez luke susmatu ere egingo grezierak, oraingo bi temadun aditzaren egoerara iritsi aurretik, garai bat igaro duela non geroaldiak eta perfektuak garapen aberatsa izan duten eta non sorkuntza ugari gertatu diren, forma berriak eta behin baino gehiagotan berrituak izan direlarik: bukaera baino ikusiko ez lukeen hizkuntzalariak ez luke garapen honetaz guztiaz inolako susmorik.

Izan ere, hizkuntza indoeuropar gehienak Kristau-aroaren hasieratik aurrera bakarrik ezagutzen dira, eta ordurako burutuak ziren grezieraz datu positiboek erakusten dituzten bilakaera korapilotsu haiek; ondorioz, hizkuntzalariak ez du benetan gertatu dena ezagutzen.

Beraz, alferrik izango da elkartasun garaiaren eta histori garaien artean eraturako forma berri guztiak hutsik gabe azaldu nahi izatea. Ez dago harrizkerik hizkuntzalaritzak ezingo balu hipotesi zalantzazko eta ahulak baizik egin latinezko *-uī-*-zko perfectumaren jatorriari buruz, grezierazko *-thēn-*-ezko iraganaldi pasiboari buruz, gotikozko *-da (-ta)*-zko lehenaldiari buruz, etab. Forma hauek berreraiki ezin daitekeen hizkuntz iraganaldian gertatutako lan baten ondorio dira; ez dago daturik berrikuntzak gertarazi dituzten baldintzak xeheki finkatzeko. Derrigor azaldu nahi izatea, hemen frogapen zehatzik aurki daitekeela uste izatea, metodo konparatzailearen mugak begi-bistatik galtzea da.

Elkartasun garaiaren eta historikoki lekukotutako garaien artean, badira osoki berreraiki ezin daitezkeen bilakaerak, eta zenbat eta bitarteko garaia luzeago eta batez ere berrikuntzez beteago, hanbat eta gauza gehiago ezezagun geratzen da nahitaez.

V.

Dialektoak

Orain artean jatorrizko hizkuntza eta historikoki lekukotutako hizkuntzak banakoak bailiran aztertu ditugu. Ez da hala egia. Hizkuntzalarietan behin eta berriro erabili ohi den «dialekto» adigai, bestela, lekuko.

Alde bat utzi behar da hemen «dialektoa» eta literatur hizkuntza finkatua kontrajartzen dituen adiera arrunta.

Hitza grekoa da, eta grezieraren egoera berezirako izan da sortua. Greziera zaharrak ez du, latinaren antzera, batasun bat osatzen. Era ezberdinetara idatzi da, garaiaren arabera eta tokiaren arabera. Zenbait hizkeratan νᾶσος [nâsos] «uharte» esaten da, eta beste batzuetan, νῆσος [nêsos]; batean ποσσί [possí], ποσί [posí] «oinei» da datibo plurala, eta beste batean, πόδεσσι [pódessi]; batean «nahi dut» βούλομαι [boúlomai] esaten da, bestean βέλλομαι [béllomai], eta beste batean δήλομαι [délomai]; batean «ukaite» κτήσις [ktêsis] esaten da, eta beste batean π(π)ᾶσις [p(p)âsis]. Baina ezberdintasun hauek ez dira era ezberdinetako hizkerak zerabiltzaten grekoek hizkuntza ezberdinak hitz egiten zituztela uste izateko adinakoak. Ezberdintasun hauetako zenbait, νῆσος [nêsos] eta νᾶσος [nâsos]-en arteko oposaketa bezala, hots-egokitasun sail zabalago baten barnean sartzen dira; beste zenbaitek, πόδεσσι [pódessi]-tik ποσσί [possí], ποσί [posí]-rakoa bezala, gramatika ezberdintasun erregularren berri ematen dute; beste batzuk, azkenik, hiztegi kontu soilak dira, hala nola κτήσις [ktêsis]: π(π)ᾶσις [p(p)âsis]. Berezitasun hauek gorabehera, grekoei ez zitzaien bururatu ere egiten

guztiek hizkuntza bera hitz egiten ez zutenik. Batasuna ezberdintasunean, eta ezberdintasuna batasunean da, beraz, «dialekto»-aren lehendabiziko ezaugarria.

«Dialektoa» bera ez da bat. Grekoek hiru dialekto handi bereizten zituzten: joniera, eoliera eta doriera, zeinei egungo hizkuntzalariek laugarren bat erantsi baitiete: akeera (arkado-txipreera). Baina testu jakin bat ez dago dialekto batean idatzirik; ez da aurkitzen dialekto bakoitzaren forma ezberdinak baizik. Adibidez, ez dago doriar hizkera bat: korintiera (sirakuserarekin), argiera, lakoniera, kretera, rodera, etab. baizik. Eta are gehiago dena, eredu orokor hauek aldaerak izan ditzakete: ez dago hizkera kretar bat, eta garrantzizko ezberdintasunak antzematen dira Kretako leku batetik bestera. «Dialektoa», elkarrekin zenbait ezaugarri dituzten eta beren artean hizkuntza bereko beste hizkerekin baino antz handiagoa duten zenbait hizkeraren multzoa da²³.

Hirugarren zehaztapena: dialektoek ez dituzte, nahitaez, hizkuntza bateko hizkera guztiak biltzen. Grezieraz, adibidez, hizkerarik ezagunak, atikerak, baditu jonierarekin batera zenbait berezitasun, baina ez da berez joniar dialektoaren barnean sartzen, eta are gutxiago beste edozeinetan. Elideko, Lokrideko, Fozideko hizkerak, ikuspegi askotatik dorieratik hurbil daude; baina ez dira zehazki doriarrak. Batzuetan ezinezkoa izaten da, bada, hizkuntza bateko hizkerak dialekto mugatueta biltzea.

Beraz, dialekto adigaia iheskorra da. Eta are gehiago oraindik, baldintza historiko ezberdinen ondorio baita.

Dialekto greziarrek, heleniar eremuan gertatu diren bata bestearen ondorengo hainbat jende-boladaren sarraldietan dute jatorria. Nabaritzen den jende-boladarik zaharrena akearrena da agian; ez dugu haien historia ezagutzen, baina sumatzen dira K.a. XIII. mende inguruan, duela gutxi aurkitutako dokumentu hititarrei esker, eta beren oroimenak badirau, leienda moduan bada ere, poema homerikoetan²⁴; histori garaian hor

²³ Euskaldunak ondo baino hobeto uler dezaketen egoera da greziera zaharrarena; esaterako, bizkaiera bat eta bakar bat bai ote? (arg. oh.).

²⁴ Hititarren testuetan agertzen den izena *Aḥḥijavā* da, Homeroren *Ἀχαΐοί* etnikoaren parekatzen dena. Batzuen ustez Greziako tribu baten izena den bezala, beste batzuentzat mizenastarrek Rodas-ko uhartean zuten hiri baten izena besterik ez da: *Ἀχαΐα πόλις* (arg. oh.).

ditugu Peloponesoko hizkera arkadioak, panfiliera Asia Txikiko hegoaldean, eta txipreera, azkeneraino heleniarren hedatzearen muturreko mugetatik bat markatu duena. Joniar bolada garai beretsukoa da, zalantzarik gabe; Grezian bertan ez da haien arrastorik geratzen, baina Eubeak, Egeo itsasoko uharteek, Itsaso Beltzean hasi eta Galietako itsasertzetarainoko Mediterraneoaren hegiek, joniarrak koloniak dituzte. Jende-bolada handi hauen artean azkena doriarra da; Greziako histori garaiaren hasieretan oraindik gorakadan agertzen direnak, eta ordurako beste dialekto heleniar batzuk hitz egiten zituzten bizilagunez guztiz estalirik zeuden lurralde mordo bat bereganatu dituzte, Peloponesoko zati handi bat eta Kreta, besteak beste²⁵.

Eremu galo-erromanikoan aurkitzen diren dialektoek beste jatorri bat dute guztiz. Erromatar garaipenaren ondoren Galian erabilitako hizkuntza batek, agerriki bakar batek, jasan duen eraldaketatik sortu dira guztiak. Eraldaketa honen ondorioz gauzatu ziren hizkerak ezaugarri ezberdinak dituzte Proventzan eta Gaskonian, Normandian eta Ile-de-France-n. Inork ez daki garbi nondik datorren aniztasun hau, edo zer dela eta eskualde hauetan erabiltzen diren hizkerak antzekoak baina ezberdinak diren. Hizkuntz eremu hauen mugak sarri antzinako administrazio mugekin bat datozenez, batzuetan pentsatu izan da herri bateko banaketa politikoek baldintzatzen dituztela hizkuntz banaketak. Baina lurraldea hala banatu bada, gizonen artean gauzatutako harremanen ondorioz izan da; eta erromatarren administrazio banaketei eliza katolikoak, oro har, eutsi badie, egiazko beharrei erantzuten zietelako erakusgarri garbia da. Harreman hauek dira, zalantzarik gabe, hizkerazko antzekotasunen berri ematen dutenak. Bat etortzea dago, eta ez kausarik.

Beste era bateko gertakariak ere kontuan izan behar ditugu. Mundu modernoan, eta aspaldidanik, badaude eskualde oso batera zibilizazioa hedatzen duten erdigune batzuk. Frantzian, probintzietako erdiguneek bigarren mailako garrantzia izan dute beti, eta Parisko itzala izan da nagusi

²⁵ Meillet-ek hemen aurkeztu digun azalbidea oso tradizionala da, mizenikoa deritzan mundu hori ganoraz ezagutu baino lehenagokoa. Orain ez dago batere garbi doriarrak izan zirela II. milenioko zibilizazio horren hondatzaileak, eta bestetik ematen du histori garaian, K.a. VII. mendetik ezagutzen diren dialektoak II. milurtekoko hizkuntz egoeraren ondorio zuzena direla. Guzti honen gainean irakurleak ikus beza M. S. RUIPÉREZ eta J. L. MELENA, *op. cit.*, 101-106 orr. (arg. oh.).

goiz-goizetik. Italian, aldiz, erdigune boteretsu bat baino gehiago dago. Veneziaren garrantzi ekonomiko eta politikoak ez du zerikusi txikia izan veneziar dialektoaren eratzean.

Dialektoak izateak ondorio garrantzitsuak ditu konparatzailearentzat; baina ondorio hauek ezberdinak dira dialektoak gauzatu diren tankeraren arabera.

Batzuetan hizkuntza komuna bat zen, hizkuntza bat halakoa izan daitekeen neurrian. Hau da, erromantzeei dagokienez, «erromantze komuna»-rekin gertatzen dena, hiri bakar bateko, Erromako, hizkera arrunta baita. Gröber-en hipotesiei jarraituz, gehienez ere kontuan izan beharko litzatekeen zehaztasuna, latina eskualde jakin batera eramana izan zen data izango litzateke: sardoak *ĩ* laburra eta *ē* luzearen arteko bereizketa, eta *ũ* laburra eta *ō* luzearen artekoa gordeko lituzke, Sardinia menperatua izan zen garaian Erromak oraindik ere *ĩ* eta *ē*, *ũ* eta *ō* bereizten zituelako; galo-erromantzeak (eta erromantze gehienek) *ĩ* eta *ē*-ren, eta *ũ* eta *ō*-ren ordain bakar bat izango luke, menperatze eta latinaren finkatze garaian *ĩ* eta *ē*, eta *ũ* eta *ō* nahasteko joera bazegoelako jadanik²⁶. Baina, nolana ere, erromantzeen jatorrizko hizkuntza bat bakarra da.

Bestela gertatzen da indoeuopera komunarekin. Hizkuntza indoeuoparren artean hautematen diren ezberdintasun asko, elkarren auzo diren hizkuntzetan aurkitzen dira aldi berean, eta honek aditzera eman lezake jadanik indoeuoperak bere baitan zituen ezberdintasunak direla bereizkuntza hauen iturria.

Har dezagun, adibidez, «hamar» zenbaki izena grezieraz, δέκα [déka], eta latinez, *decem*, alde batetik, eta sanskritoaz, *dásā*, eta armenieraz, *tasn*, bestetik. Forma germanikoak eta zeltikoak tartean *k* bat eskatzen duten formetatik datoz; forma iraniarrak, eslaviarrak eta baltikoak, berriz, barneko txistukari modu bat eskatzen duten formetatik. Ikuspuntu

²⁶ Euskarak llatinetik hartu dituen maileguak aztertzea besterik ez dago hipotesi hau okerra dela jakiteko. Euskarak, sardoak bezala baina inguruko erromantzeek ez bezala, jatorrizko ezberdintasuna mantendu du: *bilo* < lat. *pilum*, *moeta* < lat. *monētam* [ik. gazt. *pelo* eta *moneda*], *lukuru* < lat. *lucrum* eta *ohore* < lat. *honōrem* [ik. gazt. *logro* eta *honor*]. Nola Euskal Herrian ez baitzen latina inguruko lurraldeetan baino lehenago sartu, erromantzeen arteko aipatutako ezberdintasunaren arrazoiak bestelakoa beharko luke izan (arg. oh.)

honetatik, beraz, bi hizkera indoeuropar talde ditugu. Era berean, hizkera berek galdera zehaztugaberako, talde greko, latindar, zeltiko eta germanikoetan *qu-* bat, edo *qu-* baten ordezkioak dituzte, adibidez latinezko *quis*, eta talde indo-iraniar, eslaviar eta baltiko, armeniarretan *k* bat, edo *k* baten ordezkioa, hala nola sanskritoz *kāḥ* «nor», lituanieraz *kas*, etab. Hau dela eta, susmatzekoa litzateke indoeuperak bi dialekto talde zituela, bata grezierak, italo-zeltikoak eta germanikoak ordezkaturikoa, eta eslaviara, baltiko, armeniera eta indo-iranierarena bestea. Konsonante gutural deiturikoei dagokienez, banaketa hau zuzen-zuzen ematen da, eta sarri, indoeuperaz ari izanik, *satəm* talde batez (iranierazko «ehun» zenbaki izenaren arabera) eta *centum* talde batez (latinezko formaren arabera) hitz egiten da²⁷.

Haatik, beste zenbait gertakari aztertuz gero, bestelako banaketak aurkitzen dira. Esate baterako, *o* eta *a*-ren arteko bereizketa armenierak, grezierak eta italo-zeltikoak gorde dute; erabat desagertu da, ordea, germanikoan, baltikoan eta eslavian, eta indo-iranieran. Oraingoan, germanikoa eslaviara etabarrekin doa, eta armeniera, greziera etabarrekin.

Beraz, ez dago indoeuperaren barnean dialekto mugaturik finkatzerik, tratamendu ezberdinak baizik, fonetika, morfologia edota hiztegi gertakari zenbaiti dagokienez. Eta ezberdintasun hauetako bakoitzak bere mugak ditu. Indoeopera komunaren eremua, beraz, ikuspuntu askori begira, forma ezberdinak erabiltzen ziren eskualdeak mugatzen zituzten marrez gurutzaturik zegoen. Eta marra hauek, isoglosa marrak deituak, hein batean baino ez datoz bat elkarrekin.

Egoera hau bat dator beste kasu askotan hautematen denarekin. Esate baterako, galo-erromantzearen eremua, edota lituanieraren eremua, ezaugarri linguistiko anitzen mugak markatzen dituzten eta elkarrekin bat ez datozen isoglosez gurutzaturik agertzen dira.

²⁷ Banaketa honen balioa asko ahuldu da mende honetan, tokhariara eta hititera hizkuntza indoeuperaren aurkikuntzaren ondoren. XIX. mendean ezagutzen ziren hizkuntza indoeuperarrak *satem* eta *centum* taldeetan banatzen ziren, lehenak ekialdean eta bigarrenak mendebaldean. Txinako Turkestanen, hau da, hizkuntz familia honek hartzen duen muturrik eta ekialderagokoenean, tokhariara agertu zenean, berez *centum* hizkuntza izanik, ordura arte egiazat izandako dialekto banaketa honek bere garrantziko balioa galdu zuen. Orain *satem* hizkuntzak, eremu osoaren erdialdean dauden dialekto berrizaitzat jotzen dira (arg. oh.).

Egun hauteman daitezkeen eta indoeuoperari egotzi ohi zaizkion gertakarien arteko bat etortze honek erakusten du zein egiazkoa den konparaketak indoeuoperari buruz eskaintzen digun irudia. Ez gara eskema soil batez ari, baizik eta errealitatea bera den bezain gauzaki aldakor batez.

Eskualdeen araberako hainbat eta hainbat aldaketa elkartasun garaiaz gerokoak dira, gertaturiko berrikuntzen ondorioz sortuak. Hona hemen ohiko adibide bat. Zeltikoak antzinako k^w bat heredatu du, lat. *quis*-en gorde denaren erakoa. Bestalde, fonema hau gorde duen taldeko hizkuntza guztietan agertzen den joera bat erakusten du: k^w -ak p bihurtzeko joera du eta g^w -ak b . Antzinako g^w -tik b -rako igarotzea erraza da, zeltikoak bai baitzeukan jadanik b bat, g^w zaharra erakarri duena. Baina, berezitasun bakan bat dela bide, zeltikoak p indoeuoparra galdua zuen; beraz, p -ra igarotzeko q^w -ak hizkuntzan jadanik ez zegoen p bat sortu behar zuen; hau aski izan da talde irlandarrean q^w -ri p -ra igarotzea eragozteko, eta horregatik **eqwos* «zaldia» irlanderazko **eq(os)*-era heldu da, eta azkenik *ech*-era. Galoz eta britonikoz, berriz, q^w -tik p -rako joera txit bizia izan da, eta q^w p -ra igaro da, eta hala **eqwos* hitza *epos* bihurtu da galoz (eta antzeko forma bat britonikoz)²⁸. Dialekto banaketa, zeltiko komunaren garaia baino geroagokoak izan daitezkeen gertaren ondorioz gertatu da. Behin hala gertatuz gero, ezberdintasunak areagotu egiten dira; zeren hitzek ezberdintasun sakonak baitituzte harrez gero eta, ezinbestean, guztiz historia ezberdinak.

Ikusten den bezala, dialekto adigaiia lainoz inguraturik agertzen zaigu edozein ikuspuntutatik. Konparatzaileak, beraz, ezin dio besterik gabe heldu; zehazkiago mugaturiko behaketa-eremu bat aurkitzera beharturik dago.

²⁸ Meillet-ek aipatu dituen soinu bilakaerak, nahiz irlandararena zein britonikoarena, zuzenak izan arren, aukeratu duen adibidea ez dago ondo ekarria, «zaldi» indoeuoperaz **ekwos* esaten baitzen —bost fonemekin— eta ez **eqwos*, labiobelarearekin. Adibide gisa ondoko bi hauek balioko lukete: indoeur. **q^wis* «nor?»: irl. *cia*: galesa *pwy*, edota indoeur. **q^wetwores* «lau»: irl. *cethir*: galesa *pedwar* [ik. lat. *quattuor*] (arg. oh.).

VI.

Hizkuntz geografia

«Hizkuntza komun» baten eta geroago lekukoturiko hizkuntzen artean fonetika edota morfologiazko gertakariei dagokienez egokitasun zehatz eta erregularrak finkatzeko zereginari lotuz gero, arauak zorrozki beteko lituzketen hizkuntz eredu garbiak bilatzen dira. Hizkuntza zabalek osagai ezberdinegiak dituzte beren baitan. Definizioz, dialektoek berek ez dute batasunik. Pentsatu izan da hizkera herrikoiak, eremu murrizt batean aztertuz gero, eskainiko lukeela hizkuntzalariak behar duen oinarrizko batasun hori. Eta tokian tokiko hizkerak ikertu dira.

Monografiak egin dira oso hizkera ezberdinei buruz, laburrak eta azalekoak batzuk, zehatz eta sakonak besteak. Monografia zehatzek garrantzizko datuak eskaintzen dizkiote hizkuntza mota bat sakonki ezagutu nahi duenari. Irakasbide handiak dira hizkuntzalaritza orokorrarentzat. Baina hizkuntz talde baten historia egin nahi duen konparatzailearentzat, tokian tokiko hizkerari buruzko monografiak ez dira nahikoa eta erabilgaitzak gertatzen zaizkio gainera.

Galo-erromanikoa bezalako hedadura ertaineko eremu batean, hogeita hamar milatik gora izango lirateke bertako hizkera aztertu beharreko herriak. Eginkizunak, begien bistan dago, hizkuntzalarien lan ahalbide eta baliabide materialak gainditu egiten ditu. Amaitutzat emanik ere, hizkuntzalaria guztiz gainez egina legoke nola erabili jakingo ez lukeen datu pilaketarekin. Bestalde, amaigabeko errepikatzeak leudeke: herri bakoitzak bere-bereak dituen berezitasunak izanik ere, ba-

dira zenbait gertakari eta gertakari mota eremu zabaletan aurki daitezkeenak.

Beste eragozpen bat: hainbat ikerlarik jasotako datuak ezin daitezke zuzenki elkarrekin alderatu. Inkesta ez bada nolabait antolatu, eta arakatu eskualde osoan arau jakin batzuen arabera egin, monografia bakoitza era ezberdinean aurkezten zaigu, eta batean aurkitzen diren gertakariak ezin daitezke beste batekoekin behingoan alderatu. Onik onenean —eta ez da erraz gertatzen—, inkesta antolatua izan denean eta monografiak eredu bakar baten arabera egin direnean ere, ikertzaileek nekez azter ez jaso zezaketen guztia era batera. Are ezinbestekoagoa da, inkestatzaile gehiago izatea zenbait eskualdetarako bestetarako baino. Eta datuen trinkotasuna ez da berbera.

Laburbilduz, hizkerek ez dute *a priori* egotzi nahi izan zaien batasuna. Herri bateko bizilagunek, herria txikia izanik ere, mintzaera ezberdinak dituzte adin, giza-maila, lanbide, etabarren arabera. Bizilagun guztiak ez dira jatorriz bertakoak; guztiek ez diote bertako usadioari leialtasun bera. Tokian tokiko hizkera bati buruzko monografia batek gizabanakoen ezberdintasun hauek kontuan izaten baditu, nahaspilatsua gertatzen da, eta zaila da handik konparaketarako probetxurik ateratzea. Alde bat uzten baditu, ez du hizkeraren egoerari buruzko irudi zuzenik ematen; soiltze arbitrario bat egiten du; deskribatu baino areago eskematizatu egiten du.

Hizkera moderno multzo baten ikertzeari konparaketaren bidetik ekin nahi zaionean, berehalakoan konparaketarako erabiltzeko moduan antolatu behar da inkesta.

Ezer baino lehenago, behaketak ikertutako eremuaren osotasunean gutxi gorabehera modu berdintsuan banatu behar dira. Hoberena, herri guztiak arakatzea izango litzateke. Alabaina, eremu normal batean, non nahiko barruti zabal batean hizkera berdintsuak aurki baitaitezke eta herri bakoitzeko hizkerak ez baitu aldamenekoarekin funtsezko ezberdintasunik, nahikoa da iritzira aukeraturiko zenbait herri aztertzea, eskualde osoa hartuko lukeen eta eredu guztietako aleak eskainiko lituzkeen behaketa sare bat osatzeko. Zenbat eta sarea hertsiago, hainbat eta berezitasun garrantzitsuak itzurtzen uzteko arriskua txikiagoa, hainbat eta gertakari bakoitzaren muga zuzenak marratzen direlako ziurtasuna handiagoa. Baina konparatzailearentzat behar-beharrezkoa da eremu osoa era orekatu batean baloratzen lagunduko dioten datuak eskuartean izatea.

Bigarrenik, nahitaezkoa da datuak elkarrekin erkatu ahal izatea, eta horretarako, jasotako argitasunak maila bereko gertakariei dagozkienak izatea: hitz berak (hizkuntza komuneko hitz batek eremu osoan izan ditzakeen aldaera guztiak edukitzeko), edota adiera bera duten hitzak; forma berak, edota balio bereko gramatika-formak, etab.

Behar bikoitz honi erantzuteko, beharrezkoa da inkesta egiten den leku guztietan beteko den galdera-zerrenda bat osatzea. Inkestatutako leku bakoitzean, emandako esaldiak nola esaten diren markatuko da. Galdera-zerrendaren bidezko jokabide honek eragozpen larriak ditu: galdera egiten den hizkuntzak —gehienetan herrialdeko hizkuntza orokorra— bertako hiztunari eragin eta haren ohiko hizkera desitxura dezake. Herri bakoitzeko erantzun bakar bat egon dadin, derrigor hiztun bakar bati egin behar zaizkio galderak; eta, tokian tokiko hizkera bat bakarra ez denez gero, hiztun hori gutxi-asko desegokia da hizkera osoa ordezkatzeko. Jokabidea baldarra da, gutxi gorabeherakoa. Baina hori da bide bakarra.

Bi eratara bidera daiteke inkesta. Edo galdera-zerrenda bat banatzen da ahalik eta pertsona hartarakoenak tokian bertan beteko duena, hizkera horretan gauzak nola esaten diren markatuz; Alemanian²⁹ honelaxe jokatuta da. Edo, bestela, inkestatzaile bat bidaltzen da, eta honek aztertutako leku bakoitzean hiztun bati galderak egiten dizkio erantzunak berak jasotzen dituelarik; halaxe egin da hizkera galo-erromanikoen atlasa³⁰. Gilliéron-ek prestatutako galdera-zerrenda bat eskuan zuela, Edmont-ek, berak bakarrik, bisitatu ditu azertu beharreko herri guztiak, bakoitzean hiztun bakar bat aukeratu, eta jaso du hiztun honek nola adierazten zituen galdera-zerrendako esaldiak. Bigarren jokabide honen abantaila da elkarrekin zehatz-mehatz erka daitezkeen datuak eskaintzen dituela, eta ez dagoela kontuan izan beharrik inkestatzaile ezberdinen nortasunak ekar ditzakeen desitxuratzeak. Hain da handia abantaila hau, non ondoren egin diren inkestetan bide berberaz baliatu diren, eta, Jaberg eta

²⁹ G. WENKER, *Sprachatlas der Rheinprovinz nördlich der Mosel, sowie des Kreises Siegen*. [argitaratu gabeko eskuizkribua, 1878]; *Sprachatlas von Nord- und Mitteldeutschland* [1881.ean sei mapa argitaratu ziren, besteak argitaratugabe gelditu zirelarik] (arg. oh.).

³⁰ J. GILLIÉRON, E. EDMONT, *Atlas linguistique de la France*. Paris 1902-1912 (arg. oh.).

Jud-ek antolaturiko Suizako erromantzeen (frantsesaren taldeaz bestelako) eta Ipar Italiako hizkeren atlasa³¹ egiteko, adibidez, aztertzaile bakar batek, Scheuermeier-ek, egin duen inkesta osoa.

Lehen begiradan, hain jardun murrizten bidez eskuratutako emaitzei susmagarri deritzeke norbaitek. Baina bata bestetik hurbil dauden herrietan eginiko behaketek elkar kontrolatzen dute, eta egiaztapena parekazioaren beraren ondorioz gertatzen da. Horrezaz gain, inkesta lanak ez du monografiarena baztertzeko; eta nahikoa da inkestaren emaitzak, jadanik eginik dauden monografiekin edota ikerketa berriekin alderatzea, inkestatzaileak jasotako oharpenen balioa aintzat hartzeko. Edmont-en oharpenekin Gilliéron-ek osaturiko hizkera galo-erromanikoen atlasari dagokionez, ugariak izan dira egin diren egiaztapenak: eskualde askotan inkesta zehatzak burutu dira eskualde mugatu bateko hizkera guztiak kontuan hartuz, hala nola Millardet-ena Landetan, Bruneau-rena Ardenetan eta Oscar Bloch-ena Vosges-en; inkesta zorrotz hauek, oro har, baieztatu egin dute funtsean Edmont-en oharpenen zuzentasuna. Zenbait xehetasun zuzendu ahal izan dira; baina hutsegite xume hauek ez dute inkesta funtsean desitxuratu.

Lortutako emaitzak garrantzi handikoak izan dira, eta halakoak, non era honetako inkestak biziki ugaltu baitira. Frantzian, atlas bat egin da Korsikarako, eta beste bat argitaratuko da Armorika frantseseko hizkera bretoiei buruz. Atlas katalan bat argitaratzeko bidean dago³². Jadanik aipatu da Jaberg, Jud eta Scheuermeier prestatzen ari diren atlasa. Frantses gazte bat, Tesnière, eslovenierazko dualaren formei buruzko azterketa zehatz bat ari da egun argitara ematen, geografi motako inkesta batean oinarriturik³³.

Inkestaren emaitzak mapetan adierazi ahal izate hutsak, mapa baikoitza gertakari bakar baterako erabiltzen delarik, asko errazten du lana. Gauza jakina da zenbat argiago gertatzen den estatistika bat grafiko baten bidez adierazten denean. Mapa bakar batean, edo aldean jar

³¹ K. JABERG, J. JUD, *Sprach- und Sachatlas Italiens und der Südschweitz*, Zofingen 1928-1940 [8 liburuki] (arg. oh.).

³² Seguraski A. Grieraren zuzendaritzapean argitaratu zen *Atlas linguistic de Catalunya*, 1923-1968 [10 liburuki], delakoa adierazi nahi du (arg. oh.).

³³ L. TESNIÈRE, *Atlas linguistique pour servir à l'étude du duel en slovène*. Paris 1925, Champion (arg. oh.).

ditzakeen bizpahiru mapatan, arazo bati buruzko gertakariak aurrean dituen hizkuntzalariak, begi-ukaldi batez ikus ditzake argibidearen funtsezko osagaiak.

Dagoeneko, Gilliéron eta Edmont-en *Atlas*-ak arnasberritu egin ditu galo-erromantzeari buruzko ikerketak. *Atlas*-aren argitalpenak eragindako ikerketak ugaltzen ari dira, eta atertu gabe ari dira agertzen eskualde oso batean jasotako datuetan batez ere oinarritzen diren beste azterketa batzuk.

Izan ere konparaketak, inkesta hauetan, ordura arte zuena baino lanabes bikainagoa eta zuzenean bere beharrei egokitzen zaiena aurkitu du. Lehen aldiz agertzen zen, garbiki aurkeztua, elkarrekin berehalakokan aldera zitezkeen eta ikerturiko eremu osoa hartzen zuen datu multzo bat. Gramatika konparatuzko lanak egin dituen edonork daki zer nolako buruhausteak ematen dituen, alderatutako datuek aurkezten dituzten maila-ezberdintasunez abstrakzio egin beharrak: hizkuntza indoeuroparrei buruz lan egiten duen konparatzaileak, hiru mila urte inguruko aldean duten datuak erabili behar ditu, zenbait garaitan ugariak izanik beste batzuetan ezertxo ere ez dagoelarik, zenbait eremuri buruzkoak badirelarik, beste batzuetakoak falta izanik. Parekazio bat egin aurretik, osagai guztiak xeheki kritikatu beharra dago. Hizkuntza indoeuroparren gramatika konparatuan parekazio gutxi dago alderen batetik herren gertatzen ez denik.

Dagoeneko, geografi metodoarekin lorturiko emaitzak harrigarriak dira.

«Dialekto»-aren arazoak badu aterabidea. Askotan galdetu izan da nola marratu dialektoen arteko mugak. Alde batetik, dialektoa, ezaugarri bereziak dituen eta beste dialekto batzuei kontrajartzen zaien multzo trinko baten modura agertzen zen. Bestetik, ez zegoen dialektoentzat muga zehatzik aurkitzerik. Behiala, Frantziako iparraldeko eta hegoaldeko hizkera galo-erromanikoen muga erabakitzeke Bordeletik abiatu zen ikerlari batek uko egin behar izan zion inolako mugarik marratzeari eta bere lana amaitu gabe gelditu egin zen. Aski izan da mapak alderatzea egiaz ohartzeko.

Hizkuntz gertakari bakoitzak bere mugak ditu.

Alabaina, zenbait eskualdetan, gertakari berezien muga pilaketa bat aurkitzen da, batzuetan muga hauek paraleloak direlarik, besteetan elkar gurutzatzen dutelarik. Iparraldeko eta hegoaldeko hizkera galo-

erromanikoen artean ez dago muga bakar bat; gertakari berezien muga pilaketa bat dago, eta muga haietatik asko eta asko elkarren hurbil daude. Ondorioz, pilaketa honen iparralde eta hegoaldera, ezaugarri anitzetan bat datoz hizkerak. Iparraldea eta hegoaldearen arteko oposaketa garbia da; baina ez dago marra bakar batekin adierazteko modurik.

Pilaketa honek, oso era berezian, oraindik ere Bordeletik Lyon-a doan burdinbideak daraman bidea jarraitzen du gutxi gorabehera, hau da, punta zorrotz bat marratzen du iparralderantz, Frantziako Erdialdeko Mendigunearen iparraldeko oinetatik igarotzeko. Erdialdeko Mendigune osoa, beraz, hegoaldeko hizkeren ereduari dagokio. Latinaren eruditik hain urrun dauden Ipar Frantziako hizkerari beren itxura berezia eman dieten eraginak, Frantziako erdialdea betetzen duen mendigunearen aurrean geratu ziren. Ez da Loira ibaia muga egiten duena; mendi talde bat baizik, egiaz gurutzatzeko neketsua, eta ezinbestean bideek inguratzen dutena. Iparraldeko frantses eredu askoz ere hegoalderago barneratzen da, bai mendebaldetik, Bordel ukituaz, baita ekialdetik ere, Lyongo hegoalderaino helduaz. Hemen dialektoen arteko muga, jardun historikoa baldintzatu duen geografi motako gertakari baten bidez azaltzen da.

Bigarrenik, azterturiko gertakarien ugaritasunari esker, hizkuntza komuna eta geroko hizkuntzen artean dagoen denbora-tartea argitu egiten da. Erlearen izena da Gilliéron-ek aukeratu duena, era bereziki sakon batean metodo geografikoaren emaitzak zein eratakoak diren azaltzeko³⁴. Jakina zen, hots-egokitasun arauengatik, *abeille* hitz frantsesak ezin zuela jatorrizkoa izan Ipar Frantzian eta hegoaldeko hizkeretatik mailegatua izan behar zuela. Baina gertakari soil honek ez du argitzen *abeille* hitzaren historia frantsesez. Aski izan da «erlea»-ren izenak puntuz adierazita dauden mapa aztertzea, ohartzeko izen hauek aldatu egiten direla Ipar Frantziako eskualdeen arabera: hemen *abeille*, hegoaldeetik etorritako hitza; han *mouche à miel* «ezti-euli», bestean *mouchette* «eulitxo», bestean *avette* «erletxo». Erromatar garaiaz gero alde guztietan erabilia izan den intsektu honentzat hainbeste izen egoteak adierazten du antzinako izena desagertu egin dela; alabaina, mapek,

³⁴ J. GILLIÉRON. *Généalogie des mots qui designent l'abeille*. Paris 1918, Champion (arg. oh.).

zenbait gunetan, ezabaturiko izen bat agertarazten du: *é* da, hots, latinezko *apem*-i berez Ipar Frantzian zegokion forma. Laburregia izaki, ia alde guztietan ezabatua izan da eta izen berri batzuek ordezkaturia; izenok agerian jartzen dute hiztunek izan duten arazoa. *Mouchette* hitzean, eztabaidatua izan den baina txit erakargarria den hipotesi ausart baten arabera, Gilliéron-ek *mouche-é(p)* elkartuaren egokitze bat dakus, zeinetaz baliatuko bailirateke hiztunak Ipar Frantzian *apem*-ek jasan duen laburtze gehiegiak sorturiko eragozpena saihesteko; bestalde, agian birtualki baino ez da halako hitz elkaturik egon, eta *mouchette*-k zuzenean ordezkaturia zuen; zeren, era honetako aldaketak gertatzen direnean, fonetikoak nahiz morfologikoak izan, berrikuntzek badute joera jadanik badagoen sistemaren arabera berehala arautzeko eta eraturik dauden formen artean tartekatzeke. Hegoaldeak *apicula* forma zuen, erromatar garaitik jadanik luzatua, *ouis* ere *ouicula* itxuran luzatua izan zen bezala (fr. *ouaille*; ikus gorago 43. or.); beraz, ez du antzeko trabarik izan eta *abeille* eman dio Parisko eskualdeari. Fr. *abeille*-ren jatorriari buruz genuen ohar eskematikoaren ordez, errealitatea susmarazten duen historia korapilotsu bat dugu.

Emaitza hauetan oinarri hartuz, hobeki interpretatuko dira gertakariak baita datu urriagoak eta konparaketarako hain errazak ez dauden tokietan ere. Oso maiz aski da gertakariak geografikoki antolatzea beren historia ulertzeko.

Har dezagun, adibidez, «eho» adigaia indoeuropeeraz: **mel̥mi* edo *mol̥mi* «ehotzen dut» erako orainaldi bat dugu, eslavieraz, baltikoz, germanikoz, zeltikoz eta italikoz zeharbidez gorde dena, eta zeinaren forma zaharra gorago berreraiki ahal izan dugun (ik. 37. or.). Alabaina, aditz hau ez da aurkitzen ez indo-iranieraz, ez armenieraz, ezta grezieraz ere: ez halabarrez, ezta ere hizkuntza hauek hitz egiten zituzten herriek ehotzen ez zekitelako. Zeren hizkuntza hauetan ale izenak bai baitaude; badago (indo-iranieraz izan ezik) «goldatu» adierazten duen erroa. Baina kontua da badagoela beste erro bat «eho» adierazteko: ἀλέω [aléō] «ehotzen dut» grezieraz, *atam* armenieraz, eta erro honek arrasto garbiak utzi ditu indo-iranieraz ere. Ikusten denez, «eho» ideia era ezberdinetan adierazten da indoeuropeeraren bi eremu mugakidetan.

Eslavieratik italikora «eho» esanahia duen **mel-* erroa, bestalde, ez da ezezaguna beste hizkuntzetan; baina adiera zabalago bat du, «zehatu, birrindu», adibidez sanskritozko *mṛṇāti*-n «zehatzen du», armenie-

razko *malem*-en «birrintzen dut» edo μύλλω [müllō]³⁵ bezalako greziera herrikoiko aditzetan edo joniar autore herrikoietan irakur daitekeen μοι-μύλλω [moimüllō] forma erreduplikatua. Eta **mel*- erroaren eta grezierazko ἀλέω-ren aldiberekotasunaren arrazoiak hauxe da: latinak *molō* «ehotzen dut» eta aldamenean *mola* «ehotarri» dituen bezala, grezierak antzinako esku-ehotarriaren izena (Indiatik hasi eta mundu zeltikoraino gorde dena) galdurik μύλλη [müllē] «ehotarri» eratu du, «zehatu» adierako erroatik. Hitzen banaketa geografikoak historia osoa susmarazten du, datuen urritasuna gorabehera.

Mapak elkarrekin alderatuz, askotan gertakari harrigarriek azalpena aurkitzen dute. Esate baterako, bada Frantziako hegoaldean eskualde bat non esperoko genukeen *gallu(m)* «oilar» izenaren ordezkua desagertu baita. Eskualde txiki honetan, «oilar»-ari izen bitxiak ematen zaizkio, hizkuntzak izan duen traba agerian jarriaz: «oilar»-ari, «faisai» deitzen zaio, edo «bikario». Baina beste mapa batzuekin alderatzen badugu, ikusten dugu eskualde honetan *-tt-* dela latinezko *-ll-*aren ondorena: beraz, «oilar»-aren **gat* izena «katu»-aren *gat* izenarekin (antzinako **gattu(m)*, italierazko *gatto* ere eman duenarekin) nahasten zen. Ez zen erosoia «katua» eta «oilarra» izen berberaz adieraztea; «oilar»-aren izena desagertu egin zen. Eta baliabide ageriak erabili ditu hizkuntzak estuasunetik ateratzeko. Adigai bat adierazteko hain bide bakanak erabiltzen direnean, horrek gehienetan esan nahi du antzinako izen bat, honetatik edo hargatik (arrazoiak era askotakoak izan daitezke) ordezkatu behar izan dela; halakoetan hiztunen irudimena neurrigabea da.

Metodo geografikoa erabili ahal izan den toki guztietan, garrantzi handiko aurrerakuntzak egin dira. Inkesta ahalik eta zabalenak eskatzen ditu, eta hizkuntz eremu oso bati buruz ditugun datu guztiak erabiltzea. Metodo konparatzaileak, ordura arte ezin susma zitezkeen zorrotzasun, zabalera eta erraztasuna irabazten ditu.

Eta, halaz ere, hori zen espero izatekoa: gramatika konparatua, egokitasun sistemekin lan eginik, irabazian ateratzen da, hizkerez baino gehiago —berez ez baitzaizkio gehiegi interesatzen— «hizkuntza komun» beraren ondorengo diren hizkeren multzoan maila bereko gertakariez arduratuz.

³⁵ Zentzu lizunarekin «emakume bat eho» (arg. oh.).

Ez da beharrezkoa izango gogoraraztea, jadanik esan den bezala (38. or.), hizkera bakoitzak bere sistema duela, beti nahitaezkoa dela gertakari xehe bakoitzak sistema hauetako bakoitzean duen lekua gogoran edukitzea. Inkestek eskainitako eta geografikoki banatutako hitzen eta formen azterketa soil batek, hitz bat, edo hitz multzo txiki bat, edota forma bat, edo forma multzo txiki bat bakarka aztertzeraz bultzatzeko arriskua izango luke. Halako sakabanatzeak hondatu egingo luke edozein hizkuntzalaritza historiko. Hizkuntz geografiaren merezimendua, hitz bakoitzaren, forma bakoitzaren historiaren berezitasuna agerian jartzea izan da. Baina berezitasun hauek multzo sistematikoetan kokatu behar dira, eta bakarkako gertakariak multzo hauetan kokatu gabe ikerituko lituzkeenak, multzoak soilik kontuan hartzen dituen eta multzo hauek osatzen dituzten banakako gertakariak kritika zorrotz batekin aztertzen ez dituen hizkuntzalariak egiten dituen hutsegiteak baino okerragoak egiteko arriskua izango luke³⁶.

³⁶ Meilletek ez ditu hemen elkarren kontra jartzen, bere garaian batzuk egiten zuten bezala, neogramatikarien sistematikotasuna eta hizkuntz geografiaren azterketei esker lortzen ziren ekarpenak (arg. oh.).

VII.

Hizkuntza mistoaren adigaia

Denbora luzean, hau izan da hizkuntzalaritza historikoak lanerako erabili duen eta guztiek onartzen zuten hipotesi aipatu gabea: hizkuntza belaunaldiz belaunaldi igarotzen dela, haur bakoitzak bere inguruko hizkera ahalik eta hobekien errepikatzen duelarik. Horixe da normala dirudiena eta, hain zuzen, gehienetan ikus daitekeena.

Alabaina, gerta daiteke herri bat hizkuntzaz aldatzea. Ez da hain ohizkanpoko gauza: historia ezaguna duten herrien artean —eta jakina da onik onenean ere testuetan oinarritzen den historia bost mila urtez beherakoa dela, epe laburra gizakien bilakaera osoarekin alderatuz gero—, ez dago ia herri bakar bat ere behin gutxienez, gehienetan behin baino gehiagotan, hizkuntzaz aldatu ez denik.

Herri guztien artean, Egipto da historiarik luzeena duena eta gehien gordetzen duena; izan ere, lau mila urte inguruko historian iraun eta gero, egiptoera baztertu eta arabierak ordezkatu du, biztanlegoa ia aldatu gabe; mazedoniarren garaipenak kolonia greko bat sortarazi zuen, Alejandrian batez ere, eta horrek zuzendari talde txiki batzuen heleniar-tzea ekarri zuen; baina biztanlegoak funtsean berbera iraun zuen, Siriatik heldutako etorkinak kontuan izanik ere. — Gaur egungo Frantziaren eremuan galoak, zelten garaipenarekin batera etorri behar izan zuen, Kristau-aroaren aurreko milurtekoaren lehen erdian; gero, latinari lekua utzi zion erromatar garaipenaren ondoren; ez dirudi galoen konkistak biztanlegoa berri zuenik, eta erromatarren konkistak jende berri gutxi ekarri bide zuen berekin. — Erraza litzateke adibide gehiago ematea:

hizkuntz aldaketak sarritan gertatu ohi dira. Axola zaiguna da zein baldintzatan ematen diren aldaketa hauek eta nolako eragina duten.

Errazen azter daitekeen kasua gaur egun ia Europa osoan aurkitzen dena da. Eskualde bakoitzean, familia bereko tokian tokiko hizkera multzo bat dago eta hizkuntza idatzi bat, erabilera orokorretarako, estatuko beste herrialdeekiko harremanetarako erabiltzen den zibilizazio hizkuntza, gobernu, eskola, administrazio, kazetaritza, etabarrena. Halakoetan, hizkuntza idatziak eragin handia du tokian tokiko hizkeren gainean.

Orduan, azken ondorio berberera jotzen duten norabide ezberdineko bi mugimendu sortzen dira.

Tokian tokiko hizkera, hizkuntza orokorrari mailegatutako osagaiez betetzen da, azken hau baita zibilizazioaren behar berriei erantzuteko gai den bakarra, eta itzal handia baitu tokian tokiko hizkerarekin alderatuz gero: bera da jenderik boteretsuenen eta ikasien hizkuntza. Gailia erromatarraren tokian tokiko hizkerak aztertuz, Gilliéron ohartu da, eragozpenen bat aurkitzen zuten kasuetan, hizkera hauek frantses orokorrean bilatu izan dituztela arazotik ateratzeko bideak. Beraz, beren historiaren ondorio izango litzatekeen tradizio garbi bat eskaini behar, hizkera galo-erromanikoen, neurri handi batean, frantses orokorreko osagai «patoistuak»³⁷ dituzte beren baitan. Gaur egun, hizkera galo-erromanikoei buruzko ikerketen atal zabal bat, frantsesezko hitzak egokitzerakoan erabili dituzten prozedurei eskainia dago. Frantsesa eta beste hizkerak familia berekoak direnez gero, beren hiztegi ondare zaharrari dagokionez egokitasun erregularrak dituzte eta, egokitasun hauek kontuan izanik, tokian tokiko hizkera darabilten hiztunek ez dute inolako eragozpenik hitz frantsesak hartu eta «patois» moduko formak osatzeko, edota frantsesezko esakerak «patois»-era aldatzeko. Aldiz, eskolagabeen lan hau askotan hain ondo egina dago, non hizkuntzalariak nekez baino ez baitu bereizten «patois»-ean zer den benetan jatorrizkoa eta zer izan den egokitua.

Hizkuntza orokorraren gailentasuna, bai bere balioagatik, eta bai beste gizon-emakumeekiko harremanetarako ematen duen erraztasunagatik

³⁷ Fr. «patoisés», hau da tokian tokiko *patois* edo hizkeraren ezaugarrietara egokiturik (arg. oh.).

hain handia da non, usadio zaharrak gorabehera, berehala tokian tokiko hizkerak baino hizkuntza hau hobesten den, tokian tokiko ohiturak ohitura hiritarrekin ordezkutzen diren bezala. Baina hizkeraz aldatzea, ez da ohituraz aldatzea bezain erraza. Frantziako tokian tokiko hizkerak neurri handi batean frantses «patoistu» badira ere, herrietan erabiltzen den frantsesa, sarritan, «patois» frantsestua da. Askotan eta askotan, nahikoa da tokian tokiko hitza zertxobait aldatzea hitz frantses zuzena eratzeko: herriko *lwé* hitza frantsestu egiten da *lwa* (*loi* «lege») ahoskatzen den bezain laster. Zailxeagoa da *lavwé* Berry-ko hitza frantsestea; ez da nahikoa *lavwa* ahoskatzea: *r* bat erantsi behar zaio (fr. *lavoir* «garbi-leku»); beraz, baliteke *lavwé*-k denboraldi batez bizirik irautea; baina azkenean mundu guztiak *lavoir* esango du, frantses erara. Gehien irauten duena, oroimenean finkaturiko zenbait gramatika erabilera ia oharkabeak dira, gorago (35-6. or.) esan den bezala. Erabilera hauek ere noizbait desagertu egiten dira, eta hala, apurka-apurka, frantses orokorrrak herriko hizkera erabat ordezkutzen du. Mugimendu hau gaur egun azkar gertatzen ari da, eskualde batzuetan besteetan baino lasterrago: frantses orokorra gehiago nagusitzen zaio tokian tokiko hizkerari Frantziako erdialdean Pikardian baino, adibidez. Baina mugimendua alde guztietan ari da gertatzen, eta gaurdanik susma daiteke Ipar Frantzian tokian tokiko hizkeren ikerketa ezinezkoa izango den eguna, hizkera hauek zokoratuak izango baitira. Alabaina, XVIII. mendeko azken alde-
ra, egunerokoak ziren oraindik herri guztietan, eta are XIX. mendeko lehen erdian ere, Frantziako herri guztietako mintzaerak tokian tokiko hizkeren arrasto handiak, behinik behin, gordetzen zituen oraindik.

Frantzian gertatzen dena ez da berria historian zehar. K.a. v. mendean, Greziako ia herri bakoitzak bere hizkera zuen. Harrez gero, hizkuntza orokorraren eragin gero eta handiagoak, tokian tokiko berezitasunak ezabatzen ditu, bata bestearen ondoren, eta usadio atikoan oinarrituriko hizkuntza komun bat hedatzen da Grezia osoan. Kontrakar ugariak gorabehera, hizkuntza hau alde guztietan gailentzen da, eta inperioaren garaiaz gero agerian dago hura dela eremu heleniar osoan erabiltzen den ia hizkuntza bakarra. Hizkera greko modernoak, berriro ere batzuk besteetatik urrunduak, hizkuntza orokor haren ondorengo dira denak. Eta ozta-ozta susma daiteke han-hemenka, hizkuntza komunaren orokortze aurreko tokian tokiko hizkera grekoen zantzu txiki-
ren bat.

Baina orokortze hau ez da gertatzen hizkuntza orokorra aldatzen duen kontrakarrik gabe. Orokortu den greziera ez da atikera hutsa. Alde guztietan zabaldu diren ezaugarriak atikerak eta jonierak elkarrekin ziztuztenak dira gehienbat eta, gainerakoan, atikeraren beraren zenbait berezitasun. Baina berezkoegiak ziren atikeraren beste zenbait berezitasun ez dira onartuak izan. Esaterako, atikerazko formatako *tt* ordez nahiago izan da *ss* ahoskera, eta hala μέλισσα [mélissa] «erlea» esaten da, jonieraz eta beste hizkera gehienetan bezala, eta ez μέλιττα [mélitta], Atenasko forma. Denboraz, Atenas bera ere erabilera komunera moldatu denez gero, berezitasun atikoak desagertu egin dira. Adibidez, «ezein» K.a. IV. mendean οὐθείς [ūthḗs], esatera iritsia zen Atenasen; forma atiko hau ez da nagusitu, eta οὐδείς [ūdḗs], forma zaharra, Atenastik kanpora bizirik zirauena, azkenik Atenasa itzuli zen berriro. Horregatik greziera modernoak «ez» esateko, δέν [den] forma dauka, οὐδέν [ūdén], «ezer ez» neutro zaharretik datorrena. Greziera komuna, beraz, ez da hizkera bakar baten ondorengoa; ezberdinak izanik elkarren auzo diren hizkera zenbaiten osagaiak jasotzen ditu.

Frantses orokorra bera ere, Parisko hizkuntza delarik, ez da geratzen probintzietako eragina jasan gabe, Frantzian nagusi den garbizaletasuna gorabehera.

Beraz, hizkuntza orokor bat hizkuntza mistoa da gutxi-asko, eratzen den moduagatik eta bere baitan jasotzen dituen osagaien korapilotsutasunagatik.

Hau areago ere joan daiteke. Italiara orokorra usadio toskanoaren gainean oinarritzen da; baina ahoskerak ez du berezitasun toskanorik onartzen, eta gogotik esango dizute italiara orokorra *lingua toscana in bocca romana* dela. Ingeles orokorra Londresko usadioaren gainean eratua dago; alabaina, dialekto ezberdinak elkartzen diren gunean aurkitzen delarik, Londresek, hainbat eskualdetatik datozkion ezaugarriak ditu bere hizkeran. Beraz, hizkuntza orokorrak, jatorri ezberdinetako gizon-emakumeen beharrei erantzuteko sortuak direnez gero, ez dira tradizio bakar batean oinarritzen, ezta kasurik onenean ere.

Are gehiago, hizkuntza orokorrak artifizialki eratuak gerta daitezke. Esate baterako, Vuk gramatikalaria, serbokroaziera idatzari duen itxura eman ziona, antzinako *x(h)*-a mututua zuen eskualde serbokroaziar bateko hizkeretan oinarritu zen; eta hizkuntza *h*-rik gabe eratzeari ekin zion. Arazoa hobeki aztertu ondoren, egokiago iruditu zitzaion *h*-a

oraindik gordetzen zuten hizkera arkaikoagoak kontuan hartzea. Beraz, eratu duen hizkuntza konposatua da. Eta, *h*-a desagertua zen eskualde-tako hiztunei zail gertatzen zitzaenez *h* hori ahoskatzea, honi dagokio-
nez gorabeherak daude serbokroaziera orokorraren usadioan, eta nahas-
te asko.

Hizkuntza orokor baten hedatzea ez da mugatzen, tokian tokiko hiz-
kerak hizkuntza orokorraren hizkuntz eredu berekoak diren eta jatorri
bera duten kasuetara. Hizkuntza orokorra tokian tokiko hizkeretatik ze-
haro ezberdina denean, gertakariak aztertu kasukoetatik guztiz bestela-
koak izan ohi dira; baina bilakaera antzekoa da alderdi askotatik.

Alde batetik, hizkuntza orokor ezberdina gainjartzen zaion bertako
hizkuntza, erabilera lokal eta behe-mailakoetara murrizten da. Harrez
gero, hizkuntza orokorretik mailegatutako osagaiez betetzen da. Hala
bada, Armorika frantsesean, bretoiera hitz eta esapide frantsesez josia
dago. Zabarkeriaz erabilia izan daiteke, eta bere berezitasun batzuk gal-
du. Esaterako, Vannes eskualdeko bretoiera asko mordoilotu da. Erabi-
lera lokaletara murrizten den hizkuntzak, gero eta osagai gehiago gal-
tzen ditu. Oro har, honek ez du garrantzi handirik hizkuntzaren
historiari dagokionez; zeren hain lardaskatua dagoen hizkuntza erabat
galtzen da azkenean.

Hizkuntza orokorraren erabilera, erosoagoa eta hiztuna jenderik ika-
sienen artean kokatzen duena, gero eta gehiago zabaltzen da. Baina hiz-
kuntza orokorrera bide honetatik heltzen diren hiztunek ezin hitz egin
dute erabat, jatorrizkoa dutenek bezala. Animaliak, landareak, ohiturak,
tokian tokiko formez gainera, zeinentzat hizkuntza orokorrak ez baitu
hain hitz zehatzik, hizkuntza berri batera igaro diren hiztunengan adie-
razpide zaharrek bizirik dira; ahoskera ere, normalean, ez da bete-
betea izaten.

Ikus bestela, esaterako, zer gertatzen den Frantzian. Nahiz iparral-
deko, nahiz hegoaldeko hizkerak, bi-biak galo-erromanikoak diren
arren, nahikoa ezberdinak dira hala ere, tokian tokiko hizkera erabi-
liaz eskualde batekoek eta bestekoek elkarri ezin ulertu ahal izateko.
Hegoaldekoek frantses orokorra darabiltenean, gaur egun hiriko hiz-
tunek ezagutzen duten hizkuntza bakarra, era berezian ahoskatzen
dute, era ezberdinean, gainera, eskualde batetik bestera. Bokalen arte-
ko aldea handiagoa da Frantziako hegoaldean iparraldean baino; era-
biltzen diren bokal tinbreak ezberdinak dira; bokal sudurkariak beste

era batera ebakitzen dira; *e* mutuak, zeinen banaketa frantsesez arazo zail eta sotila baita, okerreko lekuetan kokatzen dira; laburbilduz, ahoskera oro har ezberdina gertatzen da. Gramatikak berak ere baditu ezberdintasunak: lehenaldi trinkoa, hizkuntza idatzian dirauen arren Parisko eskualdeko ahozko frantsesean erabiltzen ez dena, usua da hegoaldekoen artean frantsesez ari direnean. Hala bada, frantsesaren kasuan gertatzen den bezala, hizkuntzaren irakaskuntza modu bakar bat, garbizaletasunaren eragin handi bat, eta beste inon gainditzen ez den eta gutxitan berdintzen den zorrotasunez finkaturiko usadio bat daudenean ere, hizkuntzaren orokortzeak berekin dakar tokian tokiko usadioari egokitze handi bat. Orokortzeaz batean, frantsesa eskualde-hizkeretan hausten da, eta Parisko eredia ez da inongo probintzian zuzen eta leialki ematen. Eskualde-frantses hauek ez badira inoiz zehazki deskribatuak izan, horrek ez du esan nahi ez direnik. Esan ohi den bezala, «tokian tokiko substratua»-ren eragina nabariarazten da eta hizkuntza orokorren hedaduraz dakigunaren arabera, eragin horrek ezinbestekoa dirudi.

Zalantzarik gabe, eskolaren eta hizkuntza idatziaren eraginak eta hitzunez ongi hitz egiteko duten lehiak hizkuntza orokorraren itxura bateratzera jotzen dute; baina batasun hau ez da inoiz betea eta biribila izango. Hizkuntz eredia alde guztietan bat eta bera da, beharbada; baina ez da orotan berdin gauzatzen.

Zalantzarik gabe, bada oraindik arazo sakonagorik ere: esperimenduek erakusten digute, bizitzan zehar norberegaturiko ezaugarri anatomikoak ondorengoek jasotzen ez badituzte ere, badagokeela, ordea, ohituren heredentziarik. Izan ere, hizkuntz usadioa, neurririk handienez, norberegaturiko ohitura multzo bat da. Hizkuntza berri bat ikasterakoan, hitzunez ez dute haatik beren heredentzia galtzen. Beraz, jatorrizko hizkuntzan nabarmentzen diren joerak, berriki eskuraturiko hizkuntzan ager daitezke. Ulertzekoa da, horren arabera, latinak aldakuntza bereziki sakonak jasan izatea guztiz bestelako joerak zizuten hizkuntzak ordezkatu dituen eremuetan, eta batez ere galoaren kasuan. Badakigu, adibidez, bokal arteko kontsonanteak aldatzeko, inguruko bokalei egokitzeko eta are ezabatzeke ere joera bizia, zeltikoa bereizten duten ezaugarrietako bat dela. Izan ere, latinezko bokal arteko kontsonanteak ez dira beste inon galo-erromanikoaren eremuan, eta batez ere frantsesean, bezala aldatuak eta are ezabatuak

izan: *lepore(m) lièvre* «erbi» bihurtzen da, eta *amatam, aimée* «maitea» (fem.). Horrek susmarazten digu frantsesezko berrikuntzarik berezkoenen arrazoia ez dela soilik Galian latina ahoskatzeko era, baizik eta galoz mintzatzen ziren hiztunek eskuraturiko ohitura heredentzia. Hipotesi-modu honekin, *substratu* teoriari sarri jarri ohi zaizkion eragozpenak erraz deuseztatzen dira. Eremu galo-erromaniakoan eta Alsazian *u* itxia *ü*-ra igarotzea ez litzateke izango galoaren ezaugarri baten gordetze zuzena, heredentziaz jasoriko zenbait ohituraren eragin urruna baizik.

Orokortzen den hizkuntza batek hainbat eremutan hartzen dituen hainbat forma ezberdinen azalpena —zaticakoa bada ere— sarritan eztabaidatzen bada, gertakariak era mekanikoegian aztertzen direlako da: ez da uste izan behar hizkuntza orokortuan «substratuko» berezitasunak beren jatorrizko tankeran aurkituko direnik. Eragina konplexua da, eta lehen begiradan batere argiak ez diren formen azpian agertzen da.

Hau horrela, hizkuntza orokortu bat, hedatzen den eremuan, hizkuntza gutxi-asko mistoa da, zeren eredu orokor baten aldamenean, tokian tokiko erabilera eta ohituren eragina ere —sakona, zalantzarik gabe— nabaritzen baita.

Bestalde, eta barneko eragin hauek alde bat utzirik ere, mailegua bera nahikoa da hizkuntza bati itxura berri bat emateko, oso sarri egiten bada. Ingelesak bere hiztegiaren erdia baino gehiago latinari eta frantsesari zor izatea nahikoa da, bera bakarrik, beste hizkuntza germanikotatik bereizteko. Ahoskerari berari ere ukitzen dio, mailegaturiko hitzek beren azentua gorde baitute, eta germanikoz hitz hasieran azentua jartzeko joera erabatekoa desitxuratu egin baita. Esaerak ere mailega daitezke: alemanierazko *was für* «zer?» esapidea, eslavierazko esapide batean, *čto za*-n, birlandatu ahal izan zen. Halaber, gerta daiteke, bi hizkuntzetako osagaiez osaturiko esamoldeak sortzea: latinez, grezierazko *kath-ena* (hitzez hitz «batez»), erdia kalkatua eta erdia mailegatua da, eta bertatik **cata-uno*, **cat-uno* atera da, nondik baitatuz gatzelaniazko *cadauno* eta italierazko *caduno* «bakoitza»³⁸.

³⁸ Forma zuzenak ondoko hauek izango liriateke: gazt. *cada uno*, it. *cadauno*. Frantsesaren ordaina *chacun* da. (arg. oh.).

Mailegu dioenak onartzen du hiztunak bi hizkuntza ezberdin gogoan dituela. Eta, izan ere, hizkuntza indoeuroparrak, semitikoak eta bantuak bezala morfologia korapilotsua duten hizkuntzetan, edo morfologia bakunagoa baina gramatika kategoria ezaugarri ongi bereziak dituzten hizkuntzetan ere, hiztunak beti hizkuntza jakin batean ari behar du; badaki berak hizkuntza bata ala bestea erabiltzen ari den; eta ezinezkoa gertatuko litzaioke bataren morfologia besterekin nahastea. Dagoen bezain zarpaildua dagoelarik ere bretoiera, Vannes eskualdeko biztanleak badaki frantsesez ala bretoieraz ari den. Zeren kasuaren arabera bi morfologia guztiz ezberdin erabiltzen ditu. Marr-ek³⁹ susmoa zuen armenieraren morfologian, zeinaren izaera garbiki indoeuroparra baita, armeniar herrira hizkuntza indoeuropar bat hitz egiten zuten gizon-emakumeak heldu aurretiko biztanlego baten osagaiak aurkituko zituela; baina ez du hipotesi hau baieztatzerik izan eta, bere eskolatik lekora, ez du armenieraren historiaz arduraturik dauden hizkuntzalarietatik bakar bat ere bere usterak makurtu.

Ekialde Urruneko hizkuntzetan bezala morfologiak oso garrantzi gutxi duenean eta esaldia hitz bete eta hitz lagungarrien elkarrean birtartez eratzen denean, errazagoa da hiztunak bi hizkuntzetako prozedurak mailegatzeko. Erraz ulertzekoa da annamdar⁴⁰ batek bere jatorrizko hizkuntzan txineraren ezaugarriak nahasi ahal izatea. Era honetako bi hizkuntzen elkargainkatzea aski erraza da. Eta ez da halabehar hutsa, agian, Ekialde Urrunean zaila izatea hizkuntzen arteko ahaidetasunak ezagutu eta mugatzea.

Izan ere, ez da orain artean hizkuntza bakar bat ere aurkitu, bi hizkuntza ezberdinen morfologiaren nahasketatik sorturiko morfologi sistema duelako hipotesia eskatzen duenik. Gaur arte ikerturiko kasu guztietan, hizkuntza beraren tradizio jarrai bat daukagu; mailegu kopurua gutxi asko handia izan daiteke, eta mailegu hauek hitzak eratzeko modu berriak eragin ditzakete; tradizioa ohiko erakoa izan daiteke —hizkuntza zaharrendik gazteengana igaroa— edo hizkuntza aldaketa baten ondorioa —azkenean bere hizkuntza baztertuko duen gizatalde batek komunikazio-hizkuntza bat ikastea. Baina morfologi sistemari dagokionez tradizioa bakarra da.

³⁹ N. MARR, *Grammatika drevnearmjanskago jazyka*. St. Petersburg. (arg. oh.).

⁴⁰ Vietnamdar adierazteko erabiltzen zen hitz zaharkitua. (arg. oh.).

Alabaina, ezin ukatu da zenbait kasutan benetako «nahasketa»-rik egon ez denik. Egunen batean halakorik aurkituko balitz, hizkuntzalariaren egitekoa zaila izango litzateke. Konparaketaren bidez hizkuntza zenbaiten historia finka badaiteke, sistema berri bakoitza azaltzeko sistema bakar batean oinarritu behar dela ziur gaudelako da. Jatorrian bi sistema bagenitu eta elkarren arteko eraginak aztertu beharko balira, egungo metodoekin ez genuke aski izango. Zeren jatorrizko bi forma sailen artean aukeratzeko legokeen zilegitasunak arbitrariotasuna eragingo luke, eta ezinezkoa gertatuko litzateke inolako frogapenik. Ildo honetan egituko hipotesiak gorabehera, orain arte hizkuntzalariak ez dira, zorionez, halako kasu garbi baten aurrean aurkitu⁴¹. Eragozpen hori egunen batean egia bihurtuko balitz, hizkuntzalariak, onik ateratzeko, metodo berriak, hemen deskribatu ditugunak baino zorrotzagoak, asmatu beharko litzuzke eta saiatu.

⁴¹ Kreolar hizkuntzak izango lirateke, dudarik gabe, egoera horretatik hurbilen leudekenak. Gai eztabaidatsua da benetan eta denetariko iritziak adierazi dira, baina gehientsuen ustetan kreolar hizkuntzak hiruzpalau familiatan banatu ahal izateak —frantses, ingeles, espainol, portugés eta holandes kreolak— aditzera emango luke nahasketa horretan ildo nagusi bat egon badagoela eta sailkapen genetiko bat egin daitekeela. (arg. oh.).

VIII.

Aldaketa formula orokorrak

Bai bere zeregina betetzeko, zeina baita gizarte bateko gizabanakoen artean komunikazio bide izatea, eta baita edozein gizatalderen joera normala bere gizalagunen artean adostasun zehatza ezartzea delako ere, gizatalde bakoitzak hizkuntza bakarra izateko joera du. Hizkuntza berbera darabilten hiztunen ahoskatzeko moduak, morfologiak berak, kidesan hertsia gordetzen du alde askotatik. Gramatizaririk zorrotzenak hauteman eta zehazteko lanak izango lituzkeen formari dagozkion xehetasunak, zentzuaren ñabardurak, belaunaldiz belaunaldi gordetzen dira maiz aldaketa nabaririk izan gabe. Kidesan zehatz hauekin batera, ezberdintasun handiak egon ohi dira zenbait puntutan; baina zatikako ezberdintasun hauek, hain zuzen ere, hizkuntzak funtsezko batasun bat duelako eta talde bereko hiztunek eredu berberekoak direlako ustea dutelako gerta daitezke.

Beraz, aldaketak gauzatzen direnean, talde osoan izan behar dute eragina, zatikatzerik ez eragiteko. Eta, izan ere, argi dago hizkuntz aldaketak hiztunen multzoari dagozkiola. Batasunari esker bizi da hizkuntza; hiztunek, nork bere erara aldatuko balute hizkuntza, honek ezingo luke aurrerantzean bere egitekoa bete. Antzinako usadioei eustea bezala, berrikuntzak ere orokorrak dira, beraz. Orokortasun hau ematen den moduari buruz, ordea, ez dago oraindik datu zehatzik. Hautematen den zerbait da behintzat, berrikuntzak neurri batean orokorrak, eta neurri batean orokortuak direla. Hiztun guztiek batera dituzten baldintzen arabekoak dira, baina finkatzea bera, zalantzarik gabe, hiztunek duten hizkuntza modu bera erabili behar dutelako sentipenari zor

zaio hein handi batean. Gizarteak, maiz, bortizki aurre egiten die banakako berrikuntzei hizkuntzari dagokionez.

Hizkuntz aldaketa ez da oinarritzen banakako berrikuntzen ustekabeko orokortzean, eta honen erakusgarri gertatu ohi dira aldaketa paraleloak, zeinetan hizkuntzalariak antzekotasuna ikusi arren, hiztunak ez baitezake ezberdintasuna baizik antzeman. Erromantzeek kontu honi dagokionez adibide argigarri bat eskaintzen digute. Latinezko antzinako *ō* luzeak eta *ŭ* laburrak, *o* itxia eman dute erromantze gehienetako forma zahar gisa; hala, *nōdum* «korapiloa» eta *gūlam* «mutur, ahoa» hitzetako bokal azentudunek <eu> [ø] bokal berbera eman dute frantsesezko *nœud* eta *gueule*-n (ortografi ezberdintasunak ez du hemen inolako garrantzirik, eta hauteman daitezkeen ñabardurek hitzean kokatuta dauden lekuarekin dute zerikusia); bestalde, antzinako *ē* luzeak eta *ĭ* laburrak, era berean, *e* itxia eman dute: lat. *mē*-k *moi* «ni, neu» eman du frantsesez, eta lat. *bibit*-ek *boit* «edaten du». Bi nahasketa hauek baldintza beren bidez azaltzen dira, eta bi dira nagusienak: alde batetik luze-labur oposaketaren galera, eta bestetik, latin zaharrean bokal luzeak itxiak eta bokal laburrak irekiak izatea: *ō ŭ*-tik hurbil aurkitu da, *ē ĭ*-tik bezala. *ō* eta *ŭ*-ren arteko erlazioa eta *ē* eta *ĭ*-ren artean dagoena berbera da; baina hiztuna ez da gertakari teoriko honetaz jabetzen. Berrikuntzen paralelotasuna baldintza paraleloen eragin komunak eman dezake soilik.

Beraz, berrikuntzak, zenbait hiztunek batera jasoak, batzuen besteen gaineko eraginik gabe, eta elkarren artean paraleloak aldi berean izatea, neurriren batean baldintza orokorren menpe daudelako da.

Hots aldaketak aztertzen eta hizkuntza ezberdinen artean egokitasun arauak finkatzen aritu diren hizkuntzalariek aldaketa hauek zenbait eredu orokorri jarraituz gertatzen direlako susmoa izan dute. Gertakari eredu hauetako zenbait maiz aurki daitezke. Adibidez, gutural izenez eza gutzen diren herskariak —egiatan mihi gainaren eta aho sabaiaren arteko elkar-ukitzea edota hurbiltzeaz bereiziak— «sabaikaritu» egin daitezke *y*, *i* eta *e* bokalak, eta are *e*-ri hurbiltzen zaion *a* bokala⁴² bezalako

⁴² Ahoaren aurreko aldean ahoskatzen den *a*, ingelesezko *man* [mæn] «gizon» hitzean aurki daitekeenaren antzekoa. Galo-erromanikoaren /a/ bokalak halakoa izan behar zuen, kontuan hartzen badugu aurrean zeraman belarean eragindako palatalizazioa (arg. oh.)

osagai sabaikari-aurreen aitzinean; egiazta daitekeen gauza da, kasu horietan, *k* eta *g*, *k'* eta *g'* bihurtzen direla: frantsesezko *qui*-ren *k* eta frantsesezko *cou*-rena bi gauza guztiz ezberdinak dira. Izan ere, *k'* eta *g'* sabaikari-aurre hauek *tš* eta *dž* (*č*, *ž*), edo *ts* (*c*) eta *dz* bilaka daitezke; eta *tš*, *dž* eta *ts*, *dz* hauek, *š*, *ž* eta *s*, *z* soilak. Adibidez, lat. *cinere(m)* ['kinērě(m)], fr. *cendre* ['sādr(ə)] «errautsa» bilakatu da, eta lat. *carbone(m)* [kar'bōnēm], fr. *charbon* [šar'bō] «ikatz». Era honetako bilakae-rak ia edonon aurki daitezke munduan zehar, eta hizkuntz familia guztiz ezberdinetan.

Baina badira formula zorrotzagoak, Grammont-ek⁴³ bere kontsonante arteko disimilazioari buruzko lan oinarritzkoan aditzera eman duen bezala. Hots-egozte talde berean, artikulazio mugimendu berbera errepikatu behar bada, hiztunak errepikatze hori saihesteko joera du.

Joera honek ez ditu fonema guztiak neurri berean ukitzen; artikulazio mugimendu zenbait besteak baino zailagoak eta bakanagoak dira, eta hauexek dira, hain zuzen ere, bata bestetik hurbil bi aldiz errepikatzea saihesteko joerarik handiena dutenak. *l* eta *r* ahoskatzeko mihiak hartu behar duen tankera berezia, eta *n* eta *m*-rako baitezpadakoa den aho sabaiaren beherapena bezalako mugimenduen errepikapena maiz saihesten da.

Nolanahi ere den, molde jakin batean gertatzen da ezeztapena. Esate baterako, antzinako *uenēnu(m)*-ek italieraz *veleno* «pozoia» eman du, hau da, hitzak zituen bi *n*-en artean, batak aho sabaiaren beherapena galdu du, eta horren ondorioz, *l* izatera igaro da, eta bietan lehena izan da aldaketa jasan duena; gertakari bereziek izan dezaketen eragina gorabehera, era horretan kokaturiko bi *n*-en artean lehendabizikoa da, eta ez bigarrena, bere sudurkaritasuna galtzen duena. Baldintza orokor-rak dira, beraz, disimilazioaren nolakotasuna arautzen dutenak, eta baldintza hauek formula modura zehatz daitezke. Grammont izan da goitik behera finkatu dituen.

Honek laguntzen digu, askotan eta askotan, berrikuntza bat nola gertatu den hautematen. Jakina da, esaterako, azentua hitzaren erdigunea

⁴³ M. GRAMMONT. *Traité de phonétique*. Paris 1933, Delagrave. [Eskuliburu honetan aurretik idatzitako lanak biltzen ditu]; M. GRAMMONT. *La dissimilation consonantique dans les langues indo-européennes*. Dijon 1895, Darantière (arg. oh.).

den hizkuntzetan, tratamendu ezberdina jasotzen dutela silaba azentudunetako bokalek eta silaba azentugabetakoek. Bestalde, bokal azentugabeen bi aldaketa modu ezberdin hautematen ditugu.

Zenbait hizkuntzatan, bokal azentugabeek, aldi berean beren luze-laburraren zati bat eta berezkoa duten tinbrearen gehiena galtzeko joera dute: sarri tinbre gutxi-asko neutro bat baizik ez izatera igarotzen dira, hala nola, alemanezko silaba azentugabeetako *e*-aren gisakoa; *e* honen oinarrian, kasuen arabera, edozein tinbretako bokal zahar bat egon daiteke. Gaur egun aldaketa bera hautematen da errusieraz: bokal azentugabeak gero eta zehaztugabeagoak bilakatzen dira; berezko tinbrea gero eta ahulagoa dute, bokal azentudunak garbiki ahoskatzen diren bitartean.

Beste hizkuntza batzuetan, ordea, bokal azentugabeak beren irekitasun mailaren arabera aldatzen dira: *e* eta *o* *i* eta *u* bihurtzen dira; eta *i* eta *u* galdu egiten dira besterik gabe; hori da iparraldeko hizkera greko modernoetan gertatu dena.

Izan ere, alemanez, ingelesez edota errusieraz, silaba azentudunak bortitzak dira batez ere, eta azentugabeak baino askoz bortitzagoak; greziera modernoz, aldiz, silaba azentudunetako bokalak bereizten dituen beren luze-laburra da batik bat: azentugabeak baino luzeagoak dira. Bokal azentugabeek berezkoa duten tinbrea galtzeko joera badute, beraz, bokal azentudunek intentsitate handiagoa dutelako gertatzen da; bokal azentugabeak ixteko joera badute, *e* eta *o*, *i* eta *u* bihurtuz, bokal azentudunak luzeagoak direlako gertatzen da: *i* eta *u* berez *e* eta *o* baino laburragoak direlarik, ezin dira gehiago laburtu desagertuz baizik.

Beraz, iparraldeko grezieraren moduko gertakariak aurkitzen diren lekuan, badago arrazoirik luze-labur oposaketak tartean dabiltzala uste izateko. Esate baterako, ezin daiteke armenierazko azentuak ingelesaren, alemanaren edota errusiera modernoaren azentuaren antzeko intentsitaterik duenik uste izan: egungo armenierak intentsitate gutxiko azentua du; hala bada, *i* eta *u* azentugabeak armeniera zaharrean galdu egin badira *a*, *e* eta *o* azentugabeak mantentzen ziren bitartean, zalan-tzarik gabe, ipar-grezieraz bezala, bokal azentudunak azentugabeak baino askoz luzeagoak zirelako da. Era berean, ez dago inolako arrazoirik pentsatzeko jatorrizko erromantzeak (latin arrunt deituak) azentu oso intentsorik izan duenik, eta jakina da gaur egungo frantsesaren azentuak oso intentsitate ahula duela: arbitrarioa da, beraz, uste izatea, bere

historiaren uneren batean frantsesak alemanaren edo errusieraren eredu-ko azenturik izan duenik; era horretako azentu ahul batek ezingo litzuke eragin latinetik frantseserako iraganbidean aurkitzen diren bokal murrizketa handiak: *camera chambre* «ganbara, gela» bilakatu bada, ez da *ca me* eta *ra* baino askoz indar gehiagoz azentuatuta zegoelako. Bilakaera hori, aitzitik, ipar-grezieraren eredu-koa da; eta, izan ere, eragin gutxiago du *a* bokalik irekienean, beste bokaletan baino: *nouu(m)*-ek *neuf* «berri» (m.) eman du, eta *noua(m)*-ek, berriz, *neuve* «berri» (fem.); lehen testu frantsesak baino lehenagotik *nouu(m)*-eko *u*-a galdua zen, *noua(m)*-eko *a*, *e* mutu deitua bihurtzen zen bitartean; eta frantsesaren historian zehar bakarrik, eta nahiko berandu gainera, utzi zaio *neuve*-ren *e*-a ahoskatzeari.

Aldaketa fonetikoak gertatzeko izan diren baldintza orokorren ikerketa hastapenetan dago oraindik. Baina gertakari ziur asko ditugu dagoeneko. Esaterako, kontsonante itsatsi bat, hau da, beste kontsonante baten ondotik doana, bortitzagoa da, hots, iraunkorragoa, bokal artean kokaturiko kontsonante bat baino; *dōtāre*-ren bokal arteko *-t*-a desagertu egin da fr. *douer*-en «dohaindu, dohatu»; baina *-k*-ren ondoren doan *lactūca*-ko *-t*-ak hor jarraitzen du fr. *laitue*-n «letxuga, urraza». Hizkuntzalariek badute, egiaztapen hauetan, zertan oinarriturik.

Hala ere, oraindik ezin dira kasu guztietan formula zehatzak aurkitu. Fonema zenbaiti dagozkien baldintzak, bederen, beti aztertu behar dira. Adibidez, *y*-ak, kontsonante itsatsien erara jokatu beharrean, aurretik daraman kontsonantearen ahoskeraz bat egiteko joera du, bere izaera galtzen duelarik beste kontsonantea erabat aldatuz. Baina idatzi ahalko litzateke —Schleicher⁴⁴ saiatu da horretan, goizegi bada ere— azterlan orokor bat *y*-aren eta aurrean daramatzan kontsonanteen arteko konbinaketez eta bertatik sortzen diren fenomeno ugariez.

Badira kasu korapilotsuak: *-mn-* bezalako bokal arteko kontsonante taldeek portaera ezberdinak izan ditzakete. Italieraz, *-n*-ak, kontsonante itsatsia balitz bezala jokatzen du, eta *somnu(m)*-ek *sonno* eman du; frantsesez, berriz, *-mn-*ak ez tandari osorik dagokion talde bat osatzen du, eta *m*-a da nagusi, nondik dugun *somme*; gaztelaniaz, azkenik, fonema

⁴⁴ Bustidurari buruz, orokorrean fenomenoak erakusten dituen ezaugarriak eta bazez ere euskal fonologian ematen diren gertakizunak ezagutu nahi dituenak irakur beza: M. L. OÑEDERRA, *Euskal fonologia: palatalizazioa*, Bilbao 1990, UPV-EHU.

konplexu bat dugu, eta bere ondorena *sueño* da, non ez baita zehazki ez *m*-rik eta ez *n*-rik aurkitzen. Alfer lana izango litzateke jokaera hauek formula bakar batez azaltzen saiatzea. Formulak finkatzea ez da ezinezkoa: formulak ez zaizkio ezartzen hasierako une baten eta hurbilago edo urrunago egon daitezkeen ondorio ezberdinen arteko bilakaera osoari. Fonetika orokor bilakatzailearen formulak banakako aldaketa bakoitza gertatu den uneari bakarrik ezartzen zaizkio. *Somnu(m)*-ek *sonno* eman badu italieraz, horrek adierazten du asimilazioa gertatu den unean, *-mn*-ek bi kontsonante ezberdinez osaturiko talde bat zela, non *-n*-ak kontsonante itsatsi gisa jokatzeko baitzuen. *Somnu(m)*-ek frantsesez *somme* eman badu, horrek adierazten du aldaketaren unean, *-mn*-hertsiki bateratua zegoela eta *-n*-ak bere autonomia galdua zuela. Hemendik ateratzen den ondorioa da, *-mn*-bezalako talde batean, *-n*-sudurkariak bere kontsonante-itsatsi izaera gal dezakeela, eta hau *m* eta *n* sudurkarien izaera bereziarekin lotuta dago.

Azken batean —eta hau da ezaugarriarik oinarrizkoena—, fonetika orokor bilakatzailearen formulak izankizunak ematen dituzte aditzera, eta ez beharkizunak. Bokal artean dagoen kontsonante bat aldakizun dela finka daiteke; baina horrek ez dakar berekin nahitaez aldatuko denik. Bokal artean dagoen *-k*-bat *x* espirante gutural bilaka daiteke (alemanezko *ch*, edo gaztelaniazko *j*), edo *g* herskari ahostun; eta *x* eta *g*-ak gero beste aldaketa batzuk jasan ditzakete bokal artean ego-teagatik; esaterako, erromantzezko *k* batek *i* eman du frantsesez, *oie* «antzara» (egun *wa* ahoskatua) eman duen *auca*-ren kasuan bezala⁴⁵; baina bokal arteko *k* indoeuropar bat gorde egin da eslavieraz alde guztietan, eta egun polonieraz *piekę*-en («egosten dut») ahoskatzen den *k* indoeuropeeraz geroztik dago lehen pertsona honetan (fr. *cuis*-eko *i*-a osagai berberaren ordaina da, hurrenez hurren eman diren aldakuntza ugarien ondoren⁴⁶).

Morfologi kontuetan, gauzak ez dira fonetika kontuetan bezain zorrotzak. Morfologia iraupenaren eremua da.

⁴⁵ Fr. zah. *oe* < *auca*, *auga*. Erd. fr. *oue*. Dialekto batzuetan, *oe* > *oie*. Ez datoz beraz *k* erromaniko batetik. Cf. Lausberg §244, Pierre FOUCHÉ, *Phonétique historique du français* III. Paris 1966², p. 614 (arg. oh.).

⁴⁶ Lat. *coquis* [kok^wis] > **kokis* > **kogis* > **koyis* > *cuis* (arg. oh.).

Gizarte jakin bateko gizon-emakumeen pentsamoldeak azaltzen duen gramatika kategorია batek luzaro irauten du pentsamolde hau desagertu eta gero ere. Naturako fenomenoen eta gertakizunen atzean barne-indarrak ikusten dituzten gizon-emakumeek, bizidun eta bizigabetan sailka ditzakete adigaiak, eta bizidunen artean sistematikoki bereizi arra dena edota arraren kide dena, eta emea dena edota emearen kide dena. Ulertzen da orduan nola fruituak ematen dituen zuhaitza femeninoan izenda daitekeen eta fruitua bera «neutroan» (genero bizigabetekoan); baina K.o. i. mendeko Erroman ez zegoen jadanik halako pentsamolderik, eta *pirus* (fem.) «udareondo» eta *pirum* (n.) «udare»-ren arteko oposaketa haren hondakin bat besterik ez zen. Egungo frantsesean harrigarria izango litzateke *la ciel* «zerua» (fem.) edota *le terre* «lurra» (m.) esatea; baina inork ez luke jakingo zergatik, gaur egungo frantses baten ikuspegian; mendetan iraun duen tradizio baten arabera bakarrik oposatzen dira izenak era horretan.

Adierazi sendoa eta erabilera zabala izan duen kategoría batek bere adierazia, eta neurri handi batean erabilera ere, galtzeko joera izaten du. Latinezko aditzean, «subjuntiboa» ezinbesteko osagaia zen, eta subjuntiboaren egitekoa nagusi zen latinaren syntaxian. Baina subjuntiboaren egitekoa etengabe urrituz joan da erromantze komunaren garaiaz gero. Gaur egun, frantsesez, subjuntiboa agintezko formetan dauden hutsuneak betetzeko erabiltzen da: *viens* eta *venez*-en aldamenean, *qu'il vienne*, *qu'ils viennent* dugu⁴⁷. Eta badira esapideak non subjuntiboa oraindik ere baitezpadakoa den: *je veux qu'il vienne* «etor dadin nahi dut», *il faut qu'il vienne* «etorri behar du». Baina egungo frantsesak ez du jadanik gordetzen subjuntiboaren balioaren zentzua. Horren ondorioz, hizkera herrikoian gero eta gehiago murrizten da bere erabilera: literatur frantsesean *je doute qu'il vienne* «duda egiten dut etorriko ote den» aurki daiteke; baina frantses arruntean, *je doute s'il viendra* esateko joera dago. *S'il fait cela et qu'il dise ce qu'il pense, il aura tort* «hau egiten badu eta pentsatzen duena badio, oker ibiliko da» bezalako esapide bat zaharkitutzat jotzen da egun.

Salbuespen hau gorabehera, morfologia, fonetika bezala, formula orokor batzuen arabera aldatzen da. Hizkuntza indoeuroparren bilakae-rako gertakari oinarrizko batek eskainiko digu adibidea.

⁴⁷ Berdin gertatzen da espainolez ere: *ven, venid / que venga, que vengan* (arg. oh.).

Indoeuropea komunean, izena eta aditza, biak forma jokatuak ziren. Ez zegoen izen forma bat, subjektuarena adibidez, zeinetik besteak eratorri behar ziren: izen bat, bata bestea baino nagusiago ez ziren kasu forma multzo batek osatzen zuen; latinez ez dago *otso* hitz bat, baizik eta *lupus*, *lupe*, *lupum*, *lupī*, *lupō* multzo bat, eta bost forma hauen arteko bakar batek ere ez du balio besteak eratzeko, ez eta *lupī*, *lupīs*⁴⁸, *lupōrum*, *lupīs*, plurala eratzeko ere; ez dago «gizon»-aren izen bat, *homō*, *hominem*, *hominis*, *hominī*, *homine* multzo bat baizik; eta halaxe beti. Era berean, ez dago bata bestea baino nagusiago den «joan»-en forma bat, baizik eta *eō*, *īs*, *it*, eta *ībam*, *ībō*, *eam*, *īrem*, etab.

Alabaina, hizkuntza indoeuoparren bilakaeran zehar, izen formak, lehentxeago edo geroxeago, baina alde guztietan, beren jokoa murrizteko joera izan dute: indo-iranieraren forma zaharrez lekora, inongo hizkuntza indoeuoparrek ez ditu osorik deklinabidearen forma guztiak. Eta, denboraren poderioz, deklinabidea desagertu egin da hizkuntza asko eta askotan, hala nola erromantzeetan, ingelesean eta persieran: edo subjektu-kasuaren forma nagusitu da, hala nola eslavieran, edo beste formen abiapuntu gertatu da, hala nola armenieran. Hizkuntza hauek guztiek, aldiz, aditz jokoa gorde dute, eta indoeuoperarena bezain aberatsa ez bada ere, bada, behintzat era askotakoa, korapilotsua eta forma ugariz hornitua. Oraindik ere forma ezberdinez zamatua dagoen aditz frantsesaren eta aldaezina den izen frantsesaren arteko konparaketa adierazgarria da.

Eta ez da ustekabe bat: semitiko komunak, hondarki edo desinentzien bidez bereizten ziren hiru kasuko izen jokoa zuen; akadiera zaharrenak (babilonioak) eta arabiera klasikoak bakarrik aditzera ematen dute; akadiera berriak eta arabiera modernoak guztiz baztertu dute; aitzitik, aditz semitikoak non-nahi, baita arameera bezain garatua den hizkuntza batean ere, formetan aberatsa den joko bat dauka. Eta, oro har, sarritan hautematen da izen jokorik ezaren eta aditz jokoaren aberastasunaren arteko kontraste hau.

Hau, izenaren eta aditzaren izaerek berezkoa duten zerbait da. Izenak, izaera iraunkorra duen adigai bat adierazten du: gauza bat, pertsona bat edo nolakotasun bat; aditzak bilakabide bat adierazten du, nahiz

⁴⁸ Akusatibozko forma beharko genuke hemen, hau da: *lupōs* (arg. oh.).

ekintza bat zentzu hertsian dela, nahiz egoera bat: «jaten du, lo egiten du», etab. Adigai iraunkor bat adierazten duelako, hain zuzen ere, izenak forma bakar bat dauka, forma nagusi bat gehienez ere, zeinetik ateratzen baitira gainerakoak. Aditzak, aldiz, bilakabide bat adierazten duenez, forma pertsonalak eta hizkuntzen arabera ezberdinak baina ugariak izan daitezkeen ñabardura adierazpenak dauzka. Izen eta aditz formak joera bereizgarrien menpe egotea beraz, gauzen izaeraren ondorio bat da⁴⁹.

Fonetikaz ari izan, edota morfologiaz, bilakaeraren formula orokorrrak gizon-emakume guztiek edo gutxienez zibilizazio mota oso batek batera dituzten baldintzek azaltzen dituzte.

⁴⁹ Izena eta aditzaren arteko ezberdintasun zehatza ez da hizkuntza guztietan ematen Meilletek aditzera ematen duen orokortasun eta garbitasunarekin. Esate baterako ingeles zaharrean aurkitzen dugun ezberdintasuna —hizkuntza indoeuropar zahar guztietan aurkitzen dugunaren parekoa— asko ahuldu da gaur egungo ingelesean, non sintaxiak erakusten duen askotan hitz baten kategoria eta ez morfologiak (arg. oh.).

IX.

Berrikuntza espezifikoak

Gizon-emakume guztiek edo zibilizazio mota oso batek batera dituzten baldintzen emaitza, batasuna mantentzea da. Baina badira halako gizatalde, halako garai, halako eskualdeari dagozkien baldintzak ere. Baldintza berezi hauen ondorioz, hizkuntza bakar bat dena, denboraren poderioz hizkera ezberdinetan bereizten da.

Joera berezi berririk ez dagoen bitartean, hizkuntz sistema ez da funtsean aldatzen. Aldatzeko joera orokorrek bultzatzen dituzten erabe-ritzeek ez dute ia inoiz fonema berririk sorrarazten. Esate baterako, disimilazioaren eraginez fonema batek bere osagaietako bat galtzen duenean, hizkuntzak ez du disimilazio horren ondorio huts eta soilez agertzen den fonema bakan hori gordetzen. Antzinako *veneno*-n, bi *n*-etatik lehendabizikoak aho sabaiaren beherapena galtzen badu, horren emaitza ez da, espero genezakeen bezala, sudurkaritasunik gabeko herskari guztiz ahul bat; fonema hau, zeinaren ebakera ez bailitzateke markatuegia izango, berehala izan da ordezkatua hizkuntzak zuen mota beretsuko fonema batez, eta *veleno* dugu; *n* sudurkarigabeak alegiazko izaera baino ez du izan. Aldaketa behin burutuz gero, hizkuntzak *l* bat du hitz berri batean, baina ez soinu mota berri bat.

Sarritan hautematen dira era honetako gertakariak. Berriki xamar, frantsesak, txit fonema usua zen *l* sabaikaria galdu du; ebakeraren sinplifikazio hutsa izan da, eta ez da tartean egon artikulazio sistemaren aldaketa nabarmenik eragin zezakeen gertakari larririk. Era berean, *l* sabaikariaren ezabaketaren ondorioz ez da fonema berririk sortu: *l* sa-

baikaria *y*-n sinplifikatu da, hau da, *miel* «eztia» eta *pied* «oina», eta *yeux* «begiak» eta *aïeux* «asabak» bezalako hitzetan eskuarki aurkitzen zen fonema batean. Berrikuntzaren ondoren, frantsesak, lehen baino askoz ere *y* gehiago du; baina hots sistema ez da aldatu.

Antzinako **sw-* eta **tw-*ek, *k^c* (*k* hasperenduna) eman dute armenieraz. Honek *w* kontsonanteak ezabatu ditu; baina era horretan sorturiko *k*, armenieraz jadanik bazegoen beste jatorri bateko *k* berbera da, *k^can* «baino» edota *lk^canem* «uzten dut» bezalako hitzetan dugun bera.

Morfologian, analogiaren joko hutsak jadanik dauden kategorien erabilera ugaltzen du, berririk sortu gabe. Frantsesez *dites* «esaten duzue», *faites* «egiten duzue»-ren ordeztuz *disez*, *faisez* esaten bada, hizkuntzak ez du ezer berririk; zeren *lisez* «irakurtzen duzue», *taisez* «isilik zaudete», etab. esaten baitira. Grezieraz ἔθηκα [éthēka] «ipini nuen», ἔθεμεν [éthemen] «ipini genuen»-en erara ἔστηκα [héstēka] «zutik nengoen» egiten bada, ἔσταμεν [hestamen] «zutik geunden»-en aldamenean, perfektuaren eraketa errazteko baino ez da izan; jatorriz bi edo hiru formatan soilik aurkitzen zen baliabide baten erabilera arras zabaldu da; baina ez da inola ere izan baliabide berri baten edota kategoria berri baten bidez.

Alabaina, esperientziak erakusten du baliabide berriak sortzen direla, bai fonikoak eta bai morfologikoak. Hizkuntza indoeuropar guztietan hautematen dira ordura arte ezezagunak ziren fonemak, gramatika-forma berriak eta are kategoria berriak tartean sartuz hizkuntza eraldatu duten berrikuntzak. Badira beraz berrikuntza espezifikoak, inolako joera orokorrekin lot ez daitezkeenak.

Indoeuropeerak indarrez ahoskaturiko herskari ahoskabeak zituen, zeinen eztagandaren ondoren ez baitzegoen inolako hasperenik, halako eran non bokalen dardara eztaganda gertatu bezain laster hasten baitzen: erromantzeetan, baltikoan, eslavieran eta iranieran, adibidez, aurkitzen diren *p*, *t*, *k* ahoskabeen erakoak dira. Baziren ahulkiago ahoskatzen ziren eta inplosioa gertatzen zen une beretik laringearen dardarak lagun egiten ziren herskari ahostunak ere: halakoak dira hizkuntza berberetako *b*, *d*, *g*-ak. Armenieraz, germanikoz eta baita zeltikoz ere (azken honetan ez hain hertsiki), beste eredu batzuek ordezkatu dituzte honako hauek: *p*, *t* eta *k*-ren ebakera ahuldu egin da, eta hasperen bat tartekatu da eztagandaren eta bokalaren ezaugarri diren laringearen dardararen ha-

sieraren artean; *b*, *d* eta *g*-ri dagokienez, laringearen dardara ez da hasten inplosioaren une berean, eta era horretan ahoskaturiko *b*, *d* eta *g* ahoskabe motakoei hurbildu zaizkie (frantsesez era honetako *b*, *d*, *g*-k, *p*, *t*, *k* gaizki zertuak dirudite). Beraz, herskarien ebakera sistema zeharo aldatu da. Sistema berria, zaharra baino aldakorragoa zen; eta indoeuroperaren ereduari leial egon zitzaizkion hizkuntzek oraindik, batez ere hitz hasieran edota itsatsirik (kontsonante ondoren) zihoazenean, indoeuroperaren egoera berberari eusten zioten bitartean, besteetan berrikuntza xehe asko gertatu ziren, sarri paralelotasuna eragozten zutelarik —hala, armenierak eta zeltikoak hitz hasierako *p* zaharra galdu zuten. Litekeena da ebakera ereduaren aldaketa handi hau bat-batean gertatu izatea, indoeuropera gizatalde berrietara zabaldu zenean.

Baina badira beste zenbait aldaketa espezifikoko, hizkuntz aldaketaren ondoren gertatzen direnak, sarritan askoz ere beranduago, eta apurka-apurka agitzen direnak, heredentziaz jasoriko joeren kariaz zalantzarik gabe. Esate baterako, hizkuntza germanikoetan, bokal bat ahoskatzen den unean bertan prestatzen da hurrengo silabako bokalaren ahoskera; honek ondorio garrantzitsuak izan ditu. Bokal indoeuroparretako bakoi-tza edo garbiki sabaikari-aurrekoa, edo garbiki sabaikari-ondokoa zen; germanikoak, aldiz, *a* edo *o* ahoskatzen ari den unean, adibidez, *i* bat edo *y* bat prestatzeko joera dela eta, bokal mistoak sortu ditu, frantsesezko *eu* [ø]eta *ü*-ren erakoak. Bokal hauek guztiz ezberdinak dira hizkuntza germaniko batetik bestera, hizkera germaniko batetik bestera. Horren ondorioz zailtasun handiak etorri dira, batez ere ingeles zaharrean eta hizkera nordikoetan. Berrikuntza hauek, neurri handi batean, hizkuntza hauen histori garaia baino lehentxeago burutu dira, edo are histori garaian bertan. Baina aspaldi hasiak ziren. Hemen ere, germanikoaren berrikuntza espezifikoko bat dugu, eta berrikuntza honek bokal sistema osoa ukitzen du, arras eraberritzen duelarik.

Joera berberari zor zaizkion berrikuntzak oso garai ezberdinetan burutu daitezke. Grezieraz, adibidez, *i* eta *u* bokalei dagozkien kontsonante formak, *y* eta *w* alegia, desagertu egin dira. Alabaina, *y* histori garaia baino askoz lehenagotik ezezaguna zen hizkera greko guztietan eta, alfabeto feniziarra mailegatu zenetik jod-aren zeinua *i* bokala adierazteko soilik erabiltzen zen, aitzitik, *w*-ak (grezieraz «digamma» deituak) luza-ro iraun zuen histori garaian; hizkera askotako zenbait testutan oraindik antzinako *w* guztiak aurkitzen dira; beste batzuek, hasierako *w*-a gorde-

tzen badute ere, jadanik galdua dute bokal arteko *w*-a; atikeraren zenbait berezitasunek adierazten dute, histori garaia baino lehenago *w* bat izan dela. *w*-aren ezabaketa ez da, beraz, *y*-aren ezabaketa baino askoz geroago arte gertatu. Alabaina, bi gertakariak oinarrizko joera beraren ondorio dira; nolana ere, hizkuntzak aldaketa honi zor dio, neurri handi batean, indoeuropea eta grezieraren artean nabaritzen den itxura ezberdintasuna.

Batzuetan, banakako gertakariak joera baten batasuna estaltzen dute. Esate baterako, erromantzez *y* eta *w* zaharrek hitz hasieran, latinez *i* eta *u* kontsonanteek zutena baino kontsonante zantzu handiagoa hartzeko joera izan dute. *i* kontsonantea *dž* bihurtu da, nondik fr. *j* [ž]; adibidez, *iam*-etik, italieraz *già* [dža] dugu, eta frantsesez *ja-* [ža-] (*jamais*-en). *u* kontsonantea ere kontsonanteagotu egin da; baina latinak, dagoeneko, bazuen *f* ezpain-horzkaria; horri zegokion ahostuna, *v*-a, falta zen; *u*-ren kontsonante formak bete du hots sisteman zegoen lauki huts hau. Nolana ere, *f* eta *v* kontsonante egonkor direnez, espirante hauek mantendu dira. *i* kontsonantea eta *u* kontsonantea ez dira paraleloki tratatu. — Hitz barruan, bokal artean, latinak histori garaia baino askoz lehenago galdua zuen *i* kontsonantea, *u* kontsonanteak bizirik zirauen bitartean; barneko *u* kontsonanteak ahoskera espirantea jaso du, *v* alegia.

Morfologiari dagokionez, badira, era berean, joera espezifikoak, eta horren ondorioz, galerak eta berrikuntzak aldi berean.

Hizkuntza indoeuropar askok gramatika genero bereizkuntza galdu dute. Bereizkuntza hau, zalantzarik gabe, mendeak dira gizon zibilizatuaren pentsamoldean ezeri ez dagokiola. Baina bizirik dirau erromantzeetan, alemanieraz, eslavieraz, etab., non balio semantikorik ez izan arren ere, garrantzi handia baitu gramatika prozeduretan. Egiatan, ez dirudi arrazoi gehiago zegoenik armenieraz desagertzeko —izen jokoan mantentzen baita *-o-* enborra eta *-ō-* enborra duten hitzen arteko bereizketa— alemanez baino, adibidez. Alabaina, armenierak ez du horren arrastorik ere. Hemen badago, egiaz, joera espezifiko bat; zeren auzo duen mendebaldeko iranieran ere ezabatu egin da genero bereizkuntza. Eta ez da ustekabez gertatzen, ez elamitak ez eta hegoaldeko kaukasiakoak, haren auzoak, genero bereizketarik ez izatea. Substratuaren eragina, gramatika kategoria baten ezabaketan nabarmentzen da aldi honetan.

Bere izen jokoaren aberastasuna gorabehera, leto-lituanierak maskulinoa eta neutroaren arteko bereizkuntza galdu du, maskulinoa eta neutroa adierazten zituzten formek nabarmenki ezberdinak izaten jarraitzen zuten bitartean. Lat. *-us* eta *-um*-i lituanieraz zegozkien *-as* eta *-ą* hitz bukaerak garbiak ziren. Baina, leto-lituanieraren garaiaz gero maskulinoa eta neutroaren arteko bereizkuntza —XIV. mende bukaeran prusiera zaharrean oraindik gordetzen zena⁵⁰— desagertu egin da. Badago hemen joera espezifikoa bat, eta hizkuntza suomiarrak eta leto-lituanierak hitz egiten zituzten jendakien arteko nahasketei egotz dakieke.

Galerak baino nabarmenagoak dira berrikuntzak. Indoeuroperaz, aditz temek «aspektua» adierazten zuten: ohiturazkoa (orainaldia), jarduera soila (aoristoa), jarduera amaitua (perfektoa), amaitzera doan jarduera (aspektu mugatua), etab. Ez zuten inoiz denbora adierazten. Gerroak ez zuen adierazpen berezirik. Oraina eta iraganaren arteko bereizketa, beste erabilera batzuetarako ere erabiltzen ziren hondarkien bidez adierazten zen, edo gehiketa edo aumentoaren bidez, hots, hitz lagungarri baten bidez; azken hau dialekto talde batean bakarrik aurki daiteke: indo-iraniar, armeniar eta grekoan. Zeltikoak eta italikoak, berri, nasaiki hedatu dute denboraren adierazpena aditz temen bidez, eta zeltikoaren edo italikoaren aditz jokoan denbora osagai nagusi bilakatu da. Ez dago hori baino gauza espezifikoagorik. Zeltikoa eta italikoa ez dira horregatik hizkuntza mistoak; zeren denbora, zeltikoan eta italikoan, osko-unbroan eta latinean, eta are oskoan eta unbroan ezberdinak diren prozedura berrien bidez adierazten da.

Indoeuroperan ia alde guztietan, kasu formek harreman konkrituak adierazteko gaitasuna galtzen dute: norbait non dagoen edo nora doan aditzera emateko preposizioak eranstean zaizkie kasuei, preposizioek kasu formak erabat baztertu bitartean. Alabaina, lituanierak lokatibo oso berezi eta berez aski den bat gordetzeaz gainera, akusatibotik guztiz ezberdina den ilatibo bat eratu du. Egia da lokatiboa eta ilatiboa atzizkidunak direla; alabaina, lituanieraren ikuspegitik, kasu hauen formak kasu forma hutsak dira. Oraingoan ere suomiar ereduarekin bat dator era harrigarri batean. Hala eta guztiz ere, ez da suomieraren gramatika forma bakar bat ere sartu lituanieran, ez letonieran ere.

⁵⁰ Prusiera zaharrak, letoniera eta lituanierarekin batera, hizkuntza baltikoen indoeuropar azpimultzo edo adarra osatzen du (arg. oh.).

Hizkuntzen bilakaera ulertzeko, garrantzitsua da joera espezifikoan eta formula orokorren arteko oposaketa markatzea. Berrikuntzek eta mantentzeek bestela izango ez luketen balio adierazgarri bat hartzen dute horrela.

Esan gabe doa ez dela nahikoa berrikuntza bereziaz jabetzea hizkuntza moldatu berri bat zein «substratu»-ren arabera aldatu den finkatzeko, ezta substratu arrotz bat egon dela esatea zilegiztatzeko. Baina era horretan badugu auzia bideratzeko modurik, eta baita honen irtenbidea aurkitzeko lehenengo aurrerapausua ere.

«Substratu»-az zernahi uste izanik ere, behar-beharrezkoa da, edozein kasutan, aldaketa normalak eta hizkuntza bati bere zernolakotasuna ematen dioten aldaketak bereiztea. Bilakaeraren epe luzeak ikertzen direnean, ia beti agertzen dira berrikuntza espezifikoak.

X.

Xehetasun gehiagoren beharra

Orain artean aipatutako ondorioak eredu ezberdinei dagozkie. Bartzuek historiazko gertakariekin dute zerikusia: italiara, gaztelania, portugesa, frantsesa, errumaniera, latinak hartu dituen itxura ezberdinak dira. Besteek izankizun orokorrak adierazten dituzte: bokal artean kokaturiko kontsonante batek, hitz hasierakoak edota aurrean duen beste kontsonante bati itsatsirik dagoenak inoiz izango ez lituzkeen aldaketak jasan ditzake. Baina bietan frogabidea berbera da. Esango da, bada: italiara, gaztelania, etabarren arteko antzekotasunak halakoak dira, non halabeharra alde bat uzten baitute; bokal arteko kontsonanteen eta hitz hasierakoen edo kontsonante itsatsien arteko tratamendu ezberdintasunak halakoak dira, non halabeharra alde bat uzten baitute. Metodoaren arazoa, beraz, halabeharraren balioespenean datza: hizkuntzalariak, botatako dadoek sarritan alde bera erakusten dutela ikusirik, trukatuta daudela erabakitzen du. Baina zenbat kidetasun eta nolakoak aurkitu behar dira, aurkikuntza halabeharrezkoa ez dela bete-betean sinisteko?

Ez dator hemen ezertara probabilitate kalkulua. Zeren kidetasunak ez dira era berekoak ezta balio berekoak ere. Probabilitate kalkulua, nolakotasunean berdinak diren eta neurri beraren arabera neur daitezkeen gertakariei bakarrik ezartzen zaie onuraz. Eta hizkuntz gertakariak ez dira halakoak.

Nolakotasunaren eta xehetasun berezien balioa kasuz kasu erabaki behar horrexegatik beragatik, hizkuntzalariaren trebetasun, zuhurtasun eta zentzu onari zorko zaie gertakariei ahalik eta etekin handien eta zu-

zenena ateratzea. Hizkuntzalari guztiek ez dituzte gauzak era berean ulertzen. Hots aldaketetarako sena duenak, ez du agian ongi azalduko zein jokabide duten hitzunek hitz jakin baten aurrean; gramatika formen bilakaera ongi ulertzen laguntzen duten dohain eta ezagutzak ez dira «herri etimologia»-ren ekintza apetatsuak sumatzeko erabiltzen diren berak. «Pertsonaren araberako koefiziente» hau da hizkuntzalarien arteko ezberdintasun askoren arrazoia. Eta badira inongo parekazioren balio zehatzaz jabetzeko gai ez diren izpiritu motelak ere. Alabaina, aritzearen poderioz eta ongi finkaturiko gertakari sailak aztertuz, eskarmentu bat lortzen da, zeinari esker zuzenki epai baitaitezke konparaturiko gertakari mota ezberdinak. Hona hemen parekazio labain zenbaiten adibideak, saioaren zailtasunak agerian utziko dituztenak.

Badakigu britonikoz zein gaelikoz bokal arteko kontsonanteak hitz hasierakoak ez bezala tratatzen direla. Badirudi hor joera komun bat dagoela, zeren bi taldeetan, bokal arteko tratamendua ezartzen baitzaie esaldiaren barnean aurreko hitzari hertsiki loturik dauden hitzen hasierako kontsonanteei ere. Baina emaitza ezberdina da talde batetik bestera: gaelikoz, bokal arteko herskari ahoskabeak espirante ahoskabe bihurtzen dira: *t*-ek *p* ematen du eta *k*-ak *x*; britonikoz, aldiz, herskari hauek ahostun bilakatzen dira: *t*-ek *d* ematen du eta *k*-ak *g*. Aldaketa honek ez du eraginik bakunak baino bortizkiago ebakitzen diren ahostun geminatueta. — Gaelikozko ahoskabeen eta britonikozko ahoskabeen tratamendu ezberdinek bi hizkuntza hauen ezaugarriekin izan behar dute zerikusirik; zeren, gaelikoz, berez ahostun diren zenbait kontsonantek ahoskabe bihurtzeko joera dute, eta hau ez da britonikoz gertatzen. Gaelikoz, hasierako *w*-ek *f* ematen du; britonikoz, berriz, *g*; gaelikoz, hasierako *y*-k *h* ematen du, gerora galdu egin dena; britonikoz, ordea, *y* behintzat mantendu egin da. — Hizkuntzalaria batetortze honetaz jabetzen da. Hots aldaketen tankerak batik bat hizkuntzaren hots egiturarekin duela zerikusia onartzen duenak adierazgarritzat joko du batetortze hau. Baina, agian, ez lukete guztiek ondorio hau ontzat emango.

Banakako gertakarien kidetasunek, zenbat eta gutxiago erantzuten dieten joera orokorrei, hainbat eta balio frogatzaile handiagoa dute. Hizkuntza italikoak eta zeltikoak, hizkuntza komun beretik (jatorri indoeuroparra duen batetik) datozela finkatu ahal izateko, badira zenbait batetortze. Bitxienetako bat da, «bost» zenbaki izenaren forma zaharrak,

**penk^we*-ek (sanskritoz *pāñca*, grezieraz πέντε [pénte]), italo-zeltikoz **k^wenk^we* eman duela, irlandera-*cóic*-en eta latinezko *quīnque*-n ikus daitekeen bezala. Zaila da kidetasun honen balio frogatzailea finkatzea. Jakina da gertakari hau ez dagokiola zenbaki izen honi bakarrik; berbera aurki daiteke italikoz eta zeltikoz *p* eta *k^w* segidako bi silabetan doazen guztietan. — Agerian dago berrikuntza hau ez dela italo-zeltikoaren joera espezifiko baten ondorio. Era honetako asimilazioak, bi silaba jarraien arteko asimilazioari (protolituaniarazko **sešuras* lituanierazko *šėšuras* «aitaginarreba» bilakatuaren erakoei) dagozkion joera orokorren mende daude⁵¹. Baina jakin beharko litzatekeena da, zein den joera honen indarra; ez dakigu, ordea. *p...k^w...* segida hautemateko aukera gutxi dago. — Gauza ziurra da mendebaldeko indoeuropeeran bazegoela ahaidetasun bat *k^w* eta *p*-ren artean, eta alde guztietan *k^w*-ek *p* eman duela, erregulariki grezieraz (muga jakin batzuekin), osko-unbroz eta zeltikoz, eta germanikoz noizean behin. Italo-zeltikoz **p...k^w...* **k^w...k^w...* izatera igarotze hau da ahaidetasun honen erakusgarrietako bat. Baina asimilazio hau ez da grezieraz gertatu; italikoa eta zeltikoa, beraz, grezierari kontrajartzen zaizkio berrikuntza honi dagokionez. Germanikoz ere egon da asimilazio bat, baina alderantziz, eta **k^w...k^w...* izan beharrean **p...p...* daukagu, adibide bakan batean *f...f*-ek ordezkutzen duena, gotikozko *fimf*-en alegia⁵². Honek aditzera ematen digu asimilaziorako joera berezkoa zela, baina asimilazioa bi modutara gauza zitekeela. Italo-zeltikoa honek bereizten du: alde batetik asimilazioa gertatu den norabideak, eta bestetik, gertakariaren irmotasunak. Kidetasun hau frogatzaile da, baina ez lehen hurbiltzean soma genezakeen adina.

Zorionez, konparatzaileak askotan nahikoa frogapen objektiboak lortzeko era izaten du.

Konparatzaile historikoak maizenik izaten duen arazo mota, konparaketa bidez etimologia bat finkatzea izan ohi da. Parekazio bat aintzat eman ahal izateko, azaldu behar da hautemandako kidetasun zenbait ezin direla halabeharrezkoak izan. Armenierazko *erku* «bi» hitza, grezierazko *δύο*, *δύω*, latinezko *duo*, etabarren parean ezarri beharra, ikusi bezala (20. or.), erabil daitezkeen frogabideen adibide on bat da.

⁵¹ Ikus eusk. **sazoi* (esp. *sazón*) > *sasoi* (arg. oh.).

⁵² Ingelesezko *five* eta alemanezko *fünf* «bost»-en ordaina da (arg. oh.).

Lehen begi-ukaldian, parekazio hau bitxia gertatzen da, eta zalantzak ditugu onartzeko. Egia esan, ziurra da, eta erraz azal daiteke.

Lehen-lehenik, «bat»-etik hasi eta «hamar»-erainoko zenbaki izen armeniarren saila indoeuroparra da. «Bi»-ren *erku* forma da lehen begiradan argia gertatzen ez den bakarra. Maileguz hartua izateak ere *a priori* egiantza handirik ez du, oro har hitz altxor zaharra hain ongi gorde duen antzinako hizkuntza indoeuropar batez ari garela kontuan izanik, baina are onartezinagoa gertatzen da ikustean ezagutzen diren armenieraren inguruko hizkuntza bakar batek ere ez duela «bi»-rentzako antzeko formarik eta, beraz, armenierak *erku* kanpotik nola har zezakeen ez dakigula.

Bigarrenik, «hiru» eta «lau»-ren zenbaki izenek, indoeuropeeraz deklinabide plurala zutenek, armenieraz nominatiboan bukaerako *k^c*-dun nominatibo formak dituzte; «bost»-etik aurrera, berriz, zeina baita deklinabiderik ez duen lehendabiziko zenbaki izen indoeuroparra, *k^c*-rik ez dago; *erek^c* «hiru», *çork^c* «lau», baina *hing* «bost», *veç* «sei», etab. Alabaina, «bi» zenbaki izenak deklinabidea zuen indoeuropeeraz, dualarena jakina⁵³. Histori garaian, armenierak ez zuen jadanik dualik, eta ziur aski aspaldidanik gainera; *erku* formak, beraz, ez du azalpenik histori garaian. Eta ohargarria da *erku* plural markarik gabe geratu izana, nahiz eta armenieraz dualaren kategoria ezabatua izan. Harrigarria da armenieraz dual indoeuroparraren aztarna honen iraupena; lat. *duo*, gr. *δύο*, *δύω*, etabarretan aurkitzen duguna gogorarazten du.

Hasierako **dw*-ren **erk-* tratamendua bitxia da. Baina azaldu ahal izan da hasierako talde bera kausitzen den guztietan aurkitzen dela; *erku* eta lat. *duo*-rena bezain zuzenak diren beste adibide pare batek argi eta garbi uzten du. Eta armenieran dago azalpena (honetaz guztiaz ik. 39-40. or.).

Bestalde, *erku* antzina bisilabaduna izan balitz eta *e*-a jatorrizkoa izan balitz, bukaerako *u*-ak ez zuen iraungo; zeren armenierak jaso dituen bisilabadun guztietan, azken silabako bokala galdu egin da. *Erku*-ko

⁵³ Indoeuropeera zaharrak singularra eta plurala izateaz gain bazuen ere, numeroaren kategoriaren barne, hirugarren forma bat «bitasuna» adierazteko, zenbait hizkuntza indoeuropar zaharretan (vedikoan, Homeroren grezieran, etb.) gorde dena: duala (arg. oh.).

u-a, hom. δύω, esl. zah. *dīva*, etabarrek lekukotzen duten antzinako *-*ō*-ren ordain normala gorde bada, horrek esan nahi du azken silabako bokalak galdu zirenean hitza ez zela bisilabaduna.

Dena dela, tratamendu fonetikoaren bitxitasunak zalantzak sor litza-ke zenbaitengan. Azalpena onar daiteke, armenieraz eta beste hizkuntza indoeuoparretan elkarren kide diren «bi»-ren formen aldaerak aurkez-tuz gero. Indoeuoperazko *-*ō*-ren ordaina armenieraz *u* denez gero, *erku* formaren jatorria **duwō* da, δύω forma homerikoan, esl. zah. *dīva*-n eta *d(u)vá* vedikoan, adibidez, gordea. Baina bazegoen beste **duwo* forma bat, bukaerako *o* laburrarekin, grezieraz arrunta dena, δύο alegia. Alabai-na, *erku* «bi»-ren aldamenean, armenierak badu *erko-tasan* «hamabi» (bi eta hamar) ere, non *o* laburreko eredu mantendu baita. Eta ez da hau guztia: hitz elkartuen lehen osagaien, indoeuoperak **dwi*- zuen, eta ez **dwo*-, adibidez *dvi*- sanskritoan, *di*- grezieran eta *bi*- latinean; bada, armenierak *erki*- du *erkeam* «bi urtetako»-n. Elkarren kide diren aldaera sail hirukoitz honetan halabeharra bazterturik dago.

Azalpena, beraz, buruturik dago.

Beti ez dago hain kidetasun oso eta ugariak aurkitzerik. Ondorioz, etimologiaren probabilitate maila aldakorra da kasuen arabera. Batzuetan, aipatu berri dugun kasuan bezala, azalpenak ez du inongo hutsunerik, eta histori arloan guztiz bakanki aurkitu ohi den zehaztasun maila lor-tzen du. Bestetan, parekazioa ez da litekeen zerbait baino gehiago, eta inoiz zaila da haren egiantza bera erakustea ere. Bi muturren artean, probabilitate maila guztiak ditugu: etimologi hiztegi askoren akatsik larri-rietako bat da, ez dituztela argi eta garbi adierazten parekazioen ar-tean dauden balio ezberdintasunak. Hizkuntzalariak ezberdintasun hauek neurtzeko koefizienterik ez izan arren, baditu, ordea, nabariarazi eta markatzeko bideak.

Hizkuntzalaritza historikoak aurrera egin dezan, behar-beharrezkoa da ikerketak zehaztu, sistematizatu eta hedatzea. Zeren teoriak datu za-tikakoetan, zehaztugabeetan, aukeratuak baino gehiago, halabeharrak emanak izan direnetan oinarritzen dira.

Azterketa gero eta zorrotzagoak behar dira: datuak hurbilagotik az-tertu diren aldi oro, emaitza berriak lortu ahal izan dira. Gaur egun mintzatzen diren hizkuntzei dagokienez, urruti gaude eskuartein di-tugun baliabide guztiak erabiltzetik. Fonetikak laborategiak behar ditu,

eta laborategi hauetan, tresneria erabiltzeko gai diren hizkuntzalariak. Eta ez da aski gertakariak une jakin batean agertzen diren eran aztertzea. Duela gutxi *Mélanges Andler*-en agerturiko artikulua batean Poirot zenak erakutsi digu nola hel dakiokkeen aldaketa bati gertatzen ari den unean bertan, eta bere mekanismoa agerian jar. Antzinako hizkuntzei dagokienez, hizkuntzalariak filologiarik zorrotzenaz baliatu behar du: batzuetan uste izan da hizkuntzalariak nahikoa duela gutxi gorabeherako hurbilketa filologikoekin; guztiz alderantziz, filologi metodorik zorrotzenek eskaintzen dioten zehaztasun eta zorrotzasun guztiaren beharra du.

Ikerketa sistematikoak eraiki behar dira. Ia ezertxo ere ez da egin orain artean hizkuntz teoriak ikerketa metodikoen bidez finkatzeko. Psikologo bakan batzuk izan dira, soilik, esperientzi sail batzuk abian jarri dituztenak, baina ez dute gehienetan jarraipenik izan.

Beharrezkoa litzateke, adibidez, arretaz aztertzea zein neurritan igarotzen diren belaunaldiz belaunaldi eskuratutako hizkuntz ohiturak. Ez dakigu haur batek beste edozein hizkuntza, eta batez ere eredu ezberdineko hizkuntza bat ikasiko lukeen baino errazago ikasten duen bere gurasoen hizkuntza. Horra hor egiteke dagoen inkesta bat, eta ez du zailtasun berezirik.

Zenbait gertakariren arabera, balirudike hizkuntza asko menperatzen dituzten gurasoen haurrak edo guraso elebidunen haurrak gaiago liratekeela, eurak ere, hizkuntza ezberdinak ongi ikasteko, hizkuntza bakar bat eta bera hitz egiten duten gurasoen haurrak baino.

Baldintza beretan jaiotako haurrengan antzerako berrikuntzak garai beretsuan agertzeak adieraziko luke badagoela eskuratutako hizkuntz ohituren heredentzia bat.

Hizkuntzalaritzaren bilakaera argi berri batez argituko lukeen ohar eta are ikerketa esperimental multzo bat susma daiteke hemen⁵⁴.

Bestalde, hizkuntzalarien esperientzia mugatuegia da. Hizkuntza hedatuak sarri xehetasun handiz deskribatzen badira, are derrigorrezkoagoa da tokian tokiko hizkerak behar adinako zehaztasunez deskribatzea. Hizkuntza hedatuez lekora, oso deskribapen zehatz gutxi dago;

⁵⁴ Meillet konturatzen da hizkuntzaz jabetzearen prozedurak haurrengan duen garrantziaz. Psikolinguistika arduratzen da arazo hauetaz, batez ere (arg. oh.).

alabaina, beharrezkoa da ahalik eta eredu ezberdinenetako hizkuntzen jokabidea ezagutzea, eta ahalik eta baldintza ezberdinenetan⁵⁵.

Are larriagoa dena, ez dago ia azterturiko hizkuntz egoerarik, era zehatz, zorrotz eta osoan deskribatua izan denik. Deskribaketa fonetikoek, gramatikek, hiztegiek eman ohi dutena, gutxi-asko arbitrarioki aukeratutako adibide tipikoak edota arauak dira. Baina ez dago ikuspegi orokorrik, zeinari begiraturuz esan baitaiteke zein den egiaz hizkuntz egoera. Alabaina, hizkuntzalariari axola zaiona ez dira arauak, hizkuntza nola erabiltzen den baizik.

Ez dago hizkuntz egoera batetik ezberdinago den gauzarik, beste hizkuntz egoera bat baino. Gauza bat da guztiek gutxi gorabehera gizarte maila bera eta gutxi gorabehera kultura bera duten herri bateko hizkera, eta guztiz beste bat maila ezberdinetako, heziketa ezberdinetako eta kultura ezberdinetako jendea dagoen hiri bateko hizkera. Gauza bat da mundu guztiak hizkuntza bera erabiltzen duen hiri bat, eta guztiz beste bat Konstantinopla bezalako hiri bat, non bost edo sei hizkuntza ezberdinez mintzo diren gizataldeak nahasten baitira. Baldintzak ohituren arabera aldatzen dira: Ekialdeko hiri batean, gizonezkoek lauzpabost hizkuntza ezagutzen eta behar ahala kanpoan erabiltzen dituzten bitartean, gerta daiteke emakumeek, sukalde zokora baztertuak, hizkuntza bakar bat baino ez ezagutzea. Gizataldeen arabera aurki daitezkeen egoera ezberdinak amaigabeak dira.

Ustez badakigu zer den frantsesa. Baina inork ez daki, egiaz, nola mintzatzen diren hiztunak, ez Frantziako herrixka batean, ez Frantziako probintzi hiruburu batean, ez eta are gutxiago Parisen. Frantsesaren bilakaera nolakoa izango den jakin nahi lukeenak aztertu beharko luke zein neurritan erabiltzen diren tokian tokiko hizkerak herrietan eta hirietan, zein tankera berezi hartzen duen frantsesak probintzia bakoitzean, hiri bakoitzean, eta halaber, hiri bakoitzean, gizarte maila bakoitzeko, lanbide bakoitzeko eta talde bakoitzeko jendeengan⁵⁶.

⁵⁵ Deskribapenak asko ugaritu dira Meilletek hau idatzi zuenetik hona, batez ere Ameriketako, Afrikako eta Australiako hizkuntzenak. Honek guztiak hizkuntzalaritzaren atala den tipologia asko sendotu eta aberastu du azken berrogei urteetan (arg. oh.).

⁵⁶ Soziolinguistikarekin lotuta dauden arazoak aipatzen ditu hemen Meillet-ek, urte asko beranduago eta W. Labov hizkuntzalariaren eskutik batik bat ikertuak izango direnak. [Ik. W. LABOV, *Sociolinguistic Patterns*, Philadelphia 1972, University of Pennsylvania Press] (arg. oh.).

Gramatika-liburu eta hiztegi-tako frantsesa ezaguna da; baina ez da lege multzo bat baizik. Hizkuntzalariari axola zaiona, frantsesez mintzo diren hiztunek araei buruz nola jokaten duten jakitea da. Alabaina, ez dago ideia garbirik horri buruz; ez da inkesta lan sistematikorik egin, baizik eta zenbait zatikako ikerraldi, gehienera jota ere.

Frantses komuna, XIX. mendearen hasieran gizon ikasi talde oso txiki baten hizkuntza izanik, Frantzia osoaren hizkuntza bihurtu izateak, arras aldatu ditu hizkuntzaren bilakaeraren baldintzak eta berrikuntza nabariak eragin behar izan ditu.

Frantsesarekin gertatzen dena, munduko hizkuntza hedatu guztiekin gertatzen dena bera da.

Historiak erakusten digu hizkuntza komunak zabaldu egiten direla. Halaz ere, iraganari dagokionez, zabaltze hau nola gertatu den ezin zehaztu daitekeen gauza da. Eta, aztertu ahalko litzatekeen orainari dagokionez, igarotzen uzten zaio, ia begiratu ere egin gabe. 1914 aurretik, errusiera Tibilisi-ko hizkuntza komuna bihurtu zen. Baina inork ez du inoiz zehaztu zein eratan, zein bitartekoren bidez. Ama-hizkuntza gisa georgieraz, armenieraz, turkoz, errusieraz eta nahiko hizkuntza gehiagotan mintzo ziren jendeak nahasirik bizi ziren hiri batean, hizkuntza komun bat izan beharrak errusiera erabiltzera bultzatzen zuen, honek eskola eta administrazioa bere alde baitzituen, eta zibilizazio eramaile izateko itzala baitzuen. Baina bazegoen gainera beste ohitura ezaugarri xume bat txit lagungarri izan zitekeena: emakume armeniarrek ez ziren neskame joaten, eta familia armeniar dirudunek emakume errusiarrek hartu ohi zituzten beren zerbitzuko, haurrak zaintzeko batik bat; hala, haur armeniar askorentzat, ospe eta eragin handiena zuten familietan batez ere, ama-hizkuntza bihurtu zen errusiera.

Berebera, herriko antzinako hizkuntza, eta arabiera, islamismoa ekarri zuten inbaditzaileen hizkuntza, elkarrekin bizi dira Frantziak administratzen dituen Ipar Afrikako koloni lurretan⁵⁷. Arabiera, erlijio hizkuntza eta literatur hizkuntza omentsua, tokian tokiko hizkera multzo bat baizik ez den berebera baztertzan ari da, Argelian behintzat. Gizarte islamikoak, aldiz, bere erlijioari eta bere tradizioei leial egonik,

⁵⁷ Hau da, gaur egungo Maroko, Aljeria eta Tunisia-n (arg. oh.).

ez ditu, zibilizazio europarrak eskaintzen dionetik, zenbait osagai material baizik onartzen; beraz, ez dute frantsesa erabiltzen, zenbait kanpoko beharretatik lekora. Administrazio europarrak eragin duen zibilizazio aurrerapena, beraz, bereberearen baztertzea eta arabieraren hedatzea ari da bultzatzen, administrazio frantsesa horretaz jabetu gabe ari bada ere lanean arabieraren eremua zabaltzearen alde.

Elebitasun egoera baten aurrean, jakin beharko litzateke zein eragin duen hizkuntza bakoitzak bestean eta hortik zein erreakzio datozen.

Amerikak xehetasun handiagoz aztertu beharko lireratekeen eta hizkuntzalariek gaingiroki baizik ukitu ez dituzten adibide aipagarriak eskaintzen ditu.

Ipar Amerika, XVI eta XVII. mendeetan gehienak ingelesak ziren kolonoek kolonizatu zuten. Gaur egungo Estatu Batuek XVIII. mendearen azken aldera bakarrik utzi zioten kolonia ingelesa izateari, eta Kanada, gaur egun⁵⁸ ere, britainiar inperioaren *Dominion* bat da; XIX eta XX. mendeetan zehar ingeles askok jo dute Estatu Batuetara. Literatur hizkuntza bat eta bera izan da beti Atlantikoaren bi aldeetan; gramatika arauak berberak dira; eskolak gramatika irakaskuntza berbera ematen du; are gehiago, badago halako ingeles-garbizaletasun bat jende ikasien artean, Estatu Batuen ekialdean batez ere. — Bestalde, ez dago jatorriz bertakoak zirenen eraginik. Batzuk suntsituak izan dira, eta besteak leku berezietan zokoratuak; ez da nahasketarik egon zurien eta jatorrizko biztanleen artean. — Eta halaz ere, independentzi aldarrikapena egin zenetik ehun eta berrogeita hamar urte baizik igaro ez direnean, Ameriketara hitz egiten den ingelesa eta Ingalaterran erabiltzen dena nabarmenki ezberdinak dira. Literatur kritiko famatu bat, Mencken —alderdikeria pixka batez bada ere— bi hizkuntza ezberdin direla esatera iritsi da.

Argi dago elkarrengandik urruntzearen zergatia.

Lehen-lehenik, ingelesa aldaerrazagoa da frantsesa baino. Gramatika ez da hain zorrotza; hizkuntz esamoldeek ematen diote ingelesari bere kutsu berezia, eta hauek aldakorragoak dira gramatika forma soilak

⁵⁸ Kontuan izan Meillet-en testua 1925.ekoa dela eta Kanadak hurrengo urtean lortu zuela bere independentzia. Dena den Kanada oraindik ere Commonwealth elkartearen partaide da (arg. oh.).

baino. Garbizaletasunak, bestalde, indar gutxiago du Ingalaterran Frantzia baino, ez dago hain eratua, hain zabaldua.

Estatu Batuak nazio boteretsu bihurtu dira, eta ez dute aberri zaharrekiko inolako menpekotasunik somatzen; edozein menpekotasunek, hizkuntzazkoa bakarrik balitz ere, nahigabetu egingo lituzke. Batez ere lehen kolonizazioaren gunean, ekialdean, talde intelektual zenbaitek oraindik ingeles kultura zaharrari loturik jarraitzen duten arren, taldeon eragina ez da estatu mailan nagusi. Eskola ez dago gobernu zentralaren menpe eta ezin izango luke Frantzia, esaterako, duen eragin bortizki bateratzailea.

Eta batez ere, Estatu Batuak inmigrazio herri bat dira. Europa osoko etorkinak jaso ditu: irlandarrak, ingelesez mintzo baziren ere, ingelesa nahikoa berandu ikasitako hizkuntza zutenak, alemanak, eskandinaviarrak, letoniar eta lituanienak, poloniarak, errusiarak, finlandiarak, errumaniarrak, Ekialdeko Europako juduak, italiarrak, greziarrak, armeniarak eta baita siriarrak ere. Ingelesa da Estatu Batuetako hizkuntza komuna; baina hizkuntza komun hau, beste ama-hizkuntza bat zuten edota, Estatu Batuetan jaio izanik ere, beren gurasoengandik beste hizkuntza bat ikasi duten jendeek erabiltzen dute. Eskualderik gehienetan, antzinako kolonoen ondorengoak baino askoz ere ugariagoak dira etorkin berri hauek. Estatu Batuetan, beraz, gehienek ingelesaren tradizioa berritzaileak izaten dituzte eta asko eta asko oraindik elebidunak diren jendeek hitz egiten dute ingelesa. Estatu Batuetako erdialdearen eta mendebaldearen garrantzia handitu ahala, alderdi horietan etorkin berrien kopurua ekialdean baino handiagoa baita eta britainiar tradizio gutxiago baitago, hizkuntza hondatzeko arriskua handiagoa da.

Laburbilduz, indar gordetzaile gutxi, eta aldaketara bultzatzen duten indar asko. Aurrerantzean ingelesak Ingalaterran eta Estatu Batuetan bilakaera ezberdina izatea berez datorren gauza da.

Txit argigarria izango litzateke ingelesak munduan zehar izan duen zoria aztertzea.

Kaukasoko hizkuntzena bezalako eremu korapilotsu bat aztertzeke xedea izanik, Zibilizazioen Azterketa Konparatzaileko Institutoak garbi ikusi du zein diren hizkuntzalaritzaren beharrik premiazkoenak. Era honetako inkesta lanak dira, hizkuntz egoerei buruzko xehetasun zorrotz eta osoak eskainiko dituztenak, eta bide horretatik, teorien be-

rrizatzea ahalbidetuko dutenak. Uste osoa dugu, ikertzaile zorrotz eta adituen eta hizkuntzalari ikasien arretari esker inkesta lan horrek izango dituen emaitzetan, eta gure nahirik biziena izango litzateke emaitza hauek epe laburrean, beste eremu batzuetan antzerako inkesta lanen bultzatzaile izatea. Inkesta hauen eta berak egingo diren zorrotasunaren baitan dago hizkuntzalaritzaren etorkizuna.

Publicaciones de la Cátedra 'Luis Michelena'
'Koldo Mitxelena' Katedraren Argitalpenak

1. Languages and protolanguages.
Luis Michelena
2. Metodo konparatzailea hizkuntzalaritza
historikoan.
A. Meillet

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco
servicio editorial

Euskal Herriko
Unibertsitatea
argitalpen zerbitzua

ISBN 84-8373-358-7



9 788483 733585